


# Hegats

45

LITERATUR ALDIZKARIA

[45]



JOXE AZURMENDI

"Oso untzi hauskorreko  
argonautak gara euskaltzaleok"



EUSKAL IDAZLEEN ELKARTEA

# Hegats

## AURREKO ZENBAKIETAN

### 31. zenbakia:

Txosten monografikoa: Aita Villasante  
Elkarrizketa: Joseba Intxausti

### 32. zenbakia:

Txosten monografikoa: Zientzia-fikzioa  
Elkarrizketa: Emilio Lopez Adan 'Beltza'

### 33. zenbakia:

Txosten monografikoa: Oroimena eta historia  
Elkarrizketa: Txomin Peillen

### 34. zenbakia:

Txosten monografikoa: Oroimena eta literatura  
Elkarrizketa: Xabier Gereño

### 35. zenbakia:

Txosten monografikoa: Oroimena eta historia  
Elkarrizketa: Txomin Peillen

### 36. zenbakia:

Txosten monografikoa: Amodiozko literatura  
Elkarrizketa: Arantxa Urretabizkaia

### 37. zenbakia:

Txosten monografikoa: Hiriak  
Elkarrizketa: Asun Sarobe

### 38. zenbakia:

Txosten monografikoa: Memoriak eta egunerokoak  
Elkarrizketa: Piarres Xarriton

### 39. zenbakia:

Txosten monografikoa: Literatura eta zinea  
Elkarrizketa: Anjel Lertxundi

### 40. zenbakia:

Txosten monografikoa: Euskal antzerkia  
Elkarrizketa: Ander Lipus

### 41. zenbakia

Txosten monografikoa:  
Cesare pavese

### 42. zenbakia

txosten monografikoa:  
Finlandia

### 43. zenbakia

Txosten monografikoa:  
Victor Hugo

### 44. zenbakia

Erotismoa, haragia eta beste  
debeku batzuk literaturan



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

**KULTURA SAILA**  
Hizkuntza Politzarako Sailburuordetza







### **Idazkuntza Kontseilua**

Idazkuntza Kontseiluburua: Igor Estankona  
Kontseilukideak: Elena Martinez eta Ander Iturriotz  
Zuzendaria: Iratxe Etxebeste

Diseinua eta maketazioa: Amagoia Agirre  
Inprimaketa: Gertu Grafikak



Zemoria kalea, 25 behea  
20013 Donostia  
Tel: 943 27 69 99  
Faxa: 943 27 72 88  
Posta elektronikoa: [eie@idazleak.org](mailto:eie@idazleak.org)

ISBN: 1130-2445

Lege Gordailua: SS-359/90

*Euskal Idazleen Elkarteak ez ditu derrigorrean beregain hartzen Hegats  
aldizkariako kolaboratzaileen iritziak.*



Zergatik Azurmendi?.....	9
Ander Iturriotz Lauzirika	
Txango bat, Azurmendiren liburuetan barrena.....	18
Xabier Mendiguren Elizegi	
Joxerenak atzera begira (J. Azurmendiren saiakeragintza).....	27
Fito Rdz.	
Azurmendi, B. Gandiagaren editore "iradokitzailea".....	43
Paulo Agirrebaltzategi	
Hilezkortasunaren puskailak.....	59
Markos Zapiain	
Artean gazte eta berde: Azurmendiren	
<i>Hitz berdeak eta Manifestu atzeratua</i> .....	71
Igor Estankona Bilbao	
Azurmendi edo konkretutasuna.....	85
Ander Iturriotz Lauzirika	
Joxe Azurmendi. Askatasunaren pentsalaria.....	63
Andoni Olariaga Azkarate, Jon Jimenez Martinez	
Joxe Azurmendi:	
"Oso untzi hauskorreko argonautak gara euskaltzaleok".....	183
Elkarrizketa: Lorea Agirre	





## **Zergatik Azurmendi?**

Ander Iturriotz Lauzirika

### I.

*Hegats* aldizkariaren ale honetan Azurmendiri buruzko monografia bat zergatik aurkezten dugun esplikatzea lan arras astuna da, nabarmenkeria bat argitzea edo tautologia bat zuritzea bezain hutsala da. Azurmendiren obra monumentala ezagutzen duenak badaki hautu erabat justifikatua dela honakoa; areago, harritu ere egingo da askoz lehenago ez delako inon ezer argitaratu, ganoraz, Zegamako pentsalari handiari buruz. Azurmendi filosofo garrantzitsua da, zalantzarik gabe; Euskal Herrian eta Euskal Herriarentzat lehenik, baina, orobat, nazioarteak sortu dituen filosofo handien artean dago.

Idatzi duen obra begien aurrean hartzea besterik ez dago horretaz ohartzeko, hain maisuki ukitu dituen gaiak gogoratu besterik ez dago sakontasunetan zorabiatzeko. Hurbildu nahi duenak haren gogoeta oparora, beldurra ere sentitzen du, iristezintasuna, ezgaitasuna; irakurritakori buruz zerbait idazteko erabakia hartzen duenari dardarka jartzen zaio eskua, bihotzean. Testuak, autoreak eta eskolak ugari; eztabaidak eta kritikak beti aberasgarriak; ekarpenak, gogoangarriak, gogoangarririk inon bada:

- Schopenhauer, Nietzsche eta Spenglerren bidez esplikatu digu mendebaldeko kulturaren gainbehera.

- Marx, Nietzsche eta Freuden bidez kritikatu du arrazoia-  
ren paradigma ilustratu lar hertsia.
- Adorno, Horkheimer, Marcuse edo Habermasen eskutik  
erakutsi dizkigu —Frankfurtoko Eskolaren inguruabarre-  
an— arrazoi instrumentalaren gabeziak.
- Sartre eta existentzialismoan oinarriturik, bitzta histori-  
ko konkretua begiratzeko beharra azpimarratu digu eta  
lagundu, apaltasunez, esku-zabaltasunez, optika, analisi-  
metodologia doia aukeratzen.
- Descartes eta Kant aurrez aurre jarriz, alegia, moderni-  
tatea definitzen duten bi eredu nagusienak, *eredu arrazio-  
nalista eta eredu idealista edo transzendentala* elkarren  
aurka askatuz, birakuntza antropologikoa eskatu du arra-  
zoimenarentzat.
- Herder, Humboldt, Göethe eta Erromantizismo alema-  
naren —Ilustrazio erromantikoaren— sehaskan ondu du  
Ilustrazio frantses jakobinoaren superazio ilustratua, bes-  
teak beste, nazioaren ulerkuntza kulturala ahalbideratu  
dezakeena.
- Giza aberearen izaera definitu du, ondoren, antropologia  
filosofikoaren ikuspegitik: taldetasunean, kulturarekin  
harremanean, hizkuntzaren baitan, artefaktu sinbolikoekin  
jolasean.
- Ez ditu ahantzi, halere, biologiak, psikologiak, edo zoolo-  
giak berak, giza aberearen definizioa osatzeko egin dituz-  
ten ekarpenak. Izan ere, teknikaren eta arrazionalizazio  
absolutuaren kultura, giza abere deshumanizatuak, giza  
abere desantropologizatuak jasaten dituen ajeak ez dira  
nolanahikoak.

Gehiago ere badira, noski, autoreak, eskolak eta gaiak. Irudipena hartzen du batek, Azurmendik irakurri beharreko guzti-guztia irakurri duela, irakurri beharreko guztiarekin eraiki duela gogoeta ezin koherenteagoa.

Baina, eztabaida teoretiko unibertsal horiek garrantzitsuak badira, are garrantzitsuagoak dira guretzat, hain zuzen, horien bidez Euskal Herriarentzat ereduak eta sendabideak proposatu dituen heinean:

- Schopenhauer, Nietzsche eta Spenglerren bidez esplikatu digunean mendebaldeko kulturaren gainbehera, euskal kulturaren gainbehera ere jarri digu begien bistan, bertan uztartu dizkigu, esaterako, Jon Miranderen obra eta pentsaera.

- Gainbeheraren arrazoiak aztertuz, berpizkunde baterako bideak argitu dizkigu, bidenabar: Ilustrazio erromantikoaren ikaspenak ekarriz, nazioaren izaera kulturala sendotzeak, euskara kultur hizkuntza normalizatua bilakatzeak, izugarritzko oinarriak jarriko lizkioke, etorkizunean, naziotasun politikoaren aitopenerari.

- Nazioaren definizio jakobinoaren aurka nazioaren definizio kulturala jarri duenean, bestalde, teorizazio jakin bati ari zaio erantzuten, Elorza, Juaristi, Martinez Gorriaran, Savater..., eta enparauen erasoari, alegia. Euskal Herriarentzat nazio eredu estatista ilustratua (Renan, Fustel de Coulonges), alegia, nazio eredu frantses eta espainola onesten dutenen aurka, eredu aleman erromantikoa (Herder, Goethe, Humboldt), proposatzen du, hain zuzen, aipatutako autoreek, nazismoarekin eta *volksgeist* kontzeptu etnizistarekin nahastuz, gaitzesten dutena.

Ongiaren eta gaizkiaren arteko borrokak dituen lausotasunak agerian uzten ditu eztabaida horretan. Ezjakintasunak eta intentziorik makurrenak interesak, botereak zabaldu dituen topiko asko behar baitira askatu gure artean: eredu frantses *ona*, frantses jakobino batzuen eredu inperialista besterik ez da (Rousseauren edo Montesquieuren filosofietatik urruntzen dena, besteak beste); eredu aleman *gaiztoa*, aitzitik, nazioaren definizio kulturala ekartzen duena, frantsesa bezain ilustratua da (Rousseauren edo Montesquieuren obretatik elikatzen delako, besteak beste): bigarren eredu hori osatzera dator askatasunaren eta berdintasunaren aldarrikapena zilegi bazaigu batere paradoxarik gordetzen ez duen formulazio bat erabiltzea, eta, luzamenduz, kosmopolitismo orekatu bateraino iristen da.

- Nazionalismoen arteko gatazka horren inguruabarrean, euskal nazionalismoa politikoki ez ezik, ideologikoki ere ukatzen duen espainiar nazionalismoa aztertzea hartu du jomugatzat Azurmendik, desestali nahi baitu nola burutu den mendeetan zehar Espainiaren eraikuntza politiko eta sinbolikoa: indarrarekin, inperioarekin eta arrazarekin lotua, alegia.

- Konkretutasunaren beharraren aplikazioa da euskal gatazka politiko-kulturalaren azterketa: konkretutasunak erakusten digu, bortizkeria baten inguruan, ETAren bortizkeriaren inguruan laburbiltzen sinplifikatzen den euskal arazo nazionalak sustrai oso konplexuak dauzkala, kulturalak, historikoak, politikoak; sustrai horiek ulertu gabe, ongia eta gaizkia absolutu batzuk argudiatze hutsarekin, demokraten eta biolentoen kategorizazio manikeoa

ezartzearekin, nekez uler daiteke euskal bortizkeria, areago, nekez gaindi daiteke euskal bortizkeria. Gerra elikatze-ko goiburu hori oso nabaria da bakezale mozorroa jartzzen duen otso-uso askorengan.

- Arizmendiarrietaren giza abere kooperatiboarekin hasi zenak, marxismoa, sozialismoa edo komunismoa hartzen baditu begiradapean, ezkerreko ideologia modernoek egin dituzten ekarpenak eta izan dituzten akatsak nazio gu-txietuen gertakariarekin oso nabarmenak azterturik, euskal sozialismo humanista bat proposatzen du, Karlos Santamariak, Rikardo Arregik eta Joan Mari Torrealdaik urratu zuten bideari ematen dio jarraipena.

Eta, hain zuzen, onarmen politikoa eskatzen duen euskal nazioaren izaera kulturala bere konkretutasunean antzemateko, Azurmendik gertu-gertutik jarraitzen ditu historiaren gertakariak:

- Euskarak, bere gutxitasunaren historia zaharrea zehar, jasan dituen era guztietako erasoak erakusten dizkigu, testu gogoangarri askoak jarririk horretarako begien aurrean.

- Euskalgintzaz eta euskal kulturgintzaz ikuspegi beteago bat osatze aldera, nekerik gabe arakatzen ditu, barrutik, mugimendu, bultzagile eta estrategia arrakastatsua bezala, bidean agertu diren kontraesan eta eragozpenak. Beste kultura batzuetako une fundazionaletan ere bereziki, Alemanian ibili da, ibili beharrez, adibide eta eredu bila.

- Literaturak hizkuntza-normalizazioan duen garrantziak jakitun, Orixe, Salvatore Mitxelena, Arruti, Aresti,

Salaberri, Manex Erdozaintzi-Etxart edo Gandiagaren obretan barrena egin ditu txango amaigabeak: lurrarekin lotutako sentsibilitate konkretu bat aurkitu du peripathos horretan.

-Azurmendi bere lagun eta gogaideekin dabil beti elkarrizketan: haien esanak bereak dira, bere ideiak sustrai zahar-rago haiekin elikatzen dira.

Begirada gordina badarabil ere, Miranderi ikasi dion erre-alismoari itzuri egiten ez badio ere<sup>1</sup>, baikorra da Azurmendi gehienetan. Ezagutzen du bere/gure herria, ezagutzen du bere/gure herriaren kemena. Kulturgintzaren susperraldia iragartzen ari da; aldeak alde, alemana gutxitasunetik gorentasunera altxatu zen garai zaharretan bezala, oinarrizko egiturak ongi jarri ditugula antzematen du. Gerra-aurreko lehen pizkunde bati, gerra-ostean, bigarren pizkunde batek segida eman zion bezala, hirugarren pizkunde batean gaudela sumatzen du ez, noski, azkena.

Beti adi, halere, beti erne, begiak irekita, gertu-gertutik begiratzen dio gaur egun ibilian dabilen euskal kulturgintzari. Garai batean, Saizarbitoria, Atxaga, Izagirre eta abarrekin egin zuen bezala<sup>2</sup>, gertu-gertutik begiratzen die sortzaile gazteei: ez du galdu inoiz hurrengo kate begia bilbatuko duten gazteenganako interesa.

Baina gizon handi horren koherentzia neurrigabe hori guztia, koherentzia ia erlijioso hori guztia ez da ezagutzen, gutxi ezagutzen da euskararen esparruan eta, ezagutu gabe, arbiatu egiten da Euskal Herriko kultura espainolean.

## II.

Urte batzuk badira Joxe Azurmendik Euskal Unibertsitateaz kezka agertu zuenetik: E. Jünger eskuin mutur-muturreko pentsalari filo-nazia doktore *honoris causa* egin zuen Unibertsitate batek, printzipal handi eta demokratik EHU-UPV deitzen denak, alegia eta, bien bitartean, beste Unibertsitate bat kanpoan, atarian protestan geratu zen<sup>3</sup>: eskizofrenia politiko eta kultural sakon baten isla izan zen. Joxe Azurmendi bera atari hartan geratu zen, kanpoan, protestaka, bide baketsuak zerabiltzaten biolento guztiekin.

Azurmendi ez baita inoiz Unibertsitate printzipal handiaren barruan egon, bertan Katedraduna bada ere. Estimatu handiagoa bide du Espainiako Unibertsitatean, edo Alemaniakoan. Eta ez da bere gorentasun intelektuala eza gutzen ez delako: bere gogoetek jarri dute kanpoan, Euskal Unibertsitatearentzat proposatzen dituen autore, gai eta edukiengatik zokoratu dute, zehazki; bere obran zehar egiten duen pentsamendu autonomoaren aldeko aldarriagatik, alegia. Kanpoan egon dira, beti, orobat, Azurmendik aztertu dituen euskal pentsalari, sortzaile eta eragile gehienak, denak atarian: Arizmendiarieta, Sabino Arana, Aresti, Mirande, Orixe, Etxaniz, Santamaria, Salaberri, Gandiaga, Txillardegia...; ez dira, nonbait, interesgarriak; haien kezka politiko eta kulturalak ez dira kabiltzen Unibertsitate printzipalean.

Beti gora begira ibili gabe, batzuetan gutako bakoitzaren utzikeria ere bada.

Azurmendik ongi asko erakutsi digu bere biografiarekin,



bere bibliografiarekin barruko Unibertsitate aberats horrek EHU-UPV deitu ala ez, hori gutxienekoa da zer beharko lukeen izan; euskarak eskatzen duenez, izanetik hartuko badu izena, behintzat: *euskal*.

la genetikoa da, askotan, Azurmendiren abertzaletasuna: odolean baino barrurago darama, ia geneetan darama *tipo* honek Euskal Herriarekiko engaiamendua berak Göethe edo Herderrez dioen begirune berdinaz diogu *tipoarena*, den-dena jartzen du bere nazioari begira: beti eredu bila, beti argi bila. Gai arrotz samarra hartzen duenean ere, lirika aleman modernoena aztertzen duenean, esaterako<sup>4</sup>, poesiak herrigintzari eskaini behar dion sentiberatasunaren ikuspegiarekin dabil kezkatuta<sup>5</sup>. Esan nahi baita, lirikari buruzko azterketa batek errazago eskatuko zuela ikuspegi estilistiko edo literario hutsa politikatik autonomizatu; baina, ez, Azurmendirentzat poesiaren zentzua kulturengintzaren barruan gauzatzen da, kulturengintza zehatz baten barruan, alegia. Azurmendi, oroz gain, pentsalari politikoa da, polisaz arduratua bizi da, bere/gure herriarekin erabat engaiatua, pentsalari kritiko eta ezerosoa, esan dezadan, militantea.

Belaunaldi oso baten jarrera izan da: Intxausti, Agirrebaltzategi, Torrealdei, Pagola, Huizi, Aduriz, Iztueta, Txillardegia, Apalategi...

Poesia, literatura, filosofia, artea, asko interesatzen zitzai-gun, baina beti Euskal Herrian pentsatuz<sup>6</sup>.

Horrexegatik da estrategikoa, behingoz, Azurmendi hizpi-de hartzea.

Izango ahal da lehen urratsa Hegats hau, geroan sendotuko den urrats herabe eta apala! Etorriko ahal dira, aurre-rantzean, saiakera eta ikerketa gizenagoak hemengoak estaltzera!

Eta, datozen bitartean, ezin ibiliko gara gerotik gerora: Azurmendiren irakurketak izango ditugu lagun, bidean.

Lehen lerrotik, ia hasi baino lehen, ase uzten zaitu haren fintasunak, zure buruarekin haserrarazten zaitu haren duintasunak.

---

1 Azurmendi, J.: "Miranderen kritika Iraultza Frantsesari I", JAKIN, 52, 1989, 86 or.; "Miranderen kritika Iraultza Frantsesari II", JAKIN, 53, 1989, 106 or.

2 Azurmendi, J.: "Euskal literaturaren orainaz eta geroz", in Askoren Artean, *Euskal linguistika eta literatura: bide berriak*, Deustuko Unibertsitateko Argitarazioak, Bilbo, 1981, 447 or.

3 "Nietzsche, Jünger: anekdota baten esanahi paradigmaticoak" in, Azurmendi, J., *Demokratak eta biolentoak*, Elkar, Donostia, 1997.

4 Azurmendi, J.: "Gaurko alemaniar lirrikaz", JAKIN, 25, Arantzazu, 1967.

5 Ikus, esaterako, poetaren eta politikaren arteko harremanaz, in Azurmendi, J.: "Victor Hugo Euskal Herrian", JAKIN, 37, Arantzazu, 1985, 155-158 or.

6 Azurmendi, J.: *Azken egunak Gandiagarekin*, Elkar, Donostia, 2009, 389 or.



## **Txango bat, Azurmendiren liburuetan barrena**

Xabier Mendiguren Elizegi

“Azurmendi anglosaxoia izan balitz, munduko intelektual handienen artekotzat joko lukete denek” esan zidan noiz-bait lagun batek, ahaztu zait nork, esaldiak ez baininduen harritu. Izan ere, Joxeren ahotik zein lumatik ikasteko aukera izan dugun guztiok sentitu dugu inoiz halako sentipen bikoitza: zelako zortea, horrelako gizon jakintsuaren irakaspenak jaso ahal izatea, eta zelako pena, haren hitzek eta idazkiek duten baino oihartzun handiagorik ez izatea. Dena dela, sakonxeago pentsatzen jarrita, mugapen hori ez genuke zertan tamaltzat hartu: Azurmendi den bezalako intelektual handia da, besteak beste, herri txiki baten bizi beharrari lotu zaiolako, haren minekin mintzen eta petralkeriak barkatzen jakin duelako; osterantzean, Kanten kantiketan espezializaturiko kantiano kategoriako bat izan zitekeen, agian, berezilarien biltzarretan bildutako bitxorroroei *bildungsroman* bitxienak kontatuko zizkiena. Joxe Azurmendiren bibliografia oso bat egin nahi duenak lanak izango ditu, bere izenez sinaturiko liburu nagusiez gain, era askotako izkribuak hartu beharko baititu aintzat: ezizenez agerturiko artikulua, lan kolektiboetarako idatzia bere izenez nahiz besterenez, idazle askoren eskariz haien liburuei paraturiko hitzaurreak... Denetan ere, idazkeraren oparoa eta zehatza da etxeko marka, pentsamenduaren originala eta zorrotza, jakituriaren zabala eta iturrien fidagarritasuna.

Bibliografia osorik ezean, Azurmendiren liburuetan barneratu nahi duenarentzako lehen hurbilpen moduko bat izan

nahi du honek; ez gida osatu bat ez bitakora fidagarria, oroitzapenei tiraka osaturiko komentario sorta xume bat baizik; eta sailkapeneterako beste edozein bide bezain baliagarria delakoan, kronologia hartuko dut irizpidetzat. Hasteko, bitxitasun bat: Azurmendiren lehen liburuia poema-bilduma bat da: *Hitz berdeak* (1971n kaleratua); geroztik ez du besterik idatzi, poesia gaztetako bekatu arintzat jo balu bezala. Dena dela, Koldo Izagirrek XX. mendeko poesia-kaieretan sartzeko modukoa iritzi zion, eta hantxe dago. Hitz berdeetako testurik esanguratsuena, baina, zentsurak bertan ateratzea debekatu zuen bat da: “Manifestu atzeratua”, hasiera gogoangarri hura zeukana: “Gure herriak ez dauka kondairarik. / Pobrea da. Ez dauka / pirata koxkor pare bat, / langile sofritu batzuk, / muga zentzugabe asko, / mila zorigaizto / besterik.” Pasadizo pertsonal bat kontatzen uzten badidazue: editore lanean hasi nintzenean, 1988ko urtarrilean, ahazturatik erreskaturatu beharreko liburu batzuk eman zizkidaten argitaletxeko arduradunek; horietako bat, *Hitz berdeak*. Egileari deitu nion, proiektu horretaz hitz egiteko. Garbi utzi zidan lehen momentutik nahiago zuela testu hark hauts artean jarraitzea; deigarria egin zitzaidan, lehen momentutik halaber, gizonaren apaltasuna, bera euskal kulturako behi sakratua baitzen, ni berriz 23 urteko bigantxa bihurria, izatekotan, eta hala ere natural bezain jator hartu ninduen uneoro. Esan nezake huraxe izan zela, filmak zioen bezala, adiskidetasun eder baten hasiera. Poesiatik saiakerara pasatuta, Azurmendiren liburuak, askotan, binaka edo hirunaka aipatu behar dira: batzuetan egileak halaxe pentsatu zituelako, beste zenbaitetan edito-

reek zatika argitaratzea erabaki zutelako, eta azken bazuetan egileari egitasmoa luzatu eta biderkatu egin zaio-lako.

*Hizkuntza, etnia eta marxismoa* dugu zerrendako lehena, 1971koa hau ere, gaia eta garaia kontuan hartuta ulertze-koa den legez, klandestinoki zabaldu zena. Abertzaletasun berri bat sortzeko garaian berealdiko ekarpena egindako liburua, teoriar bederen, ez baitakit egiazki askorik irakurri zen: orduko iraultzaile gazteentzat ere errazagoa zen Krutwig-en *Vasconia* edo Oteizaren *Quosque tandem* irakurtzea, edo soilik aipatzea, askatu nahi zuten herriaren hizkuntzan idatzitako beste hau baino. Ezker berri bat eraikitzeko asmoari loturik dago *Kolakowski*, 1972koa, poloniar marxista heterodoxo haren itzulpenaz eta hari buruzko ikerketaz osaturiko liburua, Joseba Arregi gaxte baten laguntzaz ondua (mentorea ezin egingo dugu dizipuluaren hautuen errudun, ezta?).

Marxismoa modako gaia zen, eta Azurmendik gure artean beste inork baino informazio gehiago zeukan (baita sinpatia ere, baina ez miresmen akritikoa); gogora bestela Arestik 64ko *Harri eta Herri*-n eskainitako aipu hura: “Joxepe, nire laguna, (...) han goian, tobaritx guztiak baino tobaritxagoa”. Baina kulturgintza zuen Joxek berezko kezka eta interesgunea: horregatik idatzi zuen iraultza sobietarraren garaian Errusian izandako joera eta eztabaida artistikoei buruzko liburu sorta bat: *Iraultza sobietarra eta literatura* (1975), *Kultura proletarioaz* (1973), *Errealismo sozialistaz* (1978), *Artea eta gizarte* (1978).

Kanpoko mugimendu sozial eta artistikoak aztertu bai, hango eta hemengo idazleak irakurri ere bai (garai guttie-

takoak, eta nor bere hizkuntzan gehienetan: txundigarria da alde horretatik bere liburuetako aipamen eta oharretan ageri duen erudizioa), baina Azurmendik bereziki euskal literatura maite du; hobeto esateko, maite, zentzu frantsesean, seguru asko gehiago maiteko du Pirinioetako ermita erromaniko txiki batean ikusitako kapitela txairoa, edo Siziliako puskailetan atzemandako *kourós* greziar liraina, baina euskaltasuna bere-berea du, haserretzeko zein pozteko, ernegatzeko zein hunkitzeko, eta sentimendu mami horri zor dizkiogu XX. mendeko euskal idazle handienetako batzuei buruzko lanik sakonenak, 30 urteko unibertsitate-jardunak urrundik ere berdindu ez dituenak. Orixeri buruzko biak: *Zer dugu Orixeren kontra* (1976) eta *Zer dugu Orixeren alde* (1977); eta Miranderi buruzko beste bi: *Mirande eta kristautasuna* (1979) eta *Schopenhauer, Nietzsche, Spengler Miranderen pentsamenduan* (1989). Guztiz ohargarria da liburuotan, idazlea bere soilean ez baizik eta gizarteko gorabeheretan txertatzeko eta aztertzeko nahia, baita gure herriko autoreak pentsamendu-korronte unibertsialetan kokatzeko lana ere. Urte horietan onduriko beste liburu-sorta bat Euskal Herriko ideologia politiko nagusiei buruzko saiakerek osatzen dute: *Sabino Aranaren pentsamendu politikoa* (1979), *Nazionalismo/internazionalismo Euskadin* (1979), *PSOE eta euskal abertzaletasuna* (1979). Egileari entzunda, enkarguz egin omen zituen, orduko militante gazteak gai politikoetan janzteko plan zabal baten barruan, hainbat intelektual honetaz eta hartaz idazteko eskatu omen baitzitzaien; gurean sarritan gertatu ohi den moduan, plan hura ezerezean geratu omen zen eta intelektual gehienek

agindutakoa bete ez; baina Azurmendiren ekarpena hor dago oraindik, presaka egindako apunte historikoak izanik ere.

Politika eta literaturarekin zerikusi zuzenik gabeko beste saio pare bat ere idatzi zuen Azurmendik urte horietan: *Gizona abere hutsa da* (1975), nolabait sailkatzekotan antropologiaren eta etologiaren artean kokatuko nukee-na: gizakiaren azterketa animalien jokabidearen argitan; ikuspegi materialista eta guztiz antitranszendente hori elizgizon batengan onartezina izango zela-eta, ezizenez sinatu zuen: Lazkano Mendizabal, bere hirugarren eta laugarren abizenak erabiliz, eta hala ere Setienen haserrea piztu omen zuen. Liburu hark bazuen segida, orduan argitaratu ezinik handik urteetara kaleratu zena: *Gizaberearen bakeak eta gerrak* (1991).

Urte horietan idatzitakoa da, halaber, nahiz eta materiala-ren tamainagatik bere garaian argitaratzailerik topatu ez, *Espainolak eta euskaldunak* (1992), egilearen lanik sonatue-na beharbada, bere pentsaeraren eta idazmoldearen adie-razgarri enblematikotzat hartu litekeena: prosa oparo eta dotorea, iturri askotarikoak, irakurlearen gogoia astintzeko borondatea...

Orain arte aipatu ditudan saiakera horiek guztiak hamar-kada batean idatziak dira, dozena erdi bat urtean funtse-an, nahiz batzuk handik 15 urtera plazaratu; kalitatez zein kopuruz halako produkzioa eman duten egileak apur ba-tzuk izango dira literaturaren historia osoan, eta azalpe-nen bat ematekogan, buru-argitasun izugarria, jakintza guztiz zabala, lanerako diziplina estua aipatu behar, baita garai hartan Azurmendi Alemanian zegoela ere (aurrena



ikasketek hara eramanda eta gero frankismoak jazarria): miresle, lagun eta herrikide kaparrek bakean utzita, lan egiteko lekurik aproposena berarentzat.

Erregimen aldaketarekin Hego Euskal Herrira itzuli zen, eta irakaskuntzan hasi: orduko EUTGn (Deustuko Unibertsitatearen Donostiako kanpusean) aurrena, eta EHUn hurrena. Azurmendiren beste alderdi publiko bat hasten da hor: maisu handiarena, asko baitira haren gelatik pasata oroitzapena gorde eta eragina jaso duten ikasleak, batik bat filosofia euskaraz landu dutenen artean. Gaitz erdi, maisutza horrek galarazi baitio garai bateko maiztasunez idaztea. Berak esana da, klasean eman beharreko guztia idatziz jartzen zuela beti, eta bost bat orduko lana behar zuela ordubeteko eskola prestatzeko.

Eskolak ematen ez ezik, beste hamaika zereginetan ere jardun du halere: Jakin taldeko barne lanetan batetik, eta handik edo hemendik jasotako eskariei erantzuten bestetik: artikulua, hitzaldiak, hitzaurreak... Irakurri edo entzun dituenak badaki Azurmendiren hitzaldiak zenbateraino diren magistralak, eta zenbat aldiz bihurtu diren haren hitzaurreak liburu osoko parterik interesgarriena. Zirkunstantziek agindutako lan hauetako hainbat liburu bihurtu dira eta jendearen eskura daude, hala nola *El hombre cooperativo* (1998), Arizmendiarrietaren pentsamenduaren azterketa, Mondragon taldearen enkarguz gaztelaniaz egina, edo *Oraingo gazte eroak* (1998), azkenean argitaratu ez zen liburu batentzako hitzaurre gisa idatzia, Orixeri buruzko liburuetan jorraturiko gai bat sakonago lantzen duena: euskaltzale zahar eta berrien arteko etena eta belaunaldi-talkak oro har; artikulua eta hitzaldiak bilduz

osatu dira *Demokrata eta biolentoak* (1997) eta *Euskal Herria krisian* (1999) ere, betiko kezka zaharberritu baten inguruan: gure herri honetako egoera politiko petrala. Euskal intelektual batzuen azterlan sistematiko samarrak ere ondu ditu azken urteetan, hala nola Karlos Santamariaz ([www.karlossantamaria.com/azterke/aazur01.htm](http://www.karlossantamaria.com/azterke/aazur01.htm)) edo *Etienne Salaberry. Bere pentsamenduaz* (2003). Garaitsu honetakoa baina oso bestelakoa da *Teknikaren meditazioa* (1999), mendebaldeko zibilizazioaren nondik norakoaz eta *homo faber*-aren izateaz hausnartzen duena.

Azken urteetan, proiektu pertsonalago eta anbizio handiagokoetara itzuli dela esan daiteke, eman beharreko eskola orduak gutxitzearekin batera edo. Aspalditik zuen Humboldt-en pentsamendua lantzeko asmoa, eta ikerketa hori, berez, liburu batean biltzekoa zen arren, azkenean hiru liburukitakoa izan da emaitza, hirurak ere mardulak eta mamitsuak: *Humboldt. Hizkuntza eta pentsamendua* (2007), *Volkgeist-Herri gogoia. Ilustraziotik nazismora* (2007) eta *Espainiaren arimaz* (2006). Filosofiaz, historiaz, mintzairaz, auzo-herriaz gogoeta egiteko maisu-lan hirukoitza.

Orain arteko ibilbidea ixteko, berriz, seguru asko Azurmendiren liburugintza osoko obrarik mamiena, bereziena, pertsonalena: *Azken orduak Gandiagarekin* (2009): adiskidearen heriotzaren aurrean, haren poesiaren analisiarekin hasi, haren haziera eta hezierarekin segi, eta hortik aurrera teologia eta metafisikazko ur handietan murgil egiten duena.

Eta honekin amaitu dut errepaso ez labur baina bai arin hau. Ezinbestean behin-behinekoa, gainera, hemendik aurrera ere lan gehiago eskainiko digula espero baitugu

denok. Nahiz eta Azurmendik lagunei beti esan bera ez dela garai batekoa, asko galdu duela, izugarri kostatzen zaiola kontzentratzea... Baliteke, orain dela 40 urteko gaztearen aldean, makalagoa izatea sasoia, itzalixeagoa kemena, baina argitasunean beti bezain zalu eta zoli sumatzen dut nik.

Alabaina, ohore eta omenaldien aroa iritsi zaio, berak beti eta egin ahala guztian ihes egin badie ere. Hori bai zahardadearen zantzua! Dena dela, espanturik gabe onartzeko opa diot hemendik, apaltasunaren marka izaten baita, ematen bezala, hartzen ere jakitea. Eta Joxerengan beti miretsi dudana da, gauza bakarra duela bere jakituriaren eta intelijentziaren tamainakoa: esku zabala eta bihotz handia.

**Joxerenak atzera begira**  
**(J. Azurmendiren saiakeragintzaz)**

Fito Rdz.

Jorge Luis Borges, batzuentzat poeta, besteentzat entsegugile eruditoa, idazlea eta irakurlea zen oroz gain.

Joxe Azurmendi, filosofo, irakasle edo poeta gisa ezagutu dugu baina, oroz gain, idazlea denez, haren idazkiak aztertzeari ekin nahi diot gaurko honetan eta, bereziki, haren saiakerak, zeren, niretzat, Joxek ekoitzitako testuen artean entseguak izan dira gertuen sentitu ditudanak.

Badu Borgesek *El libro de la arena* (Harearen liburua) ize-nekoaren hasieran narrazio labur bat (*El otro/ Bestea*), non otsailean autoreak berak bere buruarekin (artean gazte) topo egiten duen Genevan. Denboraren jarioarekin ere egiten dute topo biek. Nahiz eta pertsona bera izan, atzera begira, Borges zaharrak gazteari idatzitakoaz hitz egiten dio: “*No sé la cifra de los libros que escribirás, pero sé que son demasiados...*” (Ez dakit zenbat liburu idatziko duzun baina badakit gehiegi izango direla...).

Borgesek ez zituen testu luzeak maite, bere saiakera luzeenak hamasei orri besterik ez ditu (*Historia de la eternidad*, euskaraz *Maiatzen*, 1985), denboraren isuriaz kezkatu-rik baitzegoen beti. Halere, idatzitakoaz pentsatzeko atzera begira egin zuen *El libro de la arena* delako horretan, eta bere “alter ego”arekin (bera, gaztetan) jarri zen hizketan Genevako otsail hotzean.

Horrela egingo dut nik ere, bada, euri arteko Geneva tris-tean, Joxe Azurmendiren saiakeragintzaz aritu ahal izateko, gehiegi luzatu gabe, atzera begira.

Nire eskuetara iritsitako Joxe Azurmendiren lehendabiziko liburua (*Kultura proletarioaz*, Jakin, 1973) kaleratu berri zen garai horretan. Neroni ere euskaldun berria nintzen oso. Madrilen Filosofia eta Letrak ikasten ari nintzen, artean ez baitzegoen Euskal Herrian Unibertsitate Publikorik. Espainiako hiriburuko erbestean bilduriko euskaldunok elkartu ohi ginen Francoren azken urteetako giro politikoari gure berezko irakurketa egin nahian eta, bide batez, giro berri haietarako gure hizkuntza egokitzeko helburuz. Urte politizatu bezain ideologizatu haietan Azurmendiren lanak ekarri zidan euskaraz irakurtzerik ez zegoena, neronek, orduan, irakurri nahi nuen hura, hain justu.

Haren ekarpen intelektuala hobeto ezagutzeko, berriz, atzera jo nuen argitaletxe bertsean (Euskal Elkargoan) kaleraturik izan ziren antzerako beste liburuen bila: *Kolakowski* (1972) eta *Hizkuntza, etnia eta marxismoa* (1971) aurkitu arte. Kolakowskirena Joseba Arregirekin batera idatzita zegoen... gaur nekez uler daitekeen bikotea osatzen zuten Joxek eta Josebak, baina orduko Leszek Kolakowskiren emaria ezagutu zuenak erraz ulertu behar luke garai hartako elkarlana. Izan ere, aurreko urtean zendutako filosofo poloniarrari zerbait badagokio, marxismoaren ezpondetatik totalitarismoaren aurkako kritikara eginiko bilakaera hura da nabarmenena. Huraxe bera izan liteke hala Joxeren nola Josebaren bidea, nahiz eta lehena- rentzat demokrazia totalitarismo bihurtu den sistema politiko salagarria izan, eta bigarrenarentzat, aldiz, mende- baldeko demokrazia izan totalitarismoaren kontra egon daitekeen sistema politiko bakarra.

Baina garai haietako testuek orduko beharrei erantzuna ematen zietenez, panfleto politiko zurrunetatik haragoko

idazkiak gustuz hartzea zaila izaten zen. Horretan ezberdintzen zitzaizkigun, ordea, Azurmendiren proposamenak, eta horregatik piztu zitzaidan beraganako interesa.

Aipatu *Kultura Proletarioaz* horretan, guretzat ia ezezagunak ziren Kalinin, Bogdanow edo Gastev bezalako idazleak erabiliz, “proletkultura”ren beharraz aritu zitzaigun. Bere ustez Errusian sortutako iraultzak izan zuen funtsezko arazoa hauxe litzateke: Marx zenak aurreikusitakoaren aurka, proletariorik gabeko herriak eginiko gizarte aldaketak eskatzen zituen egokitzapenak aitzinarazteko, ezin izan ziola behar bezalako eztabaidari ekin, ez baitzuen mota horretako kulturarik. Eta hau izan da, lelo baten antzera, Azurmendiren izkribuetan behin eta berriro errepikatutako hausnarketa, hots, kulturaren (faltaren) arazoa. Berriro Kolakowskira itzuliz, Joxek fokatu nahi zuen bere begirada Kolakowski poloniarrengan. Ez soilik Kolakowski filosofo edota marxista kritikoarengan. Alde horiek beste askok azpimarratu nahi izan dituzte maiz (Joseba Arregik gurean edo, or ohar, Michel Foucaultek). Azurmendik azaleratu zuen Kolakowski da hil arte bere aberria begitik ezin kendu aritutako idazlea.

Aberria berau hazten den kultura da, eta haren beharra nahi izan du Azurmendik nabarmendu bere saiakeretan. Kolakowskik ingelesez idatzi zuen filosofia, baina polonieraz narrazioak. Azurmendik alemanez edo espainolez filosofiaz idatzi du, baina poesia eta saiakera euskaraz eman dizkigu, eta ez hizkuntza lau, erraz, akademikoa edo didaktikoa erabiliz, baizik eta mintzaira jori eta literarioarekin, askotan gertukoa eta arrunta, beste askotan aldrebesa bezain zaila. Baina sortzailea beti.

*Kultura proletarioaz* adibidez, honakoa idatzi zuen Mikel Ugaldek garai hartan (Zeruko Argia, 1973-04-22):

*“Azkenik, Joxe Azurmendiri nere bekatu bat aitortu behar diot. Gaia zaila, bihurra izanik, zenbait autoreren pasarte euskerturik eskaintzen digularik euskera ere gordiñ a, gogorra izango ote zen bildur nintzen.”*

Beldurra ez, izua ere ba omen diete batzuek Joxe Azurmendiren testuei. Kultur arloan dabilzan jendeen artean kontatzen da euskal argitaldari bat *Espainolak eta euskaldunak* (Elkar, 1992) beste hizkuntzetara eramatea pentsatzen hasi zenean ondorioztatu zela haren laburpe-  
na egitea zela onena, Joxek duen idaztankera laburtzea posiblea balitz bezala! Planteatzea ere, horrelakorik!  
Eskerrak Hondarribiko Hiru argitaletxeak 1994an argitaratutako Edorta Agirreren itzulpenak bere jatorrizko estiloa ez duela galtzen eta, beraz, ez soilik bere funtsezko tesiak (kasu honetan, intelektual espainiarrek euskaldunoi buruz zabaldutako ohiko topikoak: euskararen gutxiespena, kultur euskaldun ez erromanizatuarena, euskaldunon balizko arrazismoa, euskal kulturaren isolamenduarena etab...) argi azaltzen direla, bere izkiriatzeko manera ere ez dela amiltzen gazteleraz ematerakoan. Baina ez dut honetaz guztiaz aritu nahi Joxeren lanak beste hizkuntzetan zabaldu behar direla pentsatzen dudalako, bere idazteko modua bera zein gutxitan hartu den aintzakotzat birplanteatzeko baizik.  
Joxek asko idatzi du, eta asko argitaratu... Bere artikuluek eta liburuek ez diete polemikari ihes egiten, alderantziz,

ezbaiaren iturburu izan ohi dira baina. Halere, ez dira errazkerian jausten eta, jostalariak izan arren, ez dira bate-re irakurterrazak. Irakurri baino gehiago berrirakurri egin behar izaten dira.

Dena den, goian nioen moduan, edukiaz gain idazkera bera dugu saihestu ezinezko Joxeren emaria, beste emarien antzera, isuri egiten den hizkuntz jarioa, entseguen idazle bati dagokiona.

Bere idazkerak, Ugaldek zioen bezala, gordin itxura eduki dezake, *Hitz berdeak* (EFA, 1971) hartatik hasita, baina, olatuen modura, berrituz doan fluxua da bere mintzaira.

*Hitz berdeak* poema liburutik zentsurak debekatu ziguna kaleratu zuen Susak (*Manifestu atzeratua*, 1990) olerkaria zenak eduki duen hizkuntza sena azalduz. Ez dago azaldu beharrik, ordea, Joxe Azurmendik euskal saiakeragintzan duen muntaz jabetzeko atzera begiratu beharra dagoela eta, horrekin bat, bera berrirakurri...

## **Joxe Azurmendi aberri hutsa da**

Oteizaren teorien hedatze aroan (*Quosque tandem...* hirurogeiko hamarkadan zabaltzen hasi baitzen) Joxek *Gizona abere hutsa da* (1975), *Zer dugu Orixeren kontra* (1976), *Zer dugu Orixeren alde* (1977), *Artea eta Gizartea* (1978) eta *Errealismo sozialistaz* (1978) argitaratu zituen (EFAn lehenengo hirurak eta Haranburun beste biak). Euskal zein munduko kulturari buruzko entseguak ziren, baina ez ziren batere etnikoak.

Europako abangoardia guztiak balizko mundu basati galduari begira jarri zirenean, Joxek gure gertuko mundu



galdu berriari begiratu nahi izan zion eta, horretan, bere betiko kezakak (kulturak) aberriaren izena hartu zuen. Frankismoak sustraietatik moztutako euskal kulturaren berreskurapenaren berreskurapenari ekin nahi izan zion orduko modako jite literarioetatik at, oso modu originalean.

*Zer dugu Orixen kontra* liburuaz Jexuxmari Muxikak (Zeruko Argia, 1976-08-08) zera idatzi zuen:

*“Euskal hizkuntza eta letra mailan dabiltzanak etengabe ahotan dituzten galdera ugari plazaratzen eta aztertzen ditu Orixengan eta bere garaian, eta zeharka, bainan, egungo zenbait jokabide ulertzeko argi ere ematen du.*

*Liburuaren mugak ere, gai-zabaltasun hau dela eta, garbiagoak gertatzen dira. Puntu asko ukitu eta utzi bezala. Saio bat da, beraz, saio zabala, osoa izan usteko ere ez duena, noski.”*

Muxikak saiakeraren funtsezko ezaugarrietako bat definitzen laguntzen digu: amaigabetasuna, Joxeren ekarpenetan ohikoa dena. Horregatik, agian, hurrengo saiakerarekin, *Zer dugu Orixeren alde*, hura osatzen ahalegindu zen.

Joxe Lizarralde liburuari buruz argitaratutako iruzkinean (Zeruko Argia, 1977-06-26) argi uzten du goian aipaturiko hirurogeigarren hamarkadako euskal kulturaren haustura hori gainditzen saiatu zela Azurmendi:

*“Gauza nabaria da 1960 inguruan sortu zen eten hura (eta ez dut esanen beharrezkoa ez zenik) nolabait erremediatu beharra dagoela eta ildo hortan lagungarri aparta gertatu da liburu hau.”*

Baina ez hori bakarrik. Saiakera literario bete-betea den neurrian, liburuak proposamen zehatzak helarazten dizkigu. Alde batetik, euskal kulturak duen literaturaren premia azpimarratzen digu. Bestetik, Errepublikako eta frankismo-ko euskal letren ezaguera hobetu beharraz mintzatzen da. Azkenik, orduko hitz-lauan nabari zen joskeraren buru-haustearen berri ematen zuen.

Esan bezala, hizkuntza eta euskal kulturaren kezka, literatura ikerketa baten bidez ederki argituak.

Hura bera, filosofia arloan baina, landu nahi izan zuen bai *Mirande eta kristautasuna* liburuan (GAK, 1978) baita hamaika urte beranduago Susa argitaletxean garaturiko lanetan ere (*Miranderen pentsamendua* eta *Shopenhauer, Nietzsche, Spengler, Miranderen pentsamenduan*). Nork eta Mikel Antzak eginiko kritikan (Susa, 1986-04) literaturak duen saiakeraren premiaz jarduteaz gain, Azurmendiren laudorioa egiten du, nahiz eta “*lanak duen errurik nagusia: gaiaren antolaketa*” dela esan. Bistan da kasu egin zitzaiola, eta Susak berak atondu eta kaleratu zituen Joxek gai horri buruz idatzitakoak. Zinez eskertzekoa da, Azurmendiren estiloaren berezko ezaugarrietariko bat digresioa izan arren (Kohan, S./ Lucas, A., *Taller de escritura-Diseño*, 1991). Izan ere, ezin zaio eskatu saiakera literarioari ez didaktismoaren aldeko errazkeririk ez ikerketa akademikoari dagokion zurruntasunik ere, zeren entsegu egilearen idaztankerak baldintzatu behar baitu adierazteko modua. Georges-Louis Leclerc Buffonek (1707-1788) honela laburtu zuen afera: “*Estiloa gizakia bera da*”. Joxeren estiloa, bere idaztankera, jakina, joria bezain naroa da. Hordago-Lur argitaletxearekin kaleratu zituen saiakera

politikoagoak (garaian garaikoa, bestalde): *Arana Goirenen pentsamendu politikoa* (1979), *Nazionalismo Internazionalismo Euskadin* (1979), *PSOE eta euskal abertzaletasuna* (1979).

Joxeren kezkek kulturalak izan dira, noski, baina haietaz hausnartzeko bidea hizkuntza izan da, euskara zentzu hertsian. Ez edozein euskara, ordea, euskara literarioa eta, esan daiteke, batua “avant la lettre”. Erreferentziak, aldiz, mundutarrak: klasikoak, germanikoak edo euskaldunak, estilo guztiz pertsonalean garatuak, elkarrizketa baten antzera: argudioak eta anekdotak, ekarpen filologiko eta filosofikoak, txirikordatzen doaz artea dirudien korapiloe-tan. Korapilook ez dira guztiz ulergarriak beti, baina iradokitzaileak dira gehienetan.

Kezka kultural, linguistiko, literario haietatik aberriaren aldarrikapena datorkio eta, ezinbestean, politikaz aritu beharra. Aipatu garaiko Espainiar konstituzioaren lehenengo urratsak, Euskadi nahiz Nafarroako estatutuen inguruko polemikak eta abarrek ekarriko dute Lur-Hordagoko goian aipatu liburu sorta, Azurmendiren ekarpenean, ene ustez, goragarrienak ez badira ere.

## **Euskaldunon gerra eroak**

Politikak, bake aroan gerra egiteko moduak, etsaia definitu behar izaten du eta, beraz, kronologia nahiz pentsamenduaren bilakaera lagun, aurreko mendeko azken hamarkadako idazkiak datoz: *Gizaberearen bakeak eta gerrak* (1991) eta *Spainolak eta euskaldunak* (1992) Elkarren, *Oraingo gazte eroak* (1998) Enboliken eta *Teknikaren meditazioa* (1998) Kutxa Fundazioan.

Azkena izan ezik, Gipuzkoako Kutzaren Saiakera Sarian irabazle, gainerakoak polemiko bezain aldarrikatzaile bihurtu dira. Asko ditugu aurka asaldatu diren idazleak. Lehenak Jon Juaristi, Aurelio Arteta eta enparauak. Oihartzun handiko liburuak izan dira. Liburuak diot, zeren gehienak aurretik idatzitako artikulu ezberdinak bildu ostean bilakatu ziren liburu. Denek ospea lortu dute eta eztabaida iturri gisa egin dira ezagun.

*Gizaberearen bakeak eta gerrak* dela eta idatzi zuen Itxaro Bordak (Argia, 1992-06-21) eta, nola ez, “giza” hitza baino “jendea”ren aldeko apustua egin zuen. Baina liburuan, hitzez aparte, kontzeptuak ere badaudenez, liburu hau bere horretan liburu bilduma ere badela esatea zilegi bekit, itxaropenerako liburuaren liburua non, berriz ere eta marxismoak zioenaren aurka, kultura ez zaigun aurkezten gaignitura ideologiko modura gizartearen (jendartearen) oinarri bezala baizik.

*Espainolak eta euskaldunak*, aldiz, euskal kulturatik kanpoko Azurmendiren liburu ezagunena izango da ziur aski. Bere garaian gazteleratu izanak edukiko du, noski, horren ospetsua izatean bere parte, baina ezin uka euskaldunon artean ere eztabaidarako bidea eman duenik. Horra hor, esaterako, Felipe Juaristik hortaz orduan idatzitakoa (Diario Vasco, 1993-12-19):

*“Doinua, oro har, biktimista, aspaldian ikusten ari garena bezala. Azterketak serio izan nahi du, bestalde. Ateratzen dituen ondorioak ere bai. Baina iruditzen zait aurreiritzi gehiegirekin eginak direla... balorazioak eta juzguak jaurtitzen baitizkigu, sarri askotan... esaterako: Euskal estatuaz ari denean,*

*eta herri kontzientzia biltzeko oinarria euskarak izan behar duela dioenean. Testualki: guk beti esaten eta berresaten dugu, euskal arazoa herri arazoa dela, nazio arazoa dela.”*

Horixe bera baita Azurmendiren gogamenak eztabaidarako eskaini digun ardatza eta, horretarako eman digu, hain zuzen, saiakera sail pila. Beraz, Juaristik egin duenak, eztabaidari aurre egin gabe deskalifikatzen (biktimista eta abar deituz...) aritzeak, ez du laguntzen haren eskaintza ulertzen eta, are gutxiago, baloratzen. Pentsatzea juzgatzea delako, alde batetik, eta baloratzea, bestetik. Kantek hala zioen behinik behin...

Illo horretan eraiki du, bada, Joxe Azurmendik bere idazkien emaria. Berauek dastatzen ez jakitea, euskal literaturara maite duen edonorentzat behintzat, pena litzateke.

## **Herria gogoan**

Mende berriarekin batera Azurmendik ekarritako uzta dateke, ene aburuz, emankorrena, darabilen estiloan zein aurretik plazaratutako polemiken atzean egon daitezkeen oinarrietan sakontzeko moduetan. *Euskal Herria Krisian* (Elkar, 1999), *Etienne Salaberry* (Egan, 2003), *Espainiaren arimaz* (Elkar, 2006), *Volksgeist-Herri gogoa* (Elkar, 2007), *Humboldt: hizkuntza eta pentsamendua* (UEU).

Azken liburu honek, adibidez, ez du ohiko prentsan iruzkin berezirik merezi izan. Halere, aurreko bien abiapuntua izan da, eta Joxeren obra osoaren oinarria dela ausartuko nintzateke esaten.

*Volksgeist-Herri Gogoa*-n Ilustrazioak “Herria” nola ulertu

zuen ikertuz nazismorako bideak nola ireki ziren azaltzen zaigu (Frankfurtoko Eskolako filosofoen itzala ez da baiez-tapen honetatik urruti...). *Espainiaren arimaz* liburuan euskal abertzaletasunari buruzko espainiar ohiko topikoak aztertzen ditu: euskal nazionalismoa ildo alemaniarrean fundatzen omen dela, erromantikoa bezain gauditua dela e.a., eta frantziar ikuspegiak ezarritako gizarte antolamendua dugula egun mendebalde garatu osoan onartuena. Euskal abertzaletasunak, ustez, deitoratzen duena.

Azurmendik egiten duen Humboldtten irakurketan, berriz, planteamendu erromantiko hori honela izango litzateke: hizkuntzak nazioa egiten du, berak ematen baitu mundua ulertzeko gogamena, pentsaera bat, gizabanakoaz harago doana. Beraz, nazioan nahiz mintzamenean gogo bat bada: Herri gogo (Volksgeist) eta hura da nazioaren funtsa. Baldin eta Volksgeist edo Herri Gogoaren kontzeptua germaniarren artean bezain beste frantziar ilustrazioan badago, Renanengandik aurrera batik bat, XIX. mendeko eta XX.eko pentsamenduan ere aurkitzen dela begi bistakoa da, baita nazismoan edota espainiar pentsamendu politikoan ere (ikus Ortega y Gasset...). Baina hiru liburu-kietan Azurmendik kontzeptuon ibilbidea aztertu arren, goian aipatu *Humboldt: hizkuntza eta pentsamendua* dugu zeregin horretarako oinarritzko tresna. Izan ere, mintzamenaren eta gogamenaren arteko erlazioen arazoa du abiapuntu, herri bat, nazioa, gauza guztien gainetik, kultura dela adierazteko.

Beraz, *Humboldt: hizkuntza eta pentsamendua* lan zehatz eta sistematikoa da, ironiaz arazo honetaz argitaratutako azkena (Gandiagarena utz dezagun oraingoz...), nahiz eta ia bere idazlan guztien hastapenean egon.

Dena den, Azurmendiren liburuak, askotan, aurretik idatzitako gai monografiko ezberdinen bilduma izaten dira, artikululu solteak beren jatorrian (*Oraingo gazte eroak* edo *Euskal Herria Krisian* kasu). Horregatik, berarengana hurbiltzerakoan, ez ditugu ahaztu behar aldizkarietan argitaratutakoak. *Brankan*, *Jakin*, *Egan* eta abarretan kaleratutakoak. Haien artean, halere, badago bat bereziki gustukoa dudana eta goian aipatu liburuarekin bat egiten duena: “*Goethe: literatura nazional unibertsala*” (Jakin 111, 1999ko martxoa-apirila, 63-99 orr.). Honela dio, adibidez:

“*Goethe literatura unibertsalaren kontzeptuaren sortzailea da (Weltliteratur)... poeta aleman handienak abiapuntu guztiz frantsesiarra izan du eta idazlea frantses bat bilakatzea izan da haren gaxtetako ametsa... baina Goethek berak definitu zuen iraultza literario alemana iraultza Frantses politikoa baina dextentexo lehenago... Herderrekin ikasia du ez dagoela modelo bakar unibertsalik; herri bakoitzak bere hizkuntza eta bere aiurria duela, bere moldera egiten duela bizitzaren esperientzia, bere erro bizi horietatik sortzen duela bere artea... poesia da herrien esperientzia bizia espresatzeko estreineko balibabidea... Goethek espresioaren naturaltasuna bilatzen du... bere gogara asmatua, filologien axolarik gabe, bere anakronismoa eta guzti... hizkuntzaren eta nazio baten aiurriaren loturaz gogoetetzen hasi... hizkuntzak eta nazioak bizitzan bat egin baitute... nazioren bizitzan espresioa da hizkuntza... proiektu goetharra proiektu nazionala da... baina literatura nazionala eta unibertsala ez dira, beraz, oposatzekoak. Egon ere ez dago beste literatura unibertsalik literatura nazionalek dagitena baino... espresioa beti singularra eta berezia da... ”*

Artikulu luzea da, lerro batzuetara ekarria. Halaber, obra osoaren berri ematen digun entsegu apala dugu hau, eduki nahiz formetan saiakeragile bati dagozkion ezaugarri guztiak biltzen dituen.

*Frantsesiarra, dextentxo, espresatzeko estreineko balibabidea, bere gogara asmatua, filologien axolarik gabe, espresioa beti singularra eta berezia, proiektu nazionala...* Azalean nahiz mamian, kasu honetan Goethe aitzakia hartuta, Joxe bere burua eta bere lana deskribatzen ari dela dirudi, bere idazteko manera... baina, era berean, *Weltliteratur*, *Herderrekin ikasia*, *Egon ere ez dago beste literatura unibertsalik literatura nazionalek dagitena baino...* modismoek eta aipamen kultuen erabilerak entseguetara ekitea deliberatu duen idazlearen berri ematen digute.

### **Espresio singularra eta berezia**

Eta hala da Joxeren estiloa. Berak “Klasikoak” Sailerako atontzen lagundu zuen D. Hume filosofoak idatzi zuen bezala: “*Era bertsuan xalotasuna eta dotorezia biltzen dituen idaztanka*” (Hume, D., *Sobre el estilo*, UNAM. 2007, 32-41.orr.)

Joxek, gai baten inguruan peskizan dabilela, ez du erreferentzia akademikorik erabiltzen, ikerketa unibertsitarioan erabiltzen diren moduan behintzat. Baina, halaber, ez du hedakuntzarako testurik sortu nahi. Bere idazkera genero artekoa dugu, ez baita lan pedagogikoa (askotan korapilatsua eta aldrebestua, Mikel Antzari iruditu zitzaion moduan) ezta kazetaritza lana ere. Areago, Joxeren estiloa euskal letretan horren modan dagoen prentsarako izkri-



buen kontrakoa dela esango nuke. Kazetariaren testu komunikatibo, ulerterrazak, sintetikoak eta abar askotan topikoak helarazten dituzten azalkeria laburrak besterik ez dira, hala pentsamoldeak nola hizkuntza bera ere pobretzen lagundu besterik egiten ez dutenak. Joxeren ekarpen literarioa horren kontrakoa izan da, erabat.

Azurmendik, edozein aztergai hartzen duelarik, ez du horri buruz tratatu edo esku-libururik idatzi nahi, ez du ezer frogatu nahi, gaiak ematen duena probatu (dastatu) baizik. Garai batean “haztatu” esaten zena (saiatzea) da bere helburua. Joxek ez baitu, bere xalotasunean, ezer irakatsi nahi, ikertu baizik, baina, hori ibai, Proustek edo Borgesek egingo luketen modura, idazkuntza dela medio. Joxe antidogmatikoa da, Goetheren edo Herderen antzera, arrazionalismoari eta, bide batez, Ilustrazioari nahiz jakobinismoari, egin ohi dio kritika. Ildo horretan bere lanak ez dira erudituentzat idatziak.

Michel Monteignen ondoren saiakera XVIII. mendeko literatura aldizkarietan gorpuztu eta zabaldu bazen, XX. mendeko euskal aldizkarietan Joxe Azurmendiren lanak bere garaian Joxe Lizarralderi (Zeruko Argia 1977-06-26) kezka sortzen zion euskal prosaren egoera duintzen lagundu du, duda izpirik gabe.

Eta formaz harago, saiakeran hain erabilia den norbera bere buruarekin aritzearen bidetik, ohiko ikuspegiak eta gizarte balioak kolokan jartzeko testu ausartak utzi dizkigu, baita fundatuak ere. Eztabaidarako sortutako lanak dira, nahiz eta batzuk, Felipe Juaristik erakutsi zigun bezala (Diario Vasco, 1993-12-19), polemikari heldu nahi ez izan.

Joxeren joera edozein kezka gaitzat hartzea eta bere eskarmentutik garatzen hastea da: gogoeta egitea, ohikoa ez denari erreparatzea, begiratzea, kasu egitea...hortaz izkiriartzea. Arruntak diren egoeretatik irten eta egunero-kotasunak sortu ezin dituen polemikei ekiten die. Nihilismotik at baina erlatibismoan beti.

Saiogile guztien erara, kritiko bezain sortzailea dugu, iritziak eskaintzen dituena, baina osatzeke dauden iritziak betiere... irakurlearen zain.

Haren izkribuak ez dira, noski, bat-batekoak, baina berez-kotasunaren jarioa dagokie. Soila bezain sotila dugu. Hark utzitako entseguak, hausnarketa bideak, ikerketak, idazkuntzak, antzerkia edo poesiaren antzera, irakurle gabe ezin esan burututa daudenik. Horregatik, egin diezaiokegun omenaldi onena berauek irakurtzea litzateke. Inor ez baitu konbentzitu nahi, idazkera dela bide elkarrizketa sus-tatu baizik. Pentsatzeko, euskaraz... literatura eginez.

Genevan 2010-02-24



## **Azurmendi, B. Gandiagaren editore**

### **“iradokitzalea”**

Paulo Agirrebaltzategi

Hemeretzi/hogei urteko mutil gaztea zen Joxe Azurmendi, Bitoriano Gandiagaren urtetako poema-sorta eskuetan ipini ziotenean eta horren edizioa prestatzeko eskatu (1960). Gandiagak 32 urte zituen orduan; Arantzazuko seminarioan emanak azken bostak, irakasle. Argitaraturik ere bazuen ordurako 30 poematik gora ikastetxeko barne-aldizkarietan nahiz zabalduagoetan (*Egan, Euzko-Gogoa, Arantzazu*); eta zenbait olerki-sari irabazia ere bazen: Donostia (1951), Zarautz (1954), Arantzazu (1956), Euskaltzaindia (1959).

Bi anekdota ekarriz hasiko gara, Joxe Azurmendik berak idatzita utziak eta behin baino gehiagotan lagunartera atereak:

1980. urtea. Bada bertso-sorten bilduma bat, “Liburuko Gandiaga” [sic] deritzana argitaratu gabea, Bitorianok Arantzazuko seminarioko irakasle-kideen urtebetetze-egunetarako eta bere adiskideen bestelako ospakizunetarako landuriko bertsoak jasotzen dituen. Dionisio Arruti adiskideak paratua zuen horien bilduma, ez argitaratu eta salgai jartzeko, baina bai lagunen artean zabaltzeko, autorearen beraren erreparoa gainditu ondoren. Dionisio “editoreak” Joxe Azurmendiri eskatu zion bere kasa bildumarentzako hitzaurrea. Ez titulu eta ez azpi-titulu, sarrera informala idatzi zuen Joxek, bertso-sorten bildumari edo horren lagunarteko edizioari zegokion modukoa, baina oso iradokior eta atsegina. Bildumaren aurkezpena egite-

ko afaria antolatu zuten Arantzazuko seminarioan, bertako irakasleen eta Gandiagaren kanpoko hainbat lagunen artekoa. Apal-apal eta ia lotsaturik agertu bazen Bitoriano afaritara, apalago entzun behar izan zuen Joxeren sarrera-ko honako esaldi adierazgarrien hau: “Hitzaurreak, jeneralean, autorearen izenean irakurleentzat egin ohi dira; oraingoan, halere, alderantziz aterako dugu sakea: egilearentzat irakurleen izenean. Berak egin baitu lana, baina, beti bezala, orain ere bera dugu zer egin duen enteratzen azkena” (*Liburuko Gandiaga-I*, 1982, III. or.).

Bigarren anekdota Gandiaga hil zorian zegoeneko elkarriketa da, Joxek bere azken liburuan idatzita utzi duena (*Azken egunak Gandiagarekin*, 45. or.). Bisita laburra egite aldera joana zitzaion komentuko gela apalera; luzatu egin zen, ordea, elkarriketa hiru orduz, Gandiagak berak eskatuta: bizitzaz eta poesiaz, Arantzazuko lurraldeaz eta arteaz, eta poetaren Arantzazuko motibo literario nagusiez mintzatu ziren: elorria, apostoluak, Andre Maria... “*Harrizkoa zara*, [Andre Mariaren irudia], zuk irakatsi diguzu horrela ikusten eta esaten, nahi izan nion eskertu nire bisitakoan”, Joxek. “Zer nahi duzu... Nik ikusten nuen, ez nuen ezer ulertzen, eta ikusten nuena esan behar nuen”, erantzun zion Gandiagak.

Bere *Elorri* liburuaren jaiotzari buruz ari zela, honako hau idatzi zuen *Hegats* aldizkarian Gandiagak –bestetan ere gogoz aitortua duena–: “1958-1960a urteak dira, eta hemen, beste izen bat aipatu behar dut, Joxe Azurmendirena. Honen eskuetan utzi nituen *Elorri* izenpean idatzirik nituenak, eta honek bakandu, sailkatu eta sortatu zizkidan *Elorri*-n ageri diren eran” (“Izendatu dida-

zuen gaia”, in: *Hegats* 4, 1991, 209. or.). Edizioaren estrategia konplexuagoa izan zen, Gandiaga bera ez baitzen ausartzen bere poemak argitara ematera, eta haren lagun J. A. Astigarragak eta nagusiak aurreratu zitzaizkion, Azurmendiri laguntza eskatu eta liburua argitararazteko. 250 orrialdeko poema-sorta idatzia –1950-1959 urteetako lana– eta txukun daktilografiatua zeukan Gandiagak, *Elorriko Lorak* izenekoa; liburu bihurtu eta argitaratzeko urratsa egiteko beldurrez, ordea. Horrela ekin zion, beraz, Joxek enkargua betetzeari, Gandiagaren gela xumean hainbat bilera eta elkarrizketa tarteko. *Elorriko Lorak* karpeta-ko poemetan Azurmendiren ohar eta iradokizunik ikusi ahal dugu. Garbiketa handia egin zuten bien artean, karpeta-ko erdiak edo bakarrik sartu baitzituzten liburuan, eta beste hainbeste sortu edo inguratu zituen Gandiagak, liburua osatzeko. Hitzaurrea –atarikoa– L. Villasanteri eskatu zion Gandiagak. Liburuaren atal bakoitzari bere iruzkintxo poetiko bana idatzi zien Joxek, bizkaieraz.

“Oso gizon koldarra eta izua zen, bere buruan bat ere konfiantzarik ez zuena”: horrela ezagutu zuen Joxek Bitoriano. Autoreari beraren buruagan konfiantza harraztea izan zuen, hain zuen, bere egiteko behinena, liburuari forma ematearekin batera.

1962an argitaratu zuten *Elorri*. Azurmendiren eta Gandiagaren arteko lehen harreman pertsonal eta literario hura 40 urtez luzatu zen, Joxek berak dioenez: “Bien arteko lotura berrogei urtekoa izan da” (Gara, 2001 otsaila, 22, 60. or.). Urrunagokoa, Joxe atzerrian bizi izan zen bitartean; oso hurbilekoa ondorengo hogeitau urteetan. Izan ere, 1965ean Erromara eta hurrengo urtean Alemaniara

aldatu zen Azurmendi. Hamabost urte emango zituen Euskal Herritik kanpo.

Poesia askotxo idatzia zuen Joxek berak, 1960an Gandiaga eta biak *Elorri*-ren edizioan jardun zirenerako: gaztelaniaz saririk ere bazuen irabazia eta euskaraz, argitaratzeko; ordutik zuen ezaguna Gandiagak horren olerki-koaderno-etako bat. Hamar urte geroago, haiek eta beste argitaratzeko ardura hartu zuen berak artean argitaratu gabe egonaren errudun sentitzen zelako agian, lehenago Paulo Iztuetak abiatu-rikiko proiektuari helduz. Joxe Azurmendi adiskidearen *Hitz berdeak* olerki-liburua kaleratu zuen, beraz (1971), bere eskuz idatzitako aurkezpen eta guzti hitzaurre kritiko-literarioa idaztea Joan San Martinen esku utzi zuen.

Joxeren liburu argitaratu berriaren kariaz, elkarrizketa egin zioten Gandiagari *Arantzazu* aldizkarian. Eta haren poeta-mailaz galdetuta, honetara erantzun zuen (*Arantzazu*, 490. zenb., 1971, 345-347 or.):

“Gutxi bezelakoa. Sekulako etorri ugaria eta dizdiratsu bat duena; sentimendu eta irudi handiak etengabeko turruskan darizkiona. Joxeren hiru poesi koaderno eta haiez kanpo idatzi dituen poemarik gehien gehienak ezagutzen ditut. Ez diot poesi erdisperdikorik arkitu. Baina poema guztiak ez ditu tamaina bereko: Zein baino zein altuagoak ditu, zein baino zein sakonagoak, zabalagoak, ederragoak. Joxek bere poema horien bidez agertu digu bere poeta dohai oparoa. Egia esan, saiakera eta beste artikulu mota guztien idazleagoa agertu zaigu bere idazlanetan, poeta bezala baino. Halare, zalantzarik gabe aitortuko dut azken

urteotan euskal poesiak lortu dituen gorengo mailetan urrezko apal bat merezi dutela Joxeren poemak.”

Euskal poesia sozialean, berriz, aintzindari eta eredutzat zeukan Bitorianok Joxe. Hona elkarrizketa berean jaulkita-koa:

“Euskal poesia berrian, Aresti ageri zaigu aurrelari bezela, eta izan ere, bera izan da, ezpairik gabe, poesia berriari egiazko bultzada eman diona. Halere nik, Arestiri ezer kendu gabe, eta ni neuk dakidanez, elkarrengandik urruti etziralara ibili, esan behar dut. Gaurko poesia berriaren atari berean zabaldu bai ziran Joxeren lehenengo koadernoaren kopiak euskaldun poeten artean. Gainera denok dakigu garai hartan Joxek eta Arestik izan zituzten hartu-emanen berri. Bestalde, lehen ere erantzun dizut Azurmendi ez dabilela inoren atzetik. Haren aurreneko poesi koadernoak hogeita bat urte bete zituen aurretik idatzitakoa da, 62 aurretik. Poema beltzaren arbola askoz lehenagokoa du. Lehenengo 58 inguruan hasitako ta landutako poesia bide du, baina urteak aritu omen zan hura lantzen. Lehenengo koadernoko poesiak 59/60 urteetan sortu ziran apika, baina haren bigarren koadernoko zenbait atal ere Arestiren “Harri ta Herri” baino lehenagokoak baitira. Ongi oroitzen naiz, nire ELORRI elkarrekin prestatzen ari ginanerako bukatuta zegoela Joxeren lehengo [sic, lehenengo?] koadernoak, ta poesia gehiago ere ageri ziran haren paper piloetan.”



Utz dezagun, baina, Gandiagak Azurmendiren poesiaz pentsatzen zuena, eta itzul gaitzezen Joxek Bitorianorengan izandako eraginari buruz mintzatzera.

Hamabost urtetan kanpotik ibili zen, beraz, Azurmendi, horietako hainbatetan Hego Euskal Herrira jaitsi ezinik gainera. Tartean Gandiagak beste bi obra argitaratu zituen: *Hiru gizon bakarka* (1974) eta *Uda batez Madrilen* (1977). Horien edizioan ez zuen nonbait zuzeneko partaidetzarik izan Joxek –Pello Zabaletak batean eta Joxe Antonio Adurizek bestean hartu zuten nolabait hark *Elorri*-n betetako editore eginkizuna–. Baina Gandiaga Madrilgo kaleetan bere sentsazioak hartzen eta papereratzen ari zela gero liburura eramango zituenak, Joxerekin gogoratu zen eta gutun moduko bat idatzi hari, konfesio gisa, bere idazte-ahalegineko neke eta penen berri emanaz: “Joxe Azurmendiri: Lehenengotan galduta nenbilen ni. Ezin nuen harrapatu ezer. Ikusten nizkian kaleak, kotxeak, abiadura. Hori da diodan txundidura edo delako ez dakit ba zer...” liburuaren 47. orrialdean dator gutun osoa.

Bizirik jarraitu zuen bien arteko harremanak, elkarrekin egoteko aukerak bilatuz. 1973an izan zen Donibane-Lohitzunen UEUren lehen ekitaldia. Azurmendi bertan jardun zen, hizlari, Filosofiaren sailean; Gandiagak entzule moduan hartu zuen parte egun guztietan, irakasle “hitzpiraten” hitzaldiak miresmenez entzuten; jardunaldien kronika idatzita utzi zuen gero *Arantzazu* aldizkarian. Ondo baliatu zituen Bitorianok egun hauek Joxerekin hitz-aspertu aspergabeak edukitzeko lagunartean eta bakarka, Donibane Lohitzuneko itsasertzeko ilunabar eta gau ederretan... Hurrengo urtean *Hiru gizon bakarka* argitaratu zuen.

1980an Donostian bizi zen Joxe Azurmendi. Dionisio Arrutiren deia hartu zuen Arantzazuko seminariotik. Gandiagaren bertso-sorten bildumari hitzaurrea egingo al zion, eskabidea. Baiezkoa erantzun zuen –huraxe berarentzako lehen aukera Gandiagari hitzaurrea eskaintzeko!–. Gorago emana dugu *Liburuko Gandiaga-I* bildumaren aurkezpen-afariaren berri. Bertso-bildumako literatura “zirkunstantziala” beste hizkuntzetako gorte- eta areto-literatura barrokoarekin alderatzen du Joxek –Bitorianok berak apalago “etxe-literatura” deitua zuen aurkezpenean–. Joxeri eskainitako bertso-sortarik ere bada bilduman, non urte hartako Aste santuan Espainian zehar egindako haren ibilerak kontatzen baititu, bertsolariaren zirto eta guzti: “Batzuk jesta egile [Joxe] / bestetzuk kronista [Gandiaga]” (ik. 39. or.).

Bilduma jendartearen zabaltzeko autorearen edonolako kezken berri jakinik, hitzaurre berean idatzi zuen Joxek: “Ezagutzen ditugu Gandiagaren larriok aspaldi samartik, ez da ezer berririk. Izan ere, Gandiaga, tontoa ez da, baina sekula ez da enteratzen bere obraren balioaz, bestek esan eta gero arte. Bestekin fidatzen da, bere buruarekin ez”. Eta honako hau gaineratu zuen: Kantuok “ez dira Gandiagarenak izate hutsagatik bildu, Gandiagarenak eta Gandiagaren tamainakoak direlako baizik”.

Bitorianoren ondorengo liburua *Denbora galdu alde* izan zen (1985), bere krisialdi fisiko-psikikoan erorita zegoelarik idatzitako gogoeta eta poemaz osatua. Larrialdian idatzita, larrialdi handiagoan ipini zuten Bitoriano, hori argitaratzea bultzatu zutenean. Berriro ere Joxerengan bilatu zuen babesa eta bermea. Donostiara egun batzuetarako

joan, eta adiskidearekin batera irakurriko zuen testu osoa, hark iradokitzen zizkion zuzenketa eta aldaketak adi-adi entzun, luzaroan hausnartu, egokitasuna probatu, eta gehienetan onartu egingo zituen arte.

Liburuaren inprimategirako karpetakoko lehen orrialdean Joxeren oharra ikus dezakegu bere esku eta kaligrafiaz idatzita, testuaren azpian jarritako datari buruz: “Kentzea hobe izango da”. Ondorioz atal guztien azpiko horrelako data-erreferentzia denak ezabatu egin zituzten liburu argitaratuan, seguruenik Gandiagaren gogoetei eta poemei kutsu anekdotikoa kentzearren. Bertso-sortetako bertso-  
ren batzuk ere baztertu egin zituzten, Joxeren iradokizunez, edota horien ordena aldatu (“Tristuraren menpetik” sortan, adibidez). Liburuak, ordea, ez zuen inoren sarrera eta iruzkinen beharrik, ezta Joxerenik ere. Hain zen Gandiagaren barru-barrukoa!

*Hiru gizon bakarka* liburuaren bigarren edizioa argitaratzea proposatu zioten Gandiagari (1991). Lehenengoan kanpoan geraturiko –geratu “beharreko”– olerki-sorta bat gaineratu nahi du autoreak; horiek aukeratu eta J. A. Adurizi eman dizkio euskara batuan jartzeko 30 olerki, aspalditxo idatziak. Horietako bat “Euskal Herria ona da” hasten dena. Lehen eskuizkribuan olerkiaren buruan idatzia zuen Bitorianok Joxeren epigrama hau: “Nekazari:/ nire hitza/zure aitzur kolpea da”. Eskuizkribukoa aski aldatuta, lehen kopia daktilografiatua egin zuen (autoreak), epigramarik gabe; horren gain aldaketa berriak sartu zituen autoreak berak; eta beste bi kopia daktilografiatu egin (zituzten); horietako batean testu-aldaketa estilistikoren batzuk ageri dira, itxuraz Azurmendik bere eskuz idatziak; Adurizek

zuzenduriko sortan zegoen olerki hori ere, baina azkenean argitaratu gabe geratu zen, bigarren edizioan olerki berririk ez sartzea erabaki zutelako Azurmendiren iradokizunez? Lehengo hitzaurrea utzita, epilogo luzea gaineratu zuten edizio berrian, Joxek idatzia. Adierazgarriak dira Gandiagaren eskuzko eskaintza-testuak, Azurmendiri eta Adurizi oparitutako ale banatan:

*Joxe Azurmendi adiskide: Hartu zenidan materiala, garbitu zenidan, taiutu zenidan eta era onargarritan itzuli zenidan aspaldi hartan. Oraingoan ere badu zure ikutu berririk. Berriro eskertzen dizut Elorriren konposaketa.*

*Jose Antonio Aduriz: Beti aurkitu zaitut laguntzeko prest eta makina bat orduz baita lagundu ere. Aitorpen hau zor dizut, baita esker onik ere. Zure lanaren ale polit hau eskaintzen dizut, pozgarri dakizun.*

Gorago esan dugunez, orduan eta gerora maite zuen Gandiagak Donostiako Jakin anaiartearen Groseko etxean egunen batzuk ematea, bereziki libururen bat argitaratzeko prestatzen ari zenean, Azurmendi eta Adurizen iradokizunak eztabaidatu, aztertu eta egosteko eta bertako beste lagunen iritzia ere jasotzeko: *Gabon dut anuntzio* eta *Gorazarre liturgikoak* Jakin-en afaritan abestuta edo irakurritu daude, argitaratu aurretik. Goizeko ordu luzeak ematen zituzten Azurmendik eta Gandiagak argitaratzeko poemak irakurtzen eta aztertzen, Jakin taldeko beste lagunak kanpoan lanean ziren bitartean –bazkaria oso berandu izaten zuten garai hartan. Bitorianok ahots goran irakurri, Joxek ixilik entzun... Berriro irakurri; eta berriro;

ohartxoren bat hemen, zuzenketaxoren bat hor; “hitz hau egokiagoa hemen, lerro hau kentzea hobeto”. Aldaketa txikiak onartu egiten zituen Gandiagak gehiengatant, ez, ordea, aurretik hausnarketa lasaia egin gabe. Baina bazekien tinko defenditzen ere bere obraren ildo nagusia. Joxek kontatuta dakigu: “*Elorri* argitaratzekoan bazeuzkan [Gandiagak] eduki erromantze tankerako kanta batzuk Arantzazukoak, neuri asko gustatuak eta libururako aurreikusiak zeudenak, baina berak bota egin zituen azkeneko momentuan, ez zituen nahi liburuan” (a.l., 43. or.). Autoreak *Elorri*-n nahi zuen estiloaz bestelakoak ziren nonbait.

Goiz luzeak haiek... Joxe, aszeta samarra jan-kontuetan, ohartzen ez goseak abailduta zeukala ondoan Bitoriano gizajoa, txorizo-muturren bat edo gazta-zatiren bat ere eskatzeko beldurrez edo, lanean murgilduta. Azkenean hamarretakotzat zer eskainiko Joxek, eta baso bat te... Jakin anaiartearen etxean jasandako goseen kontura bertso umoretsu zorrotzak jarriak ditu Gandiagak, Azurmendiren doktore-tesiaren aurkezpenera Donostiara joan eta bazkaririk gabe geratu behar izan zuenekoak: “Donostia partera” (*Liburuko Gandiaga-3*, 40-41 or.). Geroxeago Joxe beraren urtebetetzekoan bazkari ederra eskaini ziotenean, barkaberago agertu zen Bitoriano Jakinekoekin!

Esker oneko agertzeaz gain, miretsi egiten zuen Bitorianok Joxe. Euskal literaturari buruzko bere hitzaldi eta elkarrizketetan behin baino gehiagotan erabili zuen laudoriozko hitzik adiskidearentzat. Arantzazuko “poesi eskolaz” galdera-sorta ipini ziotenean, honetara definitu

zuen adiskidea: “Poeta handia. Lagun ona. Poesiak galdu edo galzorian duen batez ere poeta den gizona”. Eta behe-  
raxeago, *Elorri* liburuaren sorreraz ari dela: “Ni neuk, Joxantonio Astigarraga, Antonio Bilbao eta Joxe Azurmendirekin izan nuen neure zerikusia ta zerikasía”.  
Egungo euskal poesiari buruz egindako galdera potoloa-  
ren aurrean nahiago zuen Gandiagak, Azurmendi eta horrelakoen itzalpean gerizatu bere burua: “Zer mailatan dago gaurko euskal poesia? Inoren ahoz erantzutekotan, Joxe Azurmendik aurtengo udaran esan zidana ez da eritzi txarra: Gaurko euskal poesia Europako onena ez baldin bada onenarekin berdintzekoa ba omen da behinepehin, bere ustez”. Horrela egin zion ihes Gandiagak galde-  
tzaileari (*Zeruko Argia*, 1974, otsailak 3, 12. or.).

Gandiagaren bizitzako azken liburu argitaratua *Ahotsik behartu gabe* izan zen (1997). Uda hartan ere Jakin-eko lagunaren etxera joana zen, opor-egunen batzuk emate alde-  
ra, baina aldi berean bere liburu berriari azken zuzenketa egiteko, J. A. Adurizen laguntzaz. Azurmendi kanpoan zen aldi hartan; baina, inprimategirako testuari honek eskuz egindako oharrei adi baldin bagaude, iradokizunik egiteko aukerarik eman zion autoreak oraingoan ere.

*Hiru gizon bakaka*-ren 2. edizioa (1991) eta horren epilogo-  
goa aipatuak ditugu: “Epilogo, Gandiagaren beraren barrutik egin adiskideari Joxe Azurmendik”. Tituluak berak adierazten digu hobekien Joxek Gandiaga idazlea-  
rengan izan zuen editore-eginkizunaren eta eraginaren zentzua: hau da, autorea beraren obran sarrarazi, eta berak idatzitakoa ulerraraztea eta kasu honetan esanaraztea. “Nire konfesioa da” esan zuen Gandiagak 1993an

Oñ atiko euskaltegi-barnetegian egin zioten elkarrizketan (grabatua, paperean argitaratu gabe). Magnetofoia aurrean jarri omen zion Joxek, eta epilogoia eginda aurkitu; liburua-  
ren bigarren edizioa izanik berrargitalpena funtsean, garrantzirik handiena horretan Joxeren epilogoak zuela gaineratu zuen.

Argitaratu gabeko poema eta idatzi asko utzi zuen Gandiagak hiltzean. Horien artean bazen argitaratzeko berariaz prestaturiko materialik ere: bereziki karpetetako batean eraturako olerki- eta bertso-bilduma, ondo antolatu-  
tua eta zortzi ataletan sailkatua, bakoitzaren sarreratxo eta guzti; aurkibidea ere bai, baina titulurik gabe artean. Argitaratzea erabakita, Joxe Azurmendiri eskatu zioten hitzaurrea editoreek. Oso ondo baliatu zuen aukera berak, hil ondoko *Adio* liburua-  
ren “Hitzaurre modukoa” idatziz (7-23 or.); oraingoan, ordea, irakurleentzat, autore-  
arentzat ezin eta.

Gandiagaren bizitzaren “adiotzat” interpretatu zuen Azurmendik liburua. “Iruditu zait adio bezala pentsatu/sentitua dela liburu dena, edo kasik dena behin-  
tzat, eta horrek erabaki dituela bai liburua-  
ren tankera eta bai gai nagusiak”, esan zuen Joxek, liburua kaleratzean egin zioten elkarrizketan. Horko hainbat pieza poetaren bizi-  
tzako azken aldian idatziak direla uste du gainera. Bada, izan, bestelako argumenturik, liburu-gaia lehenago paratua behar zuela esateko ere; gainera horko pieza askotxo autorea hil baino hogeit bat urte lehenagokoak dira; baina horrek ez dio axolarik hemen. Autorea hilda, editoreek eskubidea hartu ohi dute sarritan haren proiektua berrin-  
terpretatzeko, ez bakarrik titulu adierazgarria ipiniz, eta

bai liburuaren gorputzaren osaera birmoldatuz ere –*Adioko* “Orbelaun-Arantzazu” prosazko hasierako idatzi luzea (25-36 or.) ez zegoen Gandiagak osaturiko karpetan; aldearantziz, liburu-gaiaren “Lagunarte” izeneko azken ataltzat hamar bertso-sorta aspaldiko sartzea zeukan pentsatuta Gandiagak, *Adio* liburutik kanpoan geratu direnak.

Inork izatekotan, Azurmendik zuen eskubide eta itzala Gandiagaren liburu berria interpretatzeko. Ez al zen, bada, bera hari ikusarazten trebatua, beraren idatzian egon bazegoena, baina hark ikusten ez zuena? Dena dela, Joxeren hitzaurrea irakurlearentzako atari baino gehiago dela uste dut: oso gertutik, ezagutu izan duen poeta eta lagunaren bizitzaren eta lan poetiko-literario osoaren irakurketa eta aurkezpen globala egiteko baliatu zuen. Azken egunak *Gandiagarekin* liburuaren nolabaiteko sarrera zirriboratu zigula uste dut Joxek, *Adio* liburuaren hitzaurrea idaztean.

*Hegats*-etik eskatua zidaten lankidetzaz honen berri eman nion Joxe adiskideari, aldi berean informazio pertsonalen bat eskatuz. “Joxe Azurmendi, Gandiagaren editore kritikoa” eraman zezakek titulutzat, esan nion. Hori heu haiz! –erantzun zidan bat-batean, azken urteotan lantzea egokitu zidan Gandiagaren idatzi guztien “edizio kritikoa” –oraingoz Internet-en bakarrik ikus daitekeena: <http://www.gandiaga.com/> gogoratu edo. Nire lana, ordea, edizio ondokoa izan duk –beharko nion erantzun, are autorea hil ondokoa; ezin lagundu, beraz, hari, obraren aurreko zalantza, kezka eta larrialdietatik ateratzen. –Aitortu eta eskertu beharra dut, bide batez, “edizio kritiko” hori bideratzean Joxeren beraren eta beste zenbait



lagunen aholkua eta bultzada oso baliozkoak hartu izana—. Hitz bat jaulki zidan Joxek elkarrizketa labur horretan, Bitoriano gizon eta idazlearengan berak izandako eragina ulertzeko lagungarri: *Ni Gandiagaren editore baino, haren barru-askatzaile izan nauk agian!*

Liburuaren autoreak beldurra izan ohi dio sarritan editore kritikoari, idatzitakotik gehiegi kenduko ote dion, edo aldaraziko ote dion obraren egitura bera, edo halako titulu komertzialen bat, berarentzat ez gustukoa, jarrarazi. Joxe “editore kritikoaren” eginkizuna ez zen horrelakoa izan. Konfiantza osoz joaten zitzaion Bitoriano Donostiara, bere poemak eskuetan, jakin zekielako Joxe ez zitzaiola gaineratik jarriko eta ez zuela ezer aldatzera behartuko. Gandiagaren inprimategirako testuetan bakanak eta guztiz diskretoak dira Joxeren eskuzko oharrak. Hala ere, oharrak egin eta aholkuak emateaz gain, adiskidearen bestelako laguntza gertatu zitzaion bereziki garrantzizkoa Bitorianori, beronek bere poemetan aurkitu gabeko ideiaen originaltasuna, balioa eta ederra aurkitzen lagundu baitzion sarritan. “Harrizkoa zara”... Nik ikusten dudana esaten dut..., Bitorianok. Baina, Bitoriano, zuk irakatsi diguzu horrela ikusten eta esaten..., Joxek. Autorea “auto-irakurtzera” eramaten zuen “editoreak”, idatzitakoaren autoretasuna aitorraraziz gainera. Editore “iradokitzailea”... Horixe esan nahi baitu ‘iradoki’ hitzak: barrukoa aterarazi. Poemaren barruko sakonaz eta ederraz ohartaraztea autorea bera: horra editore “iradokitzailearen” eginkizuna. Horrela uler daiteke agian, Bitorianok ez eskatu izana bere liburuetarako hitzaurrerik Joxeri, honen egitekoa ez zelako, beraren ustetan, “irakur-

learentzat poemen hitzaurrea idaztea autorearen izenean”, autoreari berari poemen ezkutukoa iradokitzea baizik, horren jabea bera zela jabearaziz.

Poemekin batera, ordea, bere burua aurkitzen eta ulertzen lagundu ziola uste dut Joxek Bitorianori, “bere buruarengan konfiantzarik batere ez zuenari” konfiantza harrazten, eta bere barrua askatzen. Gandiaga hil berritan, honako hau nabarmendu zuen kazetariak Joxeri egindako elkarrizketan: “Libre hitz egiten ikasi zuen”. Joxeren hitzak: “Berez hain uzkurra izanik, bere buruaren kontra borroka eginez lortu zuen bere baitako gauzak kontatzeko zuen askatasuna eta gaitasuna. Nik neuk etsenplurik eman izan banion, horretan eman nion, gazteagoa nintzelako askeago bainintzen, bai pentsakeraz eta bai hitz egiteko eraz. Libre izan da nahi zuelako, libre izan nahi zuelako eta hori gauza handia da” (*Gara*, 2001 otsaila, 22, 60. or.).

Oso aipatuak izan dira Gandiaga estu eta asekaitez haren geroko barne-askatasuna eta bizitzako azken aldian erakutsitako barne-bakea... Lurralde Santura egindako erromesaldian abiatu ote zuen askapen-prozesu hura? 1980.eko urteetako krisialdi fisiko-psikikoak lagundu ziola? *Azken egunak Gandiagarekin* liburu mardulean Soraluzeko Julian eta Anjelita adiskideen eragin handia nabarmendu digu Joxek; eta baita Juan San Martin eta beselako lagunena ere. Joxek berak izandako eragin apartekoa azpimarratzea egokitu zaigu hemen: apartekoa bai, Bitorianori berari erakutsiz (ikus-araziz) eta iradokiz (idoki-araziz) bere poemetako jatorrizko munduaren jatoritasuna eta intuizioaren ederra.

Azken liburuan Mendebaldeko pentsamenduaren labirinto

modukora sarrarazten gaitu Joxek; eta batera eta bestera, aurrera eta atzera ibilarazi ondoren, labirintoaren erdigunera iritsi gabe eta labirintotik kanpora irten ezinik uzten gaituela iruditzen zait. 135. orrialdean dioenez, “Gandiagaren fedea eta Jainkoa, niretzat arrotza ez, baina bere ebidentzia masiboarekin kasik ikaratzen ninduen zer-bait zen. Errealismo ikaragarrikoa” (135. or.). Uste dudanez, Joxek, errespetu handiz, ez zuen labirintoaren proba hori egitera gonbidatu Bitoriano; edo agian Gandiagak berak ez zion jarraitu nahi izan barrura.

## Hilezkortasunaren puskailak

Markos Zapiain

*Azken egunak Gandiagarekin* liburuan Joxe Azurmendik gogoeta berezi pertsonal bat ekarri digu Jainkoaz, arimaz, hil ostekoaz, biziaren zentzuaz, denboraz eta betikotasunaz. Egia bada ere guztiok abiatzen garela tradizioen batetik edozeri buruz pentsatzeko orduan, Azurmendiren hausnarketa gainerako euskal saiakeragileona baino propioagoa da, kanpoko eraginetatik libreagoa, behar bada beste inork baino iturri ugariago darabilelako, baina inon bertan goxo egiteke, ezein pentsalari Jainko ahalguztidun orojakiletzat hartzeke. Gurean Marxen jarraitzaileak daukagu, Nietzsche, Habermas, Frankfurteko Eskola eta Zizekenak, besteak beste; Joxe, berriz, bere kasago dabil, ingurukoena baino indartsuagoa da bere garunetako txorrotari darion turrusta.

Ikragarri oparoa eta aberatsa da liburua. Heriotza da erabiltzen duen gaietako bat, eta soilik heriotzari buruz Azurmendik filosofiaren eta erlijioaren historiak egiten dizkigu, munduan nagusitu izan diren jarrearen aurrean ikuspuntu garbi bat adierazten du, euskaldunon bilakaera heriotzari dagozkionetan ere ematen digu, halaber Azurmendirena berarena zehazki, eta heriotzari loturiko inguruko gorabeheren berri, heriotzari nola egiten dioten aurre...

Gandiaga adiskide mina hiltzen ari zaio. Azurmendiren amak 97 urte ditu, burua argi, ingurukoek maitatua bizi da, baina hala ere ia egunero botatzen du honelakoren bat, batere mingostasunik gabe: "Sikira ailegatua balego nire

ordue”, edota “Goiko hori nerekin ahaztua dola ematen du”. Bere heriotzaren zain bizi da. Nolakoa uste duzu izango dela azkeneko ordua? galdetu dio alaba batek: “Izaten den, ba, haize gozo lasai bat? Ba holakoxe haize bat aurpegitik pasatzen”. Heriotzaren hurbiltasunak bultzatu du Azurmendi hiltzearen eta hilostekoaren gaineko gogoetara.

Askok galdua dugu Azurmendiren amaren patxada heriotzaren aurrean. Ez bakarrik modernook honezkero naturaren pizte eta itzailtzeetara biltzen jakin ez eta eruzia dugulako eguneroko bizitzatik, klinikara baztertuta, jaiotza bera bezala, hasiera eta amaiera; gainera, ez dugu ezagutzen orain dela gutxi arte konfiantza apur bat ematen zuen fedea.

Azurmendirentzat ez dago berezko Jainkorik, sinestunengandik at. Era berean, ez dago hilezkortasunaren froga razionalik. “Hilezkortasunak, zentzurik izatekotan, 'fedezkoa' du (kristaua edo ez)”. Gizakiak ipintzen du beti erlijio-mittoa, bizitzari zentzua eman nahi liokeen ipuina. Edonola ere, teismo katolikoa bezain zozoa iruditzen zaio gurean nagusi den ateismoa, inertzia bat, pentsamendurik gabeko ukazio itsua.

Azurmendiri txikitako fedea deseraiki egin zitzaion. Aldi ateo bat bizi izan zuen. Orain begi zolia gelditu zaio ikusteko nola jende askok Jainkoaren ordezkaria gurtzen duen, Eliza barik Alderdia, etab.; antzeraegi dabilta haatik. Estatuburuak Aita Santu izan nahi luke. Chiracek Frantziako selekzioaren futbol-partidan bere ereserkiari txistu egiten diotela entzun eta suminduta alde egiten du: erlijiozko amorrua zaio Azurmendiren usnari. Eta gurean

gogor kritikatzten da Eliza, arrazoi osoz, baina Azurmendik faltan du ganora hori Zientziaren eta Estatuaren aurkako kritikan, Hiroshima adibidez Zientziak ekarri baitzigun, ez Elizak. Wittgensteinek dioenez, ezein erlijio-sinestek ez du matematikak adina bekatu egin, adierazpen metafisikoen erabilera txarra dela eta. Azkenik, erlijioaz eta hilostekoaz futitzen omen den ateorik lehorrenak ere ez dizu maitearen gorpua galsoroan abandonatu nahi izaten zakurrak jan dezaten.

Hilurretik ahal bezainbeste gozatuz bizitzera ez gaitu heriotza ahazteak bultzatzen, baizik heriotza total presentean edukitzeak. Azurmendik, nolana ere, gure kontsumogizarteetako hedonista tipikoa baino maiteago du “gaixo eta pobreekin errukitu den fededun kristaua, edo justizia eta askatasunaren alde behin bere gartzetasuna eskaini zion idealak berari besterik ekarri ez diona, espetxea ez bada eta klandestinitatea urte luzetan barnerrian zein atzerrian”.

Askatasun berri bat eman dio bere buruari Jainkoaz, arima hilezkorraz, zeru/infernuez eta betikotasunaz mintzatzen; are Ama Birjinaz. Euskal irakurle askok nahiago luke aitak masturbatzen harrapatzea, lagunek Ama Birjinaz hausnartu duela jakitea baino, lotsagarriagotzat baitute hainbat foro progresistatan. Tabu hori hautsi eta gizakiak bizitzari zentzua nola ematen dion pentsatzeari ekin dio Azurmendik, gure gizarteko erlijio-ibilbidea eta bere bila-kaera pertsonala aintzat harturik. Askotarikoak, historikoak eta aldakorrak baitira heriotzaren interpretazioak, haraindiaren irudiak eta Jainkoak. Bakana da, esaterako, McTaggart-en ideia: Jainkoa benetan ahalguztiduna izatera

kontraesan-hastapenaren gainera behar luke, eta hortaz aldi berean existitu eta ez existitu ahal izan. Orobat Gandiagarena: Jainkoa beti naturan sentitzen duen arren, ezustean historian ere txiroen indarkeria iraultzailean iragartzen baitu indar jainkozko bat; Jainkoa historian ez du nabaritzen justiziaren aldeko borrokan baizik. Edozein gisaz, erlijioari dagokionez ere “artxipelago ibiltari bateko parte” gara, Jose Luis Otamendiren hitzak erabiltzearren. “Eta puskailak” emendatuko luke agian Azurmendik.

Zegamarra, erlijio-krisiak jota mitologia tradizionaletik urruti ibili ondoren, itzuli egin da. Ordea, behin itzulita ez du betiko Itaka zentzu eder berriz berrasmatu, Gandiagak bezala, zeina “abila zen panderoa jotzen, baina ez da makala izan lan isilagoetan”. Aitzitik, Azurmendi hizkerarik gabe gelditu da, “inoiz habitatu zuen hizkeraren edo mitoaren puskail artean... Alternatibarik ez dauka eta ez du uste dagoenik”.

## **Unibertsoa inoiz ez da zu izan gabekoa izango**

Bi eratan pentsatu izan da hilezkortasuna: batean nia patuari egokitzen zaio, nire desio pertsonalak amatatuta unibertsoarekin bat eginik, nire berezitasunak kosmosean urtuta, oraina eternitatean ezkutatuta.

Bestean, berriz, ni nagusitzen naiz, nire desirek erabakitzen dute patua, ni neu naiz nire berezitasunez hornituta betirako iraungo dudana. Bigarren hauxe da mitoak darabilen hilezkortasuna: "Orainaren azkengabetzea, gure existentzia honetakoxe argiaren eta eguzkiaren betirautea, inoiz ez lo hartzea, betiko itzarritasuna munduaren aurre-

an". Gure zerua heriotzaren beldurra gaintzeko estrategia bat da; "gero, infernuak bezala, zeruaren mitoak ere, nahitaez bizitza honetatik pentsatua, bizitza honetako esperientziei erantzuten die, eta bizitza honetan du eragina".

Azken egunak Gandiagarekin obran betikotasunari buruz Azurmendik egin duen gogoetaren muinean orrialde liluragarri hau dago:

Mariarena "biografia arrunt bat da. Baina unibertso hau honezkero sekula ez da izango Maria hori han egon izan gabekoa. Maria haurrak edozein txikikeria txiki-txikirengatik egindako karraska eta marraska kontsolaezinak, unibertso honek betiren betiko bere negarrak izango ditu. Maria gaztearen hunkidurak, irribarreak, ametsak, jada beti bereak izanen ditu unibertsoak. Mariaren lanak, penak, dena geldituko da unibertsoaren zerizanean betiko jasota. Eta denak denean eragina duen unibertsoan, gauzatxorik urrunenak ere behin Maria hori egon izanaren ukitutxoak ukanen du, eta den-dena nolabait markatua egonen da Maria behin han egon izanak. Zureganako haren samurtasuna, biok elkarrekin izandako solasak edo elkar ulerpen osoko isilaldiak, bizi izan dituzuen gozoak eta saminak, esperantzak: dena hain labur, eta betiereko. Mariaren gorputza existentzia espazio eta denbora jakin batzuetan hil eta gero ere, Mariaren esentzia edo arima, bera den bezainbatean zerizan dena, unibertso guztian eta sekula guztian bakarra den bere-bere berekitasun hori, eta berak egin duena, oihartzun baten moduan unibertsoan geldituko da unibertsoaren memorian betiere guztian, uniber-



tsoa den guztiaren harmonia konposatzen. Oraingo eta lehengo bere notatxo eta isilunetxo guzti-guztiek batera osatzen baitute sinfonia unibertsala. Eta pentsatzea oraingo bere existentzian bera den zertxoa, unibertso zabalhandi hori hobetzen, ederragotzen, argiagotzen kolaboratzen ari dela, indargarri zaio Mariaren kontzientziari, ari-mari, oraintxe.

Baina, ongi pentsaturik, unibertsoa hasiera-hasieratik eta betidanik, egunen batean Maria hori hantxe egon zedin prestaketak, probidentziak egiten jardun da, eta hein horretan Mariaren arima, ez hilezkorra bakarrik, betidani-koa dela esan genezake, mito platonikoan bezala, unibertsoaren izaera eta bilakaeran betidanik ukan baitu bere lekutxo bere-berea...”

Azurmendiren iritziz, baldin Euskal Herrian noizbait heriotza librearen aukera onartuko balitz, biziaren eta heriotzaren batasunak justifikatuko luke, bat izate horrek baino ez baitu bizitza benetan libre egiten. Tamal handia, erabakigune eragingarrietan Azurmendiren erlijioa beharrean Munilla eta Roucorena izatea gailen.

## **Esperientziatik mitora**

Ondoren Mariarenari darizkion zenbait irakaspen azalduko ditut, Azurmendiren ikuspuntuak sinkronian eta diakronian:

Maria, metafisikarentzat, eta berdin zientziarentzat, unibertsoaren osotasunari dagokionez ez da ezer: x bat da, erreferentzia-puntu soil bat erlazio-sistema unibertsal

batean, kontuan hartzen den erlazioaren arabera bere balioa aldatzen duena (errealitate fisiko bat da, edo morala, edo estetikoa...). Alegia, izan, ez da ezer, baina hainbat gauza izan daiteke.

Eguneroko gure esperientzian, berriz, Maria Maria da: pertsona ongi berezia beste guztitik, gorputz bat (fisikoa), nortasun bat (espirituala), eta gainera maite dugu, hau da, harentzat ontasun batzuk nahi ditugu. Hau dena oraindik esperientziaren mailan dabil, esperientzia hori aratza eta berehalakoa ez den arren, jakina, esperientzia oro alde edo moldez interpretaturik baitatorkigu beti; esaterako, arimaz edo espirituaz mintzo garelarik, hori ez da inolaz ere kontzeptu erlijiosoa oraindik.

Azurmendik azpimarratzen duenez, gure kulturaren ohikoa den interpretazioan Mariak arima bat dauka, Jainkoak emana, hilezkorra: horixe da haren errealitate espirituala. Hautemateko gure gaitasunari ihes egiten dio, Mariaren zinezko errealitate fisikoak bezalaxe: zientzia modernoaren interpretazioaren arabera Maria ez baita hortxe ikusten den gorputz hori, baizik atomo batzuk.

Eta Maria osatzen duten azken osagai horiek natura osoaren azken zati ezabaezinak ere badira. Beraz, Maria uler-tu ahal izateko, Maria bera soilik baino harago, Dena uler-tu behar da, edo Jainkoa edo kosmos osoa.

Joxe Azurmendiren arimetako bat razionalista zorrotza duzu ordea, eta gure kultura goiko ideia horietara nola heldu den aztertu du: Maria esentzialki bere arima dela, arima hilezkorra dela, hil eta gero ere biziraun egingo duela, biziraupen hori sari edo zigor gisa biziko duela. Eta eszeptizismoz diosku ergelkeriak direla horiek guztiak,

mitoak, ez daukatela inolako oinarri razional eta zientifikorik; Maria hil egiten da, desegin egiten da, eta ez da ezer geratzen. Hauxe du garai atea (negatibo hutsa).

Baina hain zuzen razionalista kontsekuentea delako, beste urrats bat emanez bere buruari galdetu dio: gizakiak mito horiek sortu baditu, zein esperientzia modutatik abiatu da? Zein errealitate egiazko da mintzaira fantasiazko horretan islatzen dena? Zer da mitoaren aurretik dagoena (esperientzia erreala), eta mitoaren atzetik dagoena (interpretazio transformatzailea, ez deskribatzaile hutsa)? Eta erantzun hau aurkitu du: errealitatea, bai metafisikoa eta bai zientifikoa, Mariaren historia da. Oraindik ez gaude mitoan: Azurmendik unibertsoa Mariagatik existitzen dela dio, baina horrek berdin-berdin balio du txantxangorri batentzat eta kosmos osoan edozerentzat. Halatan, kosmosa Jainko baten antzekoa da, eternitate guztitik gutako bakoitza bere gogoetan eta bere altzoan gauzkana.

Idea abstraktu hori mitoak irudien bidez janzen du, Mariak zein gorputz eta zein arima duen zehaztuz, arima hori hilezkorra dela kontatuz, eta abar. Eta irudi horiek fededunengan bizia hartzen dute, eta Maria jaiotzean edo hiltzean zeremonia batzuk egingo dituzte (erlijioa, erri-tua).

Konklusioa: kosmosean Dena Bat dela, Azurmendirentzat, esperientzia da; eta, horregatixe, arauz-eta zein erlaziotan gauzak ikusi, kosmos guztia eta denbora guztia Mariarengan zentratzen dela, esperientziaren gogoeta logikoa da (metafisikoa eta zientifikoa): “Biziraupenaren esperientziak dira mintzo zaizkigunak Parmenides edo Platonen gogoetan, askaziaren oroipenetan, alargunaren

eta maitalearen agiantzetan, edo berdin Naturako joan-jinean, zeruaren betiereko itzuleran, ur xirriparen kontenplazio soilean beharbada. Keinuak, zantzuak; ez presentzia, ez ebidentzia, ez ziurtasuna. Eskaintza bat besterik ez, esperientzia horiek bizitzaren zentzuaren galderan aintzat hartzeko, pentsatzeko. Mitoak hori egiten baitu –zeinuak interpretatu, zeinu berriak ipini, besterik ez”.

Hots, Mariak kosmosarentzat ez dauka identitaterik, edo-zer da eta edozein, faktore aldakor bat. Mitoak identitate pertsonala ematen dio, eternitate guztian “Maria” izatea, eta ez protoi edo elektroi multzo iheskor bat.

### **Mitotik puskailetara**

Hilezkortasuna ukatzeko asmoz, arima hilezkorraren eta hilon-doko bizitzaren ideien antropomorfismoa azpimarratu izan da. Baina hori ez da zentzuzko kritika bat. Ezkila hautematea ere antropomorfikoa da, gizakiak dagien guztia ezinbestean baita antropomorfiko. Ez antropomorfismoa, baizik honako hauxe duzu erlijioaren arazoaren giltza postmodernian: “Jainkoa, arimaren hilezkortasuna, zerua, infernua, denak mezu bat ematen du zoragarria eta gaizki kontatua. Giza hizkuntzaren ahalean ez dagoelako ongi kontatzea”.

Miresgarriak izan daitezke erlijioak eta fededunari laguntzen diote. Joxe Azurmendik ordea ezin ditu guztiz bere egin: ez hilezkortasun platoniko-kristaua, gorputzaren eta arimaren dualismoa oinarri, soilik arima jotzen duena hilezkortzat; ezta edonon aurki litekeen eta oso antzinatik

datorkigun sentimendua, naturarekin bat kosmosean urtutakoaren hilezkortasuna. Sentiera primitibo hori bereagoa du hala ere. Arimatxo ugari dugu gure baitan eta Azurmendiren horietakoren batek oihartzun egin liezaioke Mariaren kantuari. Baina aldi berean unibertsoarekin bat egitera itzultze guztizkoa eragotzia du, sakonegia baita honezkero naturaren eta gure arteko etena. Behialako batasuna bizitzaren eta heriotzaren artean “bion oposizio dago bilakatua, bata bestearen ukoa”.

Azurmendik ez du Gandiagaren eta bere amaren segurtasunik, bere baitako arimatxo horiek sarritan ez baitatoz bat. Ez daki sinesten duen, ez duen, ez daki zer egiten duen. Eszeptizismo bizi batek dirudi bere bihotzeko puskailarik barnekoenetakoa.

Kontua da nola pentsatu gaur egun bizitzaren zentzua, heriotza, gizakiaren patua, munduaren azkena. Gogoetagai horiek nekez geuregana ditzakegu ganoraz hizkuntza mitologikoa erabili ezean. Hilezkortasunari eta betikotasunari zentzua eman ahal izateko, egundaino, ez dugu erlijioarena bezain hizkera egokirik asmatu. Baina honezkero galdua dugu fedeak eskatzen zuen xalotasun intelektual eta morala. Jaiotzen eta hiltzen jarraitzen dugu, baina ez dakigu zelan mintzatu bizitzaz eta heriotzaz. Azurmendirentzat, horrenbestez, “problema gurea da, ez mitoarena, mitoarentzat ez daukagulako alternatibarik: zentzuaren galdera inolako hizkuntzarik gabe utzi dugu.”

Bestela esanda: antzinako mundutik hainbat sentimendu bizirik dago gure baitan, eta mundu modernotik ere anitz jarrera geureganatu dugu, “baina gu ez gara ez mundu batekoak ez bestekoak, eta geure mundu bat ez daukagu.

Mila fragmento gara eta ez gara inongoak. Puskailenkoak gara gu”.



**Artean gazte eta berde: Azurmendiren  
Hitz berdeak eta Manifestu atzeratua**  
Igor Estankona Bilbao

“Hitz biziok  
nire eskuotan ernai  
sortu zirenok,  
nekatuak eskuratuko dituzu,  
ta hilda irakurri”

Joxe Azurmendi  
*Hitz berdeak*

*Hitz berdeak* (Editorial Franciscana Aranzazu, 1971), Azurmendiren lehen argitalpena izan zen, poesiaren mailu pisutsua hartu zuen lehen eta azken aldia. Hitzak fresko eta berde atera zitzaizkion eta, obra sano garrantzitsua izan arren, zegamarraren bibliografiaren zabalaretan galtzen da, galtzen den bezala maiz argi txiki bat argi handiago baten pean.

Hirurogeigarren hamarkadan ahapaldietan eta lerro hautsietan ateratzen ei zitzaizkion Joxe Azurmendi Otaegi frantziskotar gazteari herriaren penak eta izpirituaren indarrak. 1965ean sasitza batzutan ibili zen, erbesteratua, harik eta Erroman erdi finkatu zen arte. *Hitz berdeak*en hitzaurrean Bitoriano Gandiagak gogoratzen duen legez, Azurmendik dio “trenetan, busetan, parkeetan eta nunahi idatzi” zuela denbora hartan, agian bere burua “galtzeko bildurrez”. Hala idatzi duen edonork daki poesiaren kon-



tsolamenduaz ari dela. Garai hartan ezagutu zuen Paulo Iztueta, errari eta poeta bera ere. Iztueta hasi zen gaur esku artean dugun poema liburua atontzen, eta gerogarrenean Jesus Mari Zabaletak hartu zuen bere gain liburuaren ardura.

Hiru koaderno desberdinetako urak biltzen dira *Hitz berdeak* liburuan. 1962a baino lehenagoko poemak dira beroenak, berritzaile eta indartsuenak. Bigarren koadernotik hartuak ei dira trantsizio zaporeko poemak, kanpoko poesiaren irakurketen dekantazioaren usaina dakartenak, ez hain “sozialak”. Hirugarren koadernoan, azkenik, 1965etik aurrerako poemak zeuzkan bildurik idazleak.

Bitoriano Gandiagaren hitzaurrean zentsuraren artazien berri ere ematen da, bide batez. Gandiagak dio poema batzuk “kendu beharrean aurkitu” direla, euren artean azken aldiko poemetako bat -1968koa-: *Manifestu atzeratua*. Existenzialismo soziala zen Azurmendirena, oraindik hori zer zen Arestirengandik berarengandik ikasten ari zen Euskal Herri arduratu eta minduan. Eta manifestua “atzeratua” da, historiaren abiadurak irentsitakoa iruditu zitzaiolako autoreari berari. Hona poemaren lehen zatia:

## MANIFESTU ATZERATUA

*Panfletu bat idatzi nizun  
kondenatu nahi banauzu  
injustiziarik kometa ez dezazun.*

I

*Gure herriak ez dauka kondairarik.  
Pobrea da. Ez dauka*

pirata koxkor pare bat  
langile sofritu batzuk,  
muga zentzugabe asko,  
mila zorigaizto  
besterik. Ez da gutxi.  
Euri gortina batek ixten du  
gure kalendarioa.  
Ez, ba, bilatu kondaira unibertsalen  
liburu handietan gure inperiorik.

Aginako zero bat zen  
gure inperio guztia.

Ta euskalduna konforme zegoen.  
Ta libre izan nahi zuen.

Baina libre izatea  
gauza ikaragarri zaila da  
Marx bat  
edo 1789 bat izan ez duen  
herri zorigaiztokoarentzat.  
Zerekin pagatu behar du?

Ikaragarri zaila da.  
Ze guk ez daukagu  
pirata pare bat, langile on batzuk,  
muga txar gehiago eta holako zerbait  
besterik. Kalderilla hutsa.

Baina libre izan nahi dugu,  
zer kulpa daukat nik.  
Eta txeke zuri faltsu baten antzean  
Gernikako arbola bat asmatu diguten arren  
libre nahia bekatu balitz bezala,  
aitzakiaren bat beharko bagenu bezala,  
guk, guztiz ximple, libre izan nahi dugu.  
Nahi dugu, besterik ez.  
Hauxe baita gure engainu azkenekoa:  
libre izan nahia justifikatu behar dugula  
pentsarazi digute  
lehen kanpotik eta barrutik orain.

Eta San Inazioren, Xabierren, Txurrukaren  
eta Elkanoren eta Habeas Corpusen  
eta nik dakit noren  
gomendio guztiak biltzen  
eta banatzen  
saiatu zaizkigu gure kausaren  
abokatuok. Libre izateko  
inoren baimenik beharko balitz bezala.  
Herri izateko inoren gomendiorik  
beharko bagenu bezala.  
Horiek libertaterik  
ekarriko baligute bezala.  
Ta ez horiengatik, ezpada  
guzti horien kontra  
nahi dugu libre izan  
kondaira guztiaren kontra.

Oi, libre izatea eta handi izatea  
nahasi diguten gureak!  
Libertatea handitasunarekin  
edo kondairarekin  
edo ta agian norbaitek (oi, bi aldiz gaixo!)  
moralarekin  
defendatzen digutenak!

Poema txar batean  
deklaratu behar diot  
gure gauari ezetz.  
Goizaren kontra,  
Gernikako arbolaren kontra  
eta herriaren alde.  
Deklaratu behar diot kaleari  
gure jauntxoak ez direla  
sekula gure herria izan ta izango.

Gure jendea pobrea da, trixtea da.  
Gure jendea ez da poesia batean kabitzen.  
Gure jendea ona da. Kulpa gabe  
hiltzen da, handitasunik gabe  
bizi da, sekretuan maite du  
(tabuak errespetatzen ditu),  
errezatzen du (tradizionalista da)  
engainatu egin dute,  
ez da asko fiatzen. Gure jendea  
bulgaritate hutsa da.  
Inpresionistek bakarrik pintatu dute.  
Edozein etnologoren armario batean

*dago, eskuliburu batean  
deskribatzen da.*

*Hau zen nire Gernikako arbola guztia.*

## **Belaunaldi arduratua**

Galtzetan estu zeuden garai hartan gerra zibila galdu eta nortasunari zelan eutsi asmatu ezinik zebiltzan antzinako erakunde, alderdi eta korronte sozialak. Belaunaldi berri batek, ostera, Oteizak zioen “belaunaldi arduratuak”, euskal arte modernoa, letrak, nortasuna eta etorkizuna zituen hizpide, eta ez hainbeste galera. Joxe Azurmendiren *Hitz berdeak* liburua irakiten dagoen liburua da zentzu horretan, soziala eta erabatekoa. Nortasun handiko poema asko biltzen ditu, norbere mugak eta gizateriaren arazo zein potentzialak azaleratzen dituztenak, modu sano argian. Koldo Izagirrek zera dio Azurmendiri dedikatutako *XX. Mendeko Poesia Kaierako* hitzaurrean (Susa, 2000):

*“Azurmendiren poesiaren protagonista beti lehen pertsonan mintzo den ni bakarti hori da, egia establezituen aurka eta, ondorioz, Jainkoaren aurka ere matxinatua. Urrun gelditu da denboran hain hurbil zegoen Jainko asetzaille hura. Jainkozko beteak okitua ageri da poeta, problematizatu egiten du Goikoa. Ez ordea kezka teologiko gisa. Kontu eske ari zaiona sakramentuari gainez egindako Camus-en gizona da. Horixe izan nahi luke poetak, gizon bat, besterik gabe, ez baita 60ko hamarkada hartan hainbeste ugaldtu ziren gizarte fedegaldtu bat erredimitzera doakeen misiolari «apaiz, langile eta gizon»*

*haietako bat. Azurmendiren poesiak Jainkoari berari oldartzen zaio, ez Jainkoaren irudi bati edo manipulazio bati. Ez du gizona salbatu nahi, gizon izatearen kondena pairatu baizik. Horrek, orduan, berez zekarren gizarte kontzientzia.”*

Kristautasunetik, marxismotik eta abertzaletasunetik edan zuen kontzientzia berri hark modernia zuen ipar. *Hitz berdeak* liburuan eboluzio betean zegoen estetika bat ageri zaigu, mundura zabalik dagoena eta erroak Euskal Herrian dituen, ondo hausnartua eta landua, *Uhin-berri* mitiko haren ildoan sakontzen duena. Izan ere, garai hartan bor-bor zegoen Europa, bor-bor Ipar Amerika, gerri-llan Asia eta Hego Amerika, burujabetza eta nortasuna berreskuratzen Afrika... libertateari kantatzen zioten haiek berrikuntzari kantatzen zioten, Azurmendi tartean. Giro bat sortu zen euskal poesiagintzan, sano kontzientea –behar bada gaur egunekoa baino kontzienteagoa– hitzek zuten indarraz, eta euskara batuaren garrantziaz. Aresti diogunean Azurmendi ere badiogu, garaia, helburuak eta askotan forma berritzaileak dakartzatelako biek. Azurmendiren *Poema beltzaren arbola* poemak (*Hitz berdeak* liburuan datorrena eta Olerti aldizkarian 1963an argitaratua), urte bete geroago Arestik argitaratu zuen *Harri eta herriren* izpiritu bera darama: fede zaharra galdu duenak bide berriak urratu behar ditu.

## POEMA BELTZAREN ARBOLA

*Uhinak hondar tristean  
ahantzi duten txirla baino tristeago.*

*Ez dakit nun dudan galdu  
fede gozo haren gozoa,  
ez dakit nun dudan galdu.  
Ai, umetako fedearen  
sinismen bigun haren misterioa...*

*Jaurtitzen zaitudan fede,  
amagandiko arnas triste,  
adio betiko.  
Zurekin bizi naiz triste,  
areago menturaz zu gabe!  
Adio betiko, fede adiskide.*

*Arestiarra da halaber, eta bertsolaritzatik edaten du,  
Euskaldun poetek... hasten den pieza preziosista hau:*

*Euskaldun poetek  
tiestoan jarri nahi dituzte  
larrosak.  
Eta sikatu egiten dira.*

*Euskaldun poetek  
krabelinak josi nahi dituzte  
solapan.*

*Eta merkatuetan  
erosten dute hiru txanponetan  
gurea ez den poesia.*

Belaunaldi arduratuak humanitatearen aldeko hautu kontzientea egin zuen, esango nuke oraindik ere euskal gazteria arduratua inspiratzen duen korronte nagusia ikonoklasta horien bidetik ari dela, inkontzienteki. Bide horren munak dira nazioa, existentzialismoa, konpromisoa eta esperantza, ia-ia pesimismoarekin muga egiten duen esperantza kristau bat. *Hitz berdeak* liburuan bertan Juan San Martinek deskribatzen du ideologia hori, gogo-aldarte bat dena azken batean:

“(…) nekeza zaio gizona eta herria nahigabetzen dituen proletariatik ihes egitea. Horretarako ere barrua behar da. Eta Joxeren sensibilitate finak, Joxeren bihotz handiak asko sofritzen du eta inondik ere ezin du hori soportatu. Munduaren kontzientzia izan nahi luke. Ase ezinezko kontzientzia duenez, bere deiak hurbilago ditu, eta ase ezinezko egarri horrek galde eragiten dio: «Zein ordu da, zein ordu?». Bere ordua inoiz irixiko zaion ere ez dakielarik eginen du otoi. Baina euskal poesiaren erlojua, geldirik zegoen erlojua, martxan jarri nahi duela dirudi: Jainkozko hutsune baten eragina eta existentzia hutsaren garrasia ditu inguruko.

Gaurko gazteriarik gehienak zirkin egin dio problema honi, baina bizitzaren arrazoi nagusia hor gelditzen zaigu erabagitzeko. Inork ez daki egiaren berri. Lehengo erlijioak ba zirudien segurantzia osoa zutela; orain berriz ez da zalantza bagerik. Gaur, urruti bezin hurbil gaude alkarrengandik. Zegamako arratsalde euritsu hartan geunden bezin hurbil. Batez ere, elkarri solasez irekitzen direnak ez ote ditugu geroago eta hobeto ikusten gizonetan gizonagoak? Ez dira berdinak bide itxietan itsumustuka joaten direnak. Eta, Joxeren poemak



bidez, munduaren misterio zuloak gehitu eta handitu egiten direla iduritzen zait. Larri-minezko bide lauso horietatik ibili garenok, nora ezean, nekez eta abar, argirik gutti, eta bat kez-karen erraietarainoko iluntasuna. Bide horietatik ibiliak, mundu gorrotagarrian dabilta maitasuna bila, maitasuna eskaintzen eta rnaitasuna eskatzen. Baina, Joxek, egia esan, Jainkoagan fedea bere haragian itsatsirik daramanetakoa dirudi. Guk inoiz hain argi ez ikusi arren ere, bat-batean irtengo zaigu: «Bakarrik nago nere fedean», esanez. Izan ere, existentzia, latza da, latza, fededunentzat eta fede gabeentzat. Dolorea, mina bait da guztiontzat. Geuk nahi dugu zenbait erantzun, baina hutsean uzten gaitu.”

## **Poesia librea, gizaki librea**

Metroan, hizkuntzan, irudietan libre den poesia inauguratu zuen belaunaldikoa da Joxe Azurmendi. Azurmendiren poesiaren helburua praktikoa da, komunikazioa bilatzen du, espresibide berriak, ezin esan zitekeena esaten hasteko. Eta horretarako, paradoxikoki, adierazpide ilogikoak, zerrenda kaotikoak, erritmo hautsiak eta existentzialismoaren berba anpulutsuak behar ditu. Beste diskurtso poetiko bat jaio zen Euskal Herrian garai hartan, alegoria-rena.

Alegoria luze bat da *Hitz berdeak*. Poema sano desberdinen arteko haria hortxe dago. Puri-purian zeuden —eta dauden— gizarte arazoak mitoaren eternitatearekin nahastuten dira, estiloari esker:

*Ta orain gau da,  
gau heriozkoa.*

*Nun zaudete zuek,  
euskaldun hilak.  
Baso ertzeko bidez  
—hilobi baten peitu—  
eusko izan hobena  
garbitzen,  
urtezko gabetan  
erromes,  
lurpe baten  
pakea galdurik?  
Atzoko gudariak.*

*Zein mezu astun dakarte  
hodeiek, baldarki  
zeruan nahasturik datozenean,  
zein mezu beltz  
euskal herriari?*

*Ta eusko adarra  
bidean erorita,  
jaso dezan gudari  
bulartsu berriaren  
zain dago,  
urtez baino penaz  
hiltzenago.*

Fikzioa erreal bihurtzen da Azurmendiren liburuan, eta unibertsa bertako. Gauzak gerta daitezke Vietnamen zein Euskal Herrian, kultura berri baten adibide delako *Hitz berdeak*, humanitatearen samin eta esperantza amankomunetan nahi duelako bere burua aurkitu. Atenporalitate gozo bat dauka liburuak, gizakiari buruzkoa izakeran goitik behera.

Poesia mota hori, eraginkortasunaren eta edertasunaren poesia, ez dago idatzia barrenak lasaitzeko edo lirikan galtzeko. Zerbait pentsatzera bultzatzen gaituen literatura da, konprometitua. Berriro joko dugu Juan San Martinen hi-tzaurrera, zehatzago ez dago-eta esaterik:

*“Baina poetek bakarrik ez dute egiten poesia, poetek soilik ez dute zer idatzirik, herri-giroa herriak berak loratuko ez badu. Honetarako, poetek, beharrezkoa dute konpromisoa hartu beharra, gizonei, mitxeletei eta lorei baino ardura gehiagoz begiratuaz. Herriarekin lotzen duen bikotasuna, eragingarria bait da. Eragingarria bi aldetatik. Herriak kolpez ebakiko du bidea, poetek formak sortzen dituztelarik.”*

Konpromiso horren berorren eraginkortasunaren inguruko kezka sakona dauka, ostera, Azurmendik. Aipatu dugun “pentsarazteko poesia” horrek pentsatu arazi egiten dio Azurmendiri, eta bere burua zigortzen du jakin nahirik ea ahalegina iristen zaion sufritzen duenari, langileari, pobrari: *“Herriak sofritzen dauden artean/ beti dira poetak/ astiarekin rinozeronteari kilimak egiteko”*.

## **Kaosa eta ordena**

*Hitz berdeak* urgentziazko poemategi bat dela ematen du batzutan, eta beste batzutan epikaren hilezkortasuna daukala. Hamarkada bateko lan poetikoa biltzen duenez, tempo historikoaren abiadura bizia transmititzen du uneka, eta uneka klasizismo itzela, Gandiagarena, Artzerena... Leteren berbera. Idazle moduan gizakiari zor zaio –gero saiakeraren bidetik urratuko duen bidea- eta poeta moduan utopiari. Azurmendi materialista, zientifikoa, orainaldi historikoan bizi dena beste Azurmendi poeta, kristau, humanista, bakezalearekin nahasten da. Horregatik da aberatsa, kontraesankorra eta interesgarria liburu hau, eta behar bada aipatu ditugun elementu horiek guztiek osatzen dute halako batasun bat, liburuia bukatzean geratzen den aho-zapore baten antzekoa. Hain estilo eta gai desberdinek Azurmendirengan bat egiten dute, etikaren bidetik. Poema guztiek dute gaur egun galtzen ari den poesiaren -eta are, literaturaren- moral baten zentzua: estetika ezin egon daiteke etikatik aparte.

Sormena helburu humanoen zerbitzura jarri izan du beti Azurmendik. *Hitz berdeak* liburuan ere momentu historikoaren irakurketa onesta egin zuen, balio handikoa. Hitz berdeekin, duda handiekin, bere bibliografia amaigabearen printzipioak ezarri zituen: askatasuna eta duintasuna munduan, gizarte berria Euskal Herrian.



## Azurmendi edo konkretutasuna

Ander Iturriotz Lauzirika

Konkretutasuna kategoria garrantzitsua da Joxe Azurmendiren gogoetan. Beti ibili da abstrakzioaren aurka, beti ibili da absolutuaren aurka, hain zuzen, absolututasunak absolutismoaren arriskua daramalako bere baitan: normalean, partikular konkretu bat deklaritzen da unibertsal<sup>1</sup> eta, ondorioz, unibertsaltasunaren ideia, oldar-korra bihurtzen da, handiaren mozorro bezala erabiltzen denean<sup>2</sup>.

Kategoria moraletan, lehendabizi: paradigma neoplatonikoak utzirik, dogmatismo beti biolentoak utzirik, ongia eta gaizkia historikoki kontsideratu behar dira, hemen eta orain. Kategoria kultural eta, ondorioz, politikoekin: kultura partikularra eta unibertsala dialektikoki ulertzeko modu bat behar da: kultura berezi partikularra ez da kultura unibertsalaren *zati* bat, handiagoa ala txikiagoa. Hain zuzen hortxe dago makurkeria: “handiek” beraiena “kultura handi” deklaritzen dizute, handia gero unibertsal<sup>3</sup>.

Zentzu horretan, kultura bat, herri bat, nazio bat, giza abereak, haragizko giza abereak sortzen eta antolatzen dituen ohitura, lege, uste, harreman-sare, hizkuntza eta abar konkretu batzuek osatzen dute, oinarrian.

Arte eta literatura-molde batera ere iristen da

---

1 Azurmendi, J.: “Irakurketari jarrituz gogoetan”, epilogo, in Aiestaran, I., *Munstro abertzalea*, <http://www.gipuzkoakultura.net/>, 2007, 7 or.

2 *Ibidem*, 8 or.

3 Azurmendi, J.: “Karlos Santamariari omenalditxo gisa”, in, JAKIN, 61, 1990, 100 or.

Azurmendi, konpromisoaren oinarrian kultura propioa jartzen duena. Ez du sinesten artegintza eta literatura hutsean: jendeari eta lurrari lotua interesatzen zaio Azurmendiri sorkuntza, estetikaren zentzu klasikotik gertu. Euskal Herrira etorritz, literatura ulertzeko modu eta tradizio luze bat du gogoan: Orixe, Mirande, Aresti edo Gandiaga jarriko ditu adibidetzat. Itzuliko gara aurrerago horretara.

Konkretutasunaren kontzeptua modernitatearen proiektuan ikusi du garatzen Azurmendik, besteak beste, Kant, Herder, Humbold edo Goetheren idazkiak sakonki azertu dituenen: periplo luze eta konplexu hori jarraituko dugu artikulu honetan, gure ahalaren neurrira.

Aldez aurretik aitortu behar baitugu zailtasunak izango ditugula Azurmendiren gogoetari buruz doitasuna erdies-teko, besteak beste, gure pentsalari handiaren tresneria epistemikoa ez dugulako beti segurtasunez menderatzen. Gabezia berberak baldintzatzen du darabildan estiloa: Azurmendiren hitzak ekarri nahi izan ditut zuzen-zuzenean, ia bitartekaritzarik gabe, haren aipuak jasoz, batzuetan, haren hitzekin nireak hertsatuz, gehienetan; beti ere, fidel-tasunaren mesedetan.

### **Kant: arrazoimenaren birakuntza eta konkretutasuna.**

Lehen modernitate cartesiarra, antisentsista, mekanizista eta estatikoa, agorturik —iraultza frantsesak berak, porrot egin zuen politikoki eta errestaurazioa ekarri—, bigarren modernitatearen aldarrikapena izan zen konkre-

tutasuna: arrazoi abstraktuaren aurka, arrazoi historikoa agertu zen<sup>4</sup>.

Bidegurutze erabakiezina zirudien: batetik, eredu cartesia- rrean oinarriturik, natur-zientziek natur-puska huts bezala definitu zuten giza aberea, eta, bestetik, haren ukapen muturrekoan, enpirismo ingelesak, zehazki, zentzuen menpeko jarri zuen arrazoia<sup>5</sup>. Kantek askatu zuen korapiloa: Ilustrazioari jarraituz eta, une berean, Ilustrazioa gaintuz, arrazoi cartesiarraren mugak erakutsi zituen, eta, sentsis- mo hutsean erori gabe, subjektuaren lehentasuna, subjek- tibismoa argudiatu zuen<sup>6</sup>. Antzeman egin zuen, epistemo- logikoki, ezer ezagutu ahal izateko giza zentzuak, inguru- bar jakin bati lotutako giza zentzu konkretuak behar dire- la erabili<sup>7</sup>. Sentipen subjektiboaren bidezko arrazoimen- aren iraulketa kontzeptual horretan, arrazionalitatearen paradigman aldaketa horretan<sup>8</sup>, subjektutasun moral eta intelektuala autonomizatzen du Kantek<sup>9</sup>.

Arrazoimenak gidari bat behar du bere ahalmen analitikoak destolestuko badu, baina gidari hori ezin da izan, batetik, enpirismo hutsa, eta, ezta ere, espekulazio platoniko sen- sista; aitzitik, lurrean eta lurrarekin behar du gidatu arra

---

4 Azurmendi, J.: *Volkgeist/Herri gogo. Ilustraziotik nazismora*, Elkar, Donostia, 2007, 131-132 or.

5 Azurmendi, J.: *Schopenhauer, Nietzsche, Spengler Miranderen pentsamenduan*, Susa, Donostia, 1989, 159 or.

6 Azurmendi, J.: *Volkgeist/Herri gogo. Ilustraziotik nazismora*, op. cit., 131-132; *Schopenhauer, Nietzsche, Spengler Miranderen pentsamenduan*, op. cit., 159 or.

7 Azurmendi, J.: *Volkgeist/Herri gogo. Ilustraziotik nazismora*, op. cit., 131-132 or.

8 Azurmendi, J.: "Kant eta Mendelssohn: arrazoimena ezbaian", Uztaro, 16, UEU, Bilbo, 1996, 60 or.

9 *Ibidem.*, 65 or.



zoimenak, konkretuari behar dio begiratu lurrean<sup>10</sup>. Hain zuzen, ezagutzaileak, buruan dauzkan moldeen bidez, lekuan leku, bertatik bertara ikasi dituen kategorien bidez lotzen ditu sentsu-datu fisikoak: hor aurkitu behar dira ezagutzaren oinarri aprioristikoak<sup>11</sup> berehala ikusiko dugunez, jarrita daude, horrekin, hizkuntzaren filosofia interesgune bilakatzeko lehen kakoak. Metodologikoki, subjektu arrazionalaren eta behar subjektiboen berraztertze bat eskatzen du honek diziplina-artekotasuna eta erlatibotasunaz aparte<sup>12</sup>.

Eredu organizista batetik gertuago, munduaren dinamikotasuna azpimarratu zen<sup>13</sup>, bestalde, eta paradigma berriak balio norabidetzaile berriak ekarri zituen: dibertsitatea, originaltasuna, askatasuna eta sormena, gizabanakoari begira ezezik, giza kategoriak eraikitzen dituzten giza kolektibitateei begira; munduaren ikuspegi dinamiko berriak, bestalde, beti jartzen ditu ibilian gizabanakoa bezala gizadia, bati egiten, osatzen, hemen eta orain eraldatzen, plangintza matematiko hertsu bati erantzun gabe<sup>14</sup>. Iraulteta epistemologiko horrek kultura beste optika baten bidez ikustea ekarri zuen: Kantek berak aitortzen du eta hala azpimarratu nahi du Azurmendik garai bateanarazo filosofiko eta zientifiko gorenak besterik ez zituela aintzat hartzen baina, hain zuzen, Rousseauk erakutsi ziola

---

10 *Ibidem.*, 62 or.

11 Azurmendi, J.: *Humboldt, hizkuntza eta pentsamendua*, UEU, Bilbo, 2007, 14 or.

12 Azurmendi, J.: "Kant eta Mendelssohn: arazoimena ezbaian", *op. cit.*, 65 or.

13 Azurmendi, J.: *Volkgeist/Herri gogo. Ilustraziotik nazismora*, *op. cit.*, 131-132 or.

14 Azurmendi, J.: *Volkgeist/Herri gogo. Ilustraziotik nazismora*, *op. cit.*, 133.

kultura, kultura egiaz gorena, herriarena dela, gizaki xehe-arena, eta han behar duela eduki oinarria filosofiak<sup>15</sup>. Giza kategoriak moldatzen dituen herri edo nazio kon-  
kretu hori, ohiturak, hizkuntza, lekuan lekuko ekonomia, politika, zientzia, literatura da geroago Goethek eta Humboldtek errepikatuko dutenez<sup>16</sup>.

### **Humboldt: hizkuntzaren filosofia berri bat**

Kategoria kantiarrei guztiz loturik garatzen du hizkuntzaren filosofia berri bat Humboldtek. Kanten arabera, hizkuntza errealitate espirituala da, espirituaren borroka bat, autokreazio bat, etengabekoa, historikoa, ni bat, nor-tasun jakin bat<sup>17</sup>. Oinarri horiek guztiz garatzen ditu Humboldtek, hain zuzen: pentsamenduak darabiltzan kategoriak hizkuntzaren kategoriak dira, alegia, hizkuntzaren bidez sinbolizatzen dugu mundua hizkuntzak egiten gaitu, agian<sup>18</sup>. Baina hizkuntza gertakari kolektiboa denez -ezin dugunez gure bakartasunean eraiki-, gero partekatu beharko duguna, hizkuntza bakoitzak, guztiz lotua sortu duen eta darabilen nazioaren bizitza guztiarekin, bere karakterea du: hizkuntza bat pertsonalitate burujabe bat da<sup>19</sup>. Nazioak, karaktereak eta hizkuntzak adostuta ikus-

---

15 Azurmendi, J.: "Victor Hugo Euskal Herrian", JAKIN, 36, Donostia, 1985, 150 or.16  
Azurmendi, J.: *Humboldt: Hizkuntza eta pentsamendua*, op. cit., 180-182 or.

17 Azurmendi, J.: *Humboldt: Hizkuntza eta pentsamendua*, op. cit., 198-199 or.

18 *Ibidem.*, 102-104 or. Planteiamendu honen oinarri kantiarrak ere agerian uzten ditu Azurmendik: ikus, *ibidem*, 22 or.; *Volkgeist/Herri gogoa, Ilustraziotik nazismora*, op. cit., 20-21, 28 or.

19 Azurmendi, J.: *Volkgeist/Herri gogoa, Ilustraziotik nazismora*, op. cit., 20-21 or.

ten ditu Humboldttek: hizkuntza bizitza historiko konkretuaren espresioa da, nazioaren arima, mundua ikusteko modu partikular bat<sup>20</sup>.

Ondorioz, hizkuntza ez da bakarrik gramatika bat, zerbait gehiago da: historia da, literatura, kankak, eskolak, auzo-hizkuntzak, politika, propaganda-mekanismoak, eliza..., unibertso oso bat da hizkuntza, Azurmendik zehazten duenez<sup>21</sup>. Eta bizitza historikoaren espresioa izaki, hizkuntza beti da kreatiboa, aktiboa<sup>22</sup>, historian garatzen da, gizarte bizitzan, kulturgintzan indartzen eta ahultzen da. Harreman holistikoki hori ezaguturik, hizkuntzaren filosofia berri hori txertatuko da, hain zuzen, Alemaniako Iraultza literarioaren muinean: Goethek bat egiten du Herder eta Humboldten gogoetekin<sup>23</sup>, balizko Alemania alemanaren gainean eraikiko da, oinarritz, sendoa izango bada.

Bigarren modernitatearekin, izugarri zabaltzen da hizkuntzekiko interesa, hizkuntzen praxira eramaten da ahalegin entziklopedista ilustratua: Babelgo dorrea ez da zigor bat izango, aberastasuna baizik; izan ere, hizkuntza bakarra proposatzea, frantsesa, demagun, Frantziako Iraultzaren hizkuntza politika terrorista justifikatzea, mundua izugarri pobretzea da, eta mundua aberastu nahi duenak hizkuntzen aberastasuna bermatzen ahalegindu behar du<sup>24</sup>. Bitxia

---

20 Azurmendi, J.: "Goethe: literatura nazional unibertsala", JAKIN, 111, Donostia, 1999, 79 or.; *Humboldt: Hizkuntza eta pentsamendua*, op. cit., 61, 62, 66 or.

21 Azurmendi, J.: *Humboldt: Hizkuntza eta pentsamendua*, op. cit., 415 or.

22 *Ibidem.*, 7, 63 or.

23 Azurmendi, J.: "Goethe: literatura nazional unibertsala", op. cit., 80 or.

24 Azurmendi, J.: *Humboldt: Hizkuntza eta pentsamendua*, op. cit., 137 or.

da, zentzu horretan, eta oso esanguratsua, herri bat eta literatura bat ezagutzeko, noraino ahalegindu ziren erro-mantiko ilustratuak hizkuntzak ikasten, originaletik irakurtzen: poliglota ziren eta auzo herri guztien kuxkuxeroak<sup>25</sup>. Hizkuntza, karakterea eta nazioa uztartzen dituen mugimendua, ordea, ez da eksklusiboki alemana: Azurmendik ongi frogatzen duenez, tradizio oso luzea du pentsamenduaren historian, Herodotorengana joan beharko genuke sustrai bila, edo, Santo Tomas Akinokoarengana, eta handik aurrera, ia unibertsaltiki aipatzen diren Locke, Condillacengana...<sup>26</sup>. Geroztik ere, asko izan dira Humboldtten filosofia onartu eta garatu duten autoreak. Eta, hari luze horrekin batera, gurean, Larresoro eta Txillardeg<sup>27</sup>. Eztabaida hau gaurkotzeko ahaleginari lotu zaio Azurmendi, hain zuzen, azken saiakeretan: Wundt, Vigotsky, Cassirer, Ortega, Wittgenstein, Davidson, Sapir, Whorf, Pinker, Fodor, Steiner, Chomsky..., aztertu ditu, beti bezala, gogoz eta grinaz, kritika-ahalmena zorrotz batzuetan oso nabarmen, Pinkerren kasuan, euskarri berriak bilatuz, gehienetan, berak bermatu nahi duen tesiarentzat<sup>28</sup>. Polemika ez baita amaitu gure artean: beti dago baten bat baino gehiago hizkuntzaren eta mundu-ikuskeraren arte-

---

25 Azurmendi, J.: "Hizkuntza, askatasunaren espazioa", in *Paulo Iztueta euskal pentsamenduaren eraikitzaile*, EHU, Bilbo, 2007, 99 or.

26 Azurmendi, J.: *Humboldt: Hizkuntza eta pentsamendua*, op. cit., 43, 175 or.

27 *Ibidem.*, 284-304 or.; "Hizkuntza, askatasunaren espazioa", op. cit.

28 Azurmendi, J.: *Humboldt: Hizkuntza eta pentsamendua*, op. cit., 352 or. eta hurrengoak; Azurmendi, J.: "Txillardegiren saioa: hastapen bila", *JAKIN*, 114, Donostia, 1999, 17-45 or.

ko harremana eta, ondorioz, hizkuntzak nazioa egiten duelako hipotesia, lau abertzale zororen dogma ideologikoa dela baieztatzea datorrena<sup>29</sup>. Polemikan aritu da beti Azurmendi, lapurtutakoaren, lausotutakoaren, manipulaturakoaren konkistan, polemikaren bidez konkistatzen saiatu da euskal kontzientziari egoki-tzen zaion kulturaren kontzeptu propioa<sup>30</sup>.

## **Euskararen nazioa**

Gerra-osteko abertzaletasun berriarekin indartuko den Euskal Herriari buruzko ulerkera batekin dator bat Azurmendi, zuzen-zuzen, nazioa eta hizkuntza integratzen dituen ikuspegi hori bere egiten duenean: Mirande, Krutwig, Txillardeggi, Iztueta...<sup>31</sup>.

Irlandako independentzia-prozesua aztertu zuenean, oso garbi adierazi zuen Azurmendik hizkuntzaren auzia: herri bat egin nahi izan zen Irlandan eta Errepublika bat besterik ez zen egin<sup>32</sup> jakina, Hegoaldean. Independentzia politikoa lortu zuen Irlandak, Estatu subirano bilakatu zen Eire 1937. urtean, baina burujabetza politikoa ez zen nahikoa izan hizkuntza nazionala iraurarazteko.

---

29 Azurmendi, J.: "Hizkuntza, askatasunaren espazioa", *op. cit.*, in 92-93 or. Zehazki, artikulua honetan Jon Sodupe eta Luis Haranburu Altunaz ari da.

30. Azurmendi, J.: "Karlos Santamariari omenalditxo gisa", JAKIN, 61, Arantzazu, 1990, 96 or.

31 Azurmendi, J.: "Irlanderaren paraderoa", JAKIN, 1, Arantzazu, 1977, 101, 103, 104, 108, 113 or.; *Schopenhauer, Nietzsche, Spengler Miranderen pentsamenduan*, *op. cit.*, 108 or.

32 Azurmendi, J.: "Irlanderaren paraderoa", *op. cit.*, 105 or.

Eire, Erin, Eirin ala Irlanda? Ba al daiteke Eire izan gabe izan Irlanda? Irlandarrek beti izango dute zalantza arantza hori bihotzean, bihotza duten bitartean behintzat.

Ondorioak erraz ateratzen ditu Azurmendik:

“Abertzaletasunak nazio hizkuntzan bertan aurkitu behar du haren balio naziogilea; eta berdin alderantziz: hizkuntzaren balio naziogilea abertzaletasunak aurkitu eta argitu behar du.”<sup>33</sup>

Zentzu horretan, Azurmendiri ez zaio euskara ikergai filologiko edo historiko soiltzat interesatzen. Aitzitik, bere gorabehera sozialean, bere bizileku naturalean, dituen hiztunen ahotan interesatzen zaio hizkuntza, hizkuntza konkretua, alegia: hiztuna bere hizkuntzarekin lotzen duena, hizkuntza bere hiztunarekin<sup>34</sup>. Izan ere, hizkuntzarena eta giza aberearena, historia bat eta bera baitira Azurmendirentzat, gizadiaren historia<sup>35</sup>: hizkuntza gutxitu zapaldu bat, herri gutxitu zapaldu batean baino ezin da gertatu, ezin da gertagarria izan. Historiak, ekonomiak, politikak... azaltzen du, halaber, hiztun gutxitu baten kontzientzia gutxitua<sup>36</sup>, mistifikazio metafisikorik gabe:

---

33 *Ibidem.*, 107 or.

34 Azurmendi, J.: “Diskurtso berria eta mintzaira zaharra”, JAKIN, 42-43, Donostia, 1987, 120-122.

35 *Ibidem.*, 124 or.

36 *Ibidem.*, 125 or.

“Giza kontzientzia hizkuntzarekin altxatzen da eta hizkuntzarekin erortzen da: kontzientziak ez baitu bere burua beste inon inediatukiago atzematen, errekonozitzen, hizkuntzaren ispiluan baino.”<sup>37</sup>

## **Herder: historia bere konkretutasunean**

Zientzia historikoen hastapena da, Herderrek inauguratu-ko duen historiagintza berri baten aroa<sup>38</sup>. Haustura, historia abstraktu unibertsalarekin egiten da, noski: historizismoak zalantzan jartzen du progresoaren eta historiaren azken helburu arrazional ilustratua<sup>39</sup>. Lehen historizismoak produktu historikotzat hartzen du giza fenomeno oro, erlatibotzat, alegia<sup>40</sup>. Horixe bera eskatzen du Humboldt-ek giza abere konkretu eta historikoaz pentsatu beharra baieztatzen duenean<sup>41</sup>.

Historia indibidualitateen gauzapean konkretua da<sup>42</sup>, indibidualitate sozial, kultural, nazional eta linguistikoena; gerta-karien harian, nortasuna eta originaltasuna azpimarratzen dira<sup>43</sup>.

Historia askotarikotasuna da, ondorioz, biziera ezberdinen aniztasun miragarria<sup>44</sup>. Izan ere, gure planetaren lurra-

---

37 *Ibidem*.

38 Azurmendi, J.: *Volksgeist/Herri gogoa. Ilustraziotik nazismora*, op. cit., 135 or.; “Goethe: literatura nazional unibertsala”, op. cit., 80 or.

39 *Ibidem*., 147 or.

40 Azurmendi, J.: *Volksgeist/Herri gogoa. Ilustraziotik nazismora*, op. cit., 270-271 or.

41 Azurmendi, J.: *Humboldt: Hizkuntza eta pentsamendua*, op. cit., 186 or.

42 *Ibidem*., 147 or.

43 Azurmendi, J.: “Goethe: literatura nazional unibertsala”, op. cit., 80 or.

44 Azurmendi, J.: “Humboldt eta historia: filosofia baten bila”, in *Wilhelm von Humboldt: Euskal Herria arakatzen*, 1801, RIEV, 48, I, Eusko Ikaskuntza, Donostia, 2003, 145 or.

zala herriz, artez, kulturaz ugaria da; originaltasunez betea gauzatzen du historia<sup>45</sup>. Herderren hitzak ekarriz, historia herrien bizitza da, kultur bizitza ez politika, edo gutxiago politika<sup>46</sup>.

Ilustrazio frantsesaren despotismoa errefusatzeko ari da Herder: politikoki, ez du handinahi nazionalen legitimazio-bide bilakatu nahi historia; historia ezagutu nahi du, historia ezagutu nahi ez duen, historiari lezioak eman nahi dizkion Ilustrazioak ez bezala<sup>47</sup>.

Ongi ulertzen da ikuspegi horretatik zergatik jartzen den Herder lehenago Rousseau bezalaxe, geroxeago Humboldt bezalaxe herriaren gainean inposatzen ari diren Estatu modernoek aurka: Estatu modernoek, botere absolutista modernoek, zapaldu eta ukatu egiten dituzte herriak; izugarri detestagarria zitzaion, konkista-nahia ez ezik, zentralismo eta hertsadura oro<sup>48</sup>. Naturak nazioak sortzen ditu, ez Estatuak; Estatuaren historia inperioa da, bortizkeria, eraso; areago, deshumanizazioa, makina bihurtzen gaituen heinean<sup>49</sup>. Arrazoi berberetatik arbuia-tzen ditu Herderrek despota ilustratuak eta intelektual estatuzaleak, herriaren kultura gutxiesten dutelako, hain zuzen<sup>50</sup>.

---

45 Azurmendi, J.: *Volksggeist/Herri gogoa. Ilustraziotik nazismora*, op. cit., 272 or.

46 *Ibidem.*, 107 or.

47 *Ibidem.*, 270-271 or.

48 *Ibidem.*, 123 or.

49 *Ibidem.* Humboldt: *Hizkuntza eta pentsamendua*, op. cit., 179 or.

50 *Ibidem.*, 179 or.



## Herder: kulturen historia

Herderren historizismoak, hain zuzen, kulturen historia egin beharra aldarrikatzen du: erakundeen historia alboraturik, eliteen historia alboraturik, herri xehea, biziera espontaneoak, kantuak, erritmoak, dantzak, ipuinak, poesia, mitologia, jakituria familiarra, komunitate-kontzientzia..., hasten da aztertzen<sup>51</sup>. Kultura ez da klase batzuen pribilegioa, herritar xehea da kultura egiten duena<sup>52</sup>.

Optika berri horretatik aurkikuntza txundigarriak egiten ditu. Israel herri nomada eta zarpailean poesia paregabea antzematen du Herderrek, nazio beregaina erakusten duen beste mundu-ikuskera bat<sup>53</sup>. Poesia nordikoa guztiz originala iruditzen zaio, halaber, esaterako, alemanak ordezkatu ezin dituen hizkuntzetan mintzo diren nekazari estoniar eta letoniarren ahoetan entzuten duenean<sup>54</sup>. Kantek bezala, errespetua eskatzen du Prusiaren menpean dauden hizkuntza guztientzat<sup>55</sup>. Grezia eta kultura klasikoa arketipiko bihurtuko da; Egipton, zelden kulturen, herri eskoziarren..., munduan ez dira amaitzen altxorrak<sup>56</sup>.

Sentiberatasun erromantiko berriak ordura arte ireki gabe zegoen optika abiarazten du bat-batean: bertako hiz-

---

51 Azurmendi, J.: *Volksgeist/Herri gogoia. Ilustraziotik nazismora*, op. cit., 111, 136 or.

52 *Ibidem.*, 111 or.

53 Azurmendi, J.: *Humboldt: Hizkuntza eta pentsamendua*, op. cit., 332 or.

54 Azurmendi, J.: *Volksgeist/Herri gogoia. Ilustraziotik nazismora*, op. cit., 97-98 or.; *Humboldt: Hizkuntza eta pentsamendua*, op. cit., 332 or.

55 Azurmendi, J.: *Volksgeist/Herri gogoia. Ilustraziotik nazismora*, op. cit., 121 or.

56 *Ibidem.*, 97-98 or.

kuntzak jartzen dira lehen planoan; foru-eskubideetan, ohiturazko eskubideetan antzematen da zuzentasuna; ahozko literatura, herri-poesia, folklorea, kantuak biltzen dira Ingalaterran, Alemanian, Italian, Frantzian...; nekazal herriari, herri xeheari hasten zaio begira<sup>57</sup>.

Euskal Herriarentzat ere, abagune interesgarria irekiko du bigarren modernitateak, Ez bakarrik Europa guri begira jarriko delako, ezpada guri begira jarriko den Europari begira jarriko garelako: R. M. Azkue, J. K. Gerra, Aita Donosti, Barandiaran..., folklore-zaleak, hizkuntzalariak, etnologoak..., herriaren jeinuaren obrak ikertzen hasten dira<sup>58</sup>; epos nazionala islatuko duen poesia batekin egiten da amets gerra-aurreko Pizkundean, Homero, Sofokles, Euripides, Platon, Virgilio, Ovidio..., klasikoak itzultzen dira<sup>59</sup>...

## **Historia, memoria**

Euskaldunok gure historia berreskuratzeari ekiten diogu bigarren modernitatean. Azurmendiren hitzekin esateko, kontuan hartu behar da herri bat, neurri batean, bere historia ere badela<sup>60</sup>:

Nik esango nuke herri bat batez ere bere historia eta bere utopia dela.

---

57 *Ibidem.*, 72-73 or.

58 Azurmendi, J.: "Orixe-ren inguruko garai-giroaz", *JAKIN*, 39, 1986, 131 or.

59 *Ibidem.*, 124-133 or.

60 Azurmendi, J.: *Oraingo gazte eroak*, Enbolike, Irun, 1998, 115 or.

Baina hori ez da herri bat bakarrik. Pertsona edo nortasun gisa ulertzen dugun dena da holako zerbait. Ni neu zer naiz -zu, edozein-, nire oroipena baino; nire oroipenean betiere errealak diren gurasoak, anai-arrebak, umetako kale bazterrak, bidaiak, herria; eskola, negarrak, lotsak, pozak, eraldaturik nire golkoan jarraitzen duten umetako maitasun eta higuintasunak... Nire barruan bizi den memoria hori historia naiz ni, horiek dagite nire nortasuna (...). Memoria eta ametsa. Nortasuna memoria da, hori jada Leibnizek ezarri zuen. Kontzientzia dagoen tokian utopia dago, etorkizunaren proiektua<sup>61</sup>.

Premia bizia dugu, bereziki besteek irakurri digutelako gure historia:

Historia, denok badakigu, garaileek idatzi dute; gero historia hori garaituek berek sinesten dutela, tristeena hori da, badakigu. Ez daukagula, ordea, zergatik sinetsi, euskaldunok badakigu aspaldi hori ere, edo jakin beharko genuke.”<sup>62</sup>

Eta historia arrotz horretan, asko dira nabarmentasun eta hutsune interesatuak. Euskarak jasan duen biolentzia eta genozidioa, esaterako, ez da aintzat hartzen erdararen mundu ofizialean:

Miseria da gurea: gure informazio eta memoria historikotan, historialari ‘espainol’engandik dependitzen dugu (‘akademikoak’ horiek dira); horiek ez dute euskara jakiten; beraz, euskararen kontua ez dute ikertzen; gero, kontu hori ez da esistitzen batere.<sup>63</sup>

---

61 *Ibidem*.

62 Azurmendi, J.: “Victor Hugoren etxean Pasaian”, JAKIN, 138, Donostia, 2003

63 Azurmendi, J.: “Joan Mari Torrealda: 25 urte JAKIN-en zuzendari”, JAKIN, 102, Donostia, 1997, 94.

Polemika sortzen denean ere, artean oso berria delako oroimen eta esperientzia hori, dokumentuak daudelako, minimizatu egiten da<sup>64</sup>. Psikologikotu egiten da: euskaldunak dauka, azken batean, euskararen abandonu ezaxolatiaren ardura; hizkuntza-gutxiespenak bere historia politiko eta kulturala edukiko ez balu bezala<sup>65</sup>.

Memoria historikoa berreskuratzearren ez du lan makala egin Azurmendik. Konpromiso hori bere bizkar hartu duela aitortzen dio Azurmendik Salaberri gogaideari, agur hunkitu batean, eginbehar sendagarri hau behin eta berriro aldarrikatu izana eskerturik:

Geure iraganarekin behar dugu solastatu, eztabaidatu. Tradizioa ikasten joatea da, aurrekoengandik ikasten eta desikasten. Desikasten ere bai. Iraganik ez duenak, konfrontatu eta kuestionatzeko, etorkizunik ere ez du berak egiteko.<sup>66</sup>

## **Nazionalismo kosmopolita**

Nazionalismo kosmopolita esan dugu, bai, ongi irakurri duzu: Azurmendirekin deskubritzen ari garen kultura politiko erromantiko honetan ez da kontraesan bat; aitzitik, kosmopolita izateko forma bakarra da inferiorrik bultzatu ezin duten, inferiorrik bultzatu nahi ez duten kultura naturalen arteko elkartasuna.

---

64 *Ibidem*.

65 *Ibidem*.

66 Azurmendi, J.: *Etienne Salaberri II. Bere pentsamenduaz (1903-2003)*, EGAN, Sevilla, 2003, 123 or.

Izan ere, kulturen inguruko kezka moderno honekin oso lotua, nazionalismo kultural humanitario bat sortzen da, bake eta askatasun zalea, ez-politikoa exijentziak badituen arren politikarentzat: herri handi nahiz txikien berdintasuna, anaitasun unibertsala eta bakezaletasuna biltzen ditu bere doktrinan<sup>67</sup>. Nazionalismo ez oldarkor bat, identitatearen defentsa egiten duena<sup>68</sup>. Irudikatzen den mundu berrian komunitate bakoitzak bere identitate kulturala bake-bakean lantzen du, besteekiko tolerantzian<sup>69</sup>.

Abertzaleak ez baitu bakarrik herria pentsatzen, gizadi osoa pentsatzen du, gizadi osoarekin konprometitzen da bere abertzaletasunetik<sup>70</sup>. Nazionalistak baino areago, unibertsalista gurbilak dira erromantiko alemanak, filosofikoki eta ideologikoki, kosmopolita ilustratuak<sup>71</sup>. Nabari zaio Azurmendiri aldeko duela aire hori.

Kosmopolitismo kantiarra, herrien arteko bakea ekarriko duena, hain zuzen, ezin da eraiki, Estatuaren despotismoari eta espantsio-nahaiari erantzuten dion hizkuntza eta legeria uniforme baten bidez; aitzitik, kosmopolitismoa hizkuntza eta herri ezberdinek osatua etorriko da, noiz-bait etorriko bada<sup>72</sup>. Kantek lituanieraren eta polonieraren alde egiten du

Prusian<sup>73</sup>; muga politikoak eta muga kulturalak, muga

---

67 Azurmendi, J.: *Volkgeist/Herri gogoia. Ilustraziotik nazismora, op. cit.*, 92 or.

68 *Ibidem.*, 127 or.

69 *Ibidem.*, 128 or.

70 Azurmendi, J.: *Humboldt: Hizkuntza eta pentsamendua, op. cit.*, 185 or.

71 Azurmendi, J.: *Volkgeist/Herri gogoia. Ilustraziotik nazismora, op. cit.*, 82 or.

72 *Ibidem.*, 182 or.

73 *Ibidem.*, 182-184 or.

nazionalak eta muga estatalak bat ez datozela iragartzen du, gutxienez.

Kanten ostean Herderrekin, Humboldtekin, herriez galdetzea da goiburu kantianoari fidel izatea: jendeaz, kulturaz, etxegintzaz, janariaz, janzkeraz, ohiturez, lanerako moldez interesatzea<sup>74</sup>. Antropologia filosofikoaren ikuspegi eskatzen du Azurmendik, mundura, munduak dauzkan arazoetara gerturatzeko: gizakia esentzialki arrazoimena- rekin definitzeari utzi behar zaio, arrazoimena historiaz kanpo ulertzeari utzi behar zaio, denborarik gabeko esentzien paradigmatik arriskuak besterik ez baitauzka<sup>75</sup>.

Agerian uzten du Azurmendik, beti ere euskal nazionalismoa arbuiatu nahi duten nazionalista espainolekin hikamika bizian, Ilustrazio erromantikoa ezin dela desatxiki Ilustrazioaren filosofiatik, Kanten lorratz aratza lausotuko ez bada, behintzat. Kanten herentziatzat hartu behar dira, ezagutza, zientzia, historia, artea..., subjektutik harago eraikitzeko ahalegin erromantikoak, filosofian, literaturan, artean...; Humboldtek bultzatu zuen hizkuntzaren filosofia berria bera ahalegin horren aplikazioa besterik ez da, Kanten arrazoimen unibertsal abstraktua, historiko, bizi, askotariko bilakatzen duen heinean<sup>76</sup>.

---

74 *Ibidem*.

75 Azurmendi, J.: "Antropologia filosofikoa", in, Azurmendi/Bengoetxea/Garmendia/Soto, *Filosofiko Gida*, UEU, Bilbo, 2004, 278 or.

76. Azurmendi, J.: *Humboldt: Hizkuntza eta pentsamendua*, *op. cit* ; 22 or

## Kultura baten jaiotza Alemanian

Baina Alemanian, nazio gutxituekiko hain sentiberatasun handia erakusten duen Alemania ilustratu eta erromantikoan, Euskal Herriarentzat ispilu izan daitekeen eredu bat ere antzematen du Azurmendik: horrela ulertzen da, ia ezerezetik hasita, kultura alemana nazioa politikoki antolatatu baino lehen ere puntako kultura bihurtuko zuen ahalgina zehaztasunez aztertzeko grina, konstante agertzea gure pentsalariaren urtez urteko saiogintzan.

Ez zen batere erraza izan hasieran: XVIII-XIX. mendeko aleman kulturgileak hizkuntza garatu gabeko batean hasten dira idazten. Soziolinguistikoki, Goethek eta Schillerrek salatzen dutenez, hizkuntza alemanaren inguruan erabatekoa zen utzikeria, gobernuaren eta klase gorenaren aldetik: Gorteetan, nobleen artean eta etxe burgesetan frantsesa zen nagusi; hirietako teatroan, sozietatean, irakaskuntzan eta biziera publiko ofizial guztian, frantsesa; Zientzia Akademietan, frantsesa edo latina: Leibnizek frantsesez idatzi du bere obra zientifiko eta filosofiko handia; alemana hizkuntza barbarotzat hartzen da<sup>77</sup>; eskoletan, zigortu egiten dituzte alemanez mintzo diren haurrak<sup>78</sup>. Kantek *Arrazoi hutsaren kritika* alemanez publikatu duenean nolanhiko kritikak jaso ditu, ez delako tutik

---

77 Azurmendi, J.: *Humboldt, hizkuntza eta pentsamendua*, op. cit., 22, 202 or.; *Volksgeist/Herri gogoa, Ilustraziotik nazismora*, op. cit., 27 or.; Azurmendi, J.: "Goethe: literatura nazional unibertsala", op. cit., 74 or.

78 Azurmendi, J.: "Goethe: literatura nazional unibertsala", op. cit., 1999, 74 or.

ere ulertzen, Alemaniaren prestigioa atzerrian hobetzeko aukera paregabea galdu delako<sup>79</sup>...

Kultur eta hizkuntza gutxipenak dakarren ahultasunetik abiatu ziren, gainera, pertsonalki, ezgaitasun funtzional sakon batetik: Schiller zaharrak zailtasunak ditu, frantsesera jo gabe, elkarrizketa bat alemanez osatzeko; Kantek, aro prekritikoan, latinez argitaratu du hainbat idazki garrantzitsu eta, bere apunte pribatuetan, gai filosofiko eta teknikoekin beti erabili du latina; Goethe idazle frantsesa izateko hasi da idazten; Humboldték bere anaiari frantsez idazten dizkio gutunak, Parisen<sup>80</sup>.

Baina, poliki-poliki, eragozpen guztiak gailentzen dituzte. Humboldtén kasuan antzeman daitekeenez, batetik, kontzientzia mailako arrazoiek bultzatzen dituzte eragozpenen aurrean ez etsitzera; bestetik, sendotu eta gogobete egiten dira beren ikerketetan lortzen dituzten emaitzekin: ulertzen dute alemana ez dela frantsesa baino gutxiago, ez dagoela hizkuntza ez-zibilizaturik, izan ere, hizkuntza guztiek baitute forma linguistiko oso-oso, gai baitira den-dena adierazteko<sup>81</sup>.

Historiak ere eramaten ditu hizkuntzaren euslekura: hizkuntzaz kanpo, ez dute alemanak izateko beste oinarririk.

---

79 Azurmendi, J.: "Hitzaurrea", in Kant, *Prolegomenoak*, Klasikoak, Bilbo, 1991, 9 or.

80 Azurmendi, J.: *Humboldt, hizkuntza eta pentsamendua*, op. cit., 23 or.; "Hitzaurrea"» ; op. cit., 8 or.

81 Azurmendi, J.: "Euskara, XIX. mendeko aldizkari alemana", JAKIN, 7, Arantzazu, 1978, 162-163 or.



Hirurehun Estatu aleman dago, gorteak frantsesez mintzo dira, Frantziakoa dute kultura...; baina alemanak egon badaude eta hizkuntza alemana errealitate bat da, beraz, izan, denez, nortasun nazionalak dituen euskarri horixetan indartzen dira: hizkuntza, literatura, tradizioa, izpiritua<sup>82</sup>, Azurmendik jasotzen duen Jakob Grimm-en baieztapenean laburbiltzen denez<sup>83</sup>:

Zer daukagu guk komunean gure hizkuntza eta literatura ez badira?

Eta, ekinaren ekinez, lortu zuten kultura indartsu bat, behe-behetik eraikia. Ez zuten izan errege mezenasik, ez Parisik. Ez zuten izan goitik inolako instituzioen laguntzarik; idazle eta profesore apal askoren lana izan zen, herriaren indarrak bakarrik eutsia; garai hartako intelektualeria eta unibertsitate-jendeak jatorriz kalerri eta burgotar txikiak baino ez baitziren, eremu sozialean marjinaziotik gertu zegoen multzo probintziano hutsa: profesoreak, oso gaizki ordainduak, gose eta miseria gorrian bizi ziren; estudianteak, etorki apalekoak ekonomikoki; idazleak, judu errariak, tipo erdi-zoro, erdi-abenturazaleak<sup>84</sup>. Frantzian eta Espainian dirulaguntza publikoen bidez egiten badituzte hiztegiak, Alemanian herriak bultzatzen du alemanezko hiztegia<sup>85</sup>. Gureari buruz ere ari da, zeharka, Azurmendi.

---

82 Azurmendi, J.: *Volkgeist/Herri gogoia. Ilustraziotik nazismora*, op. cit., 58 or.

83 Jakob Grimm, in *ibidem*.

84 *Ibidem.*, 76 or.; "Goethe: literatura nazional unibertsala", op. cit., 75 or.

85 Azurmendi, J.: *Volkgeist/Herri gogoia, Ilustraziotik nazismora*, op. cit., 77 or.

Emaitzak ez ziren nolanhikoak izan, bi epe mugatzeraino iritsi ziren, bi Modernitate, filosofiaren arloan ongi nabaritzen denez:

Lehengo ziklo horretan apenas egon da autore alemanik, eta dagoenak Leibniz frantsesez edo latinez idazten du ia beti: alemana oraindik ez da “kultur hizkuntza” Europan. Bigarren zikloan, ostera, zeharo nagusituko dira pentsalari alemanak (apenas dago autore ez alemanik aro honetan), filosofiaren historietan bata besteari bultzaka iladan etorri ohi baitira haien izen erraldoiak: Kant, Fichte, Hegel, Schopenhauer, Feuerbach, Marx...<sup>86</sup>

### **Talde-lana**

Pizkunde alemana ahalbidetu zuen beste klabe bat ere azpimarratzen du Azurmendik: talde-lana. Autore gazteak, Herder, Goethe, Schiller..., beti daude harremanean; Goetheri berehala hurbildu zaizkio gazte abertzaleak<sup>87</sup>. Proiektu partekatu batek baino bultzatu ezin duen gertakaria da: azken helburuaren zentzu kolektiboak indibidualkeria uxatzen du. Jarduera estrategiko honen garrantziaz ohartarazita zegoen Azurmendi aspaldi: ez du nolanhia ahanzten Arizmendiarrietaren filosofia. Beste inguruabar batean ere, beste une fundazional bati begiratzen dionean errealismo sozialistari buruz kritikak inoiz ezkutatu ez

---

86 Azurmendi, J.: “Metafisikatik historiara”, in Leibniz, G.W.: *Metafisikako diskurtsoak*, JAKIN Irakurgaiak, Donostia, 1997, 21-22 or.

87 Azurmendi, J.: “Goethe: literatura nazional unibertuala”, *op. cit.*, 71, 75, 77 or.

dituen arren, talde-lana garatzeko ahalmen berbera mires-  
ten die Sobiet Batasuneko idazle eta sortzaile komunistei:  
Ta esperientzia sobietarra guztiz baliosoa da hontarako.  
Kritika konkretuaz beste, makina bat zer ikasi konkretori-  
k ere balegoke. Idazle, intelektual eta artisten eta herri-  
ren batasun arloan, batik bat, eredu aparta da. Idazle eta  
artisten elkargoei buruz ere, ba genuke non ikasi franko.  
Inola elkartu ezinik gabiltzanok. Produkzio literarioa ta  
politikazaleen ekintza elkarrekin eratzeko, ahokatzeko, ez  
gutiago, idazle bakoitza bere aldetik dabilen hontan, e.a.<sup>88</sup>  
Badaki Azurmendik, XIX. mendean Euskal Pizkundea, eus-  
kara gutxiuaren tamainako euskal pizkundea, etorri zene-  
an, bere lorpen eta porrotekin, elkarlanari esker iritsi zela:  
Lauaxetak eragiten dio Orixeri Mistralen *Mireio* itzul  
dezan; Aitzolek agintzen dio “Euskaldunak” euskal  
poema<sup>89</sup>...

Geroago, gerra-ostean ere, 50. urteetatik aurrera euskara  
kultur mailara jaso zuen belaunaldiak berak taldetasuna  
izan zuen euskarri<sup>90</sup>, elkar-eragintza sistema eraginkor  
baten barruan egin zuen lan<sup>91</sup>.

Euskal kulturaren taldetasunak izan duen garrantzia ahazte-  
ak, gainera, historia oker ulertzeko arriskua dakar. Hori  
egin da maiz, periodoak mugatuz, autore bakartu batzuk  
goratuz, literaturaren historiak proposatu direnean:

---

88 Azurmendi, J.: *Artea eta gizartea*, Kriseilu, Donostia, 1978, 88 or.

89 Azurmendi, J.: “Euskal literaturaren orainaz eta geroz”, in Askoren Artean, *Euskal linguistika eta literatura: bide berriak*, Deustuko Unibertsitateko Argitarazioak, Bilbo, 1981, 125, 127, 138 or.

90 *Ibidem*, 419 or.

91 *Ibidem*, 426 or.

Behin eta berriro, periodorik erakutsi baino gehiago, autore batzuei aldi osoa eman, egiten dela. Lizardi, Aresti... Jarraipen edo oposizio pertsonal batzuk. Pertsonaia bakan batzuk alegia, historiarik baino gehiago. Orduan, bigarren mailakoak irrealtasunera eta isiltasunera kondenatuta uzten ditugu, existentzia autonomorik ere gabe. Modu honetan gure handitxo bakarrak beharbada hobeto nabarmentzen ditugu, baina gure historiatxo pobreak lehen den baino ere monokultibisten baratza pobregoa dirudi.<sup>92</sup>

### **Pizkunde literarioa Alemanian**

Kultur indarketaren erakusgarririk ederrena izango da, zehazki, Alemaniako alemanaren pizkunde literarioa: Lessing, Goethe eta Schillerrek gailur literario gorenera jasotzen dute hizkuntza erdeinatu<sup>93</sup>. Mirari bat gertatu da Alemanian, pentsalariek eta literaturagileek bultzatu dutena, hain zuzen, laguntasun eta anaitasun giro batean, eztanda distiratsu bat Baltikotik Suitzaraino, alor guztietan fruitu harrigarriak lortzen dituen<sup>94</sup>. Helburu hori garbi zeukaten hasiera-hasieratik, Azurmendik berea ere baden literaturaren kezka adierazteko Schlegel-en hitz batzuetan jasotzen duenez:

---

92 Azurmendi, J.: "Josu Landaren Gerraondoko poesiaren historia", JAKIN, 29, 1983, 171 or.

93 Azurmendi, J.: *Humboldt, hizkuntza eta pentsamendua*, op. cit., 23 or.

94 *Ibidem.*, 22, 202 or.

Nazio garrantzitsu eta burujabe orok literatura bat izateko eskubidea du, hala hitz egin badaiteke, hau da, hizkuntza-kultura autonomo bat, hori gabe ezingo baitu inoiz eduki kultura espiritual propioa... Gizaki aditu orok ahalagindu beharko luke... orokorki ezagutzen, baina ez azalazalek, bere aberriaren historia, hizkuntza eta literatura.<sup>95</sup>

Ereduak ere izan dituzte: klasiko grekoak. Arte klasikoa erabakigarria izan da kultura alemanaren garabidean eta, halaber, Goethek aitortzen duenez, iraultza literario alemanean<sup>96</sup>. Homero, Sofokles, Pindaro... estudiatzen dituzte, ez liburuak edo autoreak, baizik eta nazio bat bere osotasunean, haren aiurria, haien nortasuna, modu partikularrean, arte, poesia, drama, erlijio eta moral hain aberatsa sortu dituen<sup>97</sup>. Ez da haiena kopia nahi, ordea, haien beren baitatik egin zutena egin nahi da, alemanen baitatik Alemanian: ez dute greko bilakatu nahi, aleman nahi dute izan, iraun<sup>98</sup>. Berekitasun nazionala baita arte ororen hasiera, Goetherentzat; areago, pertsonaia banako sortzailearen nortasunean herri-karakterea manifestatzen da Herderentzat.<sup>99</sup>

Literaturaren esparrua ere aldatu egiten da: herriaren oroimenean gorde diren balada zein ipuinak aztertzen eta ontzen dira, Grimm anaien eredura; literatura ez da jaure-

---

95 Schlegel, F., in Azurmendi, J.: *Humboldt, hizkuntza eta pentsamendua*, op. cit., 301 or.

96 Azurmendi, J.: "Goethe: literatura nazional unibertala", op. cit., 66 or.

97 Azurmendi, J.: *Volkgeist/Herri gogoa, Ilustraziotik nazismora*, op. cit., 32 or.

98 *Ibidem.*, 61 or.

99 Azurmendi, J.: *Volkgeist/Herri gogoa, Ilustraziotik nazismora*, 61 or.

gi eta erresidentzia dotoreetan aurkitzen, aitzitik, herritar xumeen supazterretan: handizuek, goi mailek, ez dute hori bizi, ez sortu, ez gorde, herriak baizik, ezikasiaren ahoak, bizi duelako, egunero bersotzen duelako, beti berdin eta beti bestelako, beti berri, beti zahar, interpretatzen du Azurmendik<sup>100</sup>.

Literatura baino lehenago, ordea, hizkuntza bera itzarri da, bere baitan gordeta zuen autokreatibitate guztia hedatu du, Azurmendik darabilen metafora bat ekarriz, udaberri oparo batean<sup>101</sup>. Humboldték ongi asko dakienez bere herriaren esperientzian antzeman baitu, literaturak izugarritzko garrantzia du hizkuntzen eraldaketan eta osaketan: hizkuntzaren karakterea eta literatura, orokorki artea eta sorkuntza izpirituala, elkarren ondoan garatzen dira<sup>102</sup>. Goethe ere hizkuntza literario bat sortu beharraz kezkatzen da hasieratik: herri bakoitzak bere baitatik eta bere gisara sortu behar du literatura propioa<sup>103</sup>.

Azurmendik ere badaki; horregatik interesatu zaio beti euskal literatura, gerra-aurrekoa eta gerra-ostekoa, lehenik, gaur-gaurko literatura gaztea, orobat. Azurmendik ere jakin du bere saiakeretatik estilo bat aurkitzen euskararentzat.

Kultura, hizkuntza eta literatura adosten dituen mugimendua ez da, ordea, eksklusiboki alemana: Frantzian Condillac eta Madame de Staël aipatzen ditu Azurmendik eta

---

100 *Ibidem.*, 77 or.

101 Azurmendi, J.: *Humboldt, hizkuntza eta pentsamendua*, op. cit., 22, 202 or.

102 Azurmendi, J.: "Euskara, XIX. mendeko aldizkari alemana", op. cit., 173 or; *Volksgeist/Herri gogoa, Ilustraziotik nazismora*, op. cit., 29 or.

103 Azurmendi, J.: *Volksgeist/Herri gogoa, Ilustraziotik nazismora*, op. cit., 29 or.

Ingalaterran Taine batekin, adibidez errepikatu egiten dira planteamendu berberak<sup>104</sup>.

## **Goethe: literatura aleman unibertala**

Literatura alemanaren iraultza orokorraren barruan Azurmendik beste eredu bat jartzen digu Goetherekin, ereduak jarri beharrez.

Leipzigen, Paris txiki batean jaioa, frantsesaren eraginpean ematen du haurtzaroa: Unibertaltatean, kultura zein literaturan gustu eta eleganzia frantsesa nagusitzen da eta, izan, berak ere idazle frantsesa izateko ametsa burutu nahiko du<sup>105</sup>. Estrasburgera doanean ordea, zuzenbidea ikastera, hiri *frantses* horretan izpiritu alemana eta arte alemana aurkitzen ditu; Estrasburgeko katedraletan antzeman du, zehazki, zein den egiazko arte alemana<sup>106</sup>. Alsazia *frantsesean* kultura alemanean sakontzen du: herriz herri hasten da kantak eta ahozko literatura biltzen, festetan lekuko izaten<sup>107</sup>. Erreakzionatu egiten du, bere lagunekin batera, frantsesaren nagusitasunaren aurka<sup>108</sup>. Aurrerantzean, Alemaniako berpizkundearekin egiten du bat, besteak beste, *Sturm und Drang* mugimenduaren baitan eskuhartuz: entusiasmoz hartzen du Rousseau; Voltaire, ordea, gaitzetsi egiten du<sup>109</sup>.

---

104 *Ibidem.*, 33 or.

105 Azurmendi, J.: "Goethe: literatura nazional unibertala", *op. cit.*, 63-64 or.

106 *Ibidem.*, 64, 67 or.

107 *Ibidem.*, 65-66 or.

108 *Ibidem.*, 64 or.

109 *Ibidem.*, 65-66 or.

Goethek Herderrengandik ikasi du herri bakoitzak bere hizkuntza, bere aiurria duela, historiaren esperientziatik sortzen duela bere artea: beraz, Alemaniak bere izpirituari dagokion obra sortu beharko du, kreaizio balizkorik izango badu, ez bada izango besteen imitazio margula<sup>110</sup>. Teatro alemana nahi du, alemana gaietan eta alemana forman, eredu frantsesetik libre, bizitza eta natura alemanak islatuko dituena<sup>111</sup>. Tragedia frantsesa parodia hutsa iruditzen zaio: tragedia grekoen gorentasunetik ikasi behar da<sup>112</sup>. Shakespeare ikusten du eredu eta ibilbide: Shakespearek errebelatu dio egiazko teatro alemanak nolakoa behar duen izan<sup>113</sup>. Shakespeare eta arte gotikoa, hain zuzen, ilustratu frantses-zaleek barbarotzat zeukaten gutzia goستن du Goethek<sup>114</sup>. Lessing-ek drama alemana berritzen duenean, esaterako, ilustratuegia, arrazionalogia iruditzen zaio<sup>115</sup>.

Poesiaren indarra azpimarratzen du, bestalde: herrien bizitzan hain esperientzia bizia dena berreskuratzen nahi du; forma poetiko kultistak utziz, hizkuntza arrunt eta beroa, esaera herrikoia hartu berriro, poesia nazionalaren oinarritzat<sup>116</sup>.

Aleman literarioa sortzen du Goethek irizpide horiekin, bere gogora, filologoaren axolarik gabe, bere anakronismo

---

110 *Ibidem*.

111 *Ibidem.*, 68 or.

112 *Ibidem*.

113 *Ibidem.*, 67 or.

114 *Ibidem*.

115 *Ibidem.*, 66 or

116 *Ibidem.*, 72 or. ||



eta guzti<sup>117</sup>. Ahozko hizkera jasotzen du, hiztegiak sortu, gramatikak bultzatu: hizkuntza lantzea literatura lantzea dela ikusten du, eta alderantziz; hizkuntza landuz, literatura landuz, nazioa jasotzen dela badaki, alemanaren herria beste nazioen parean jar daitekeela Azurmendik berak ere ongi dakienez<sup>118</sup>. Euskaldunok batuarekin eta euskalkiekin ditugun kezken antzekoak ditu<sup>119</sup>. Itzulpenak bultzatzen ditu, hain arrakasta handiz, alemana itzulpen gehien egiten duen hizkuntza bilakatzen dela urte batzuen buruan; itzulpenekin, bestalde, literatura arrotzen ikerketak ahalbidetzen dira<sup>120</sup>.

Oso denbora laburrean, mundua Alemaniari begira jarri da: frantsesak beraiek alemanak imitatzen hasi dira<sup>121</sup>. Literatura unibertsalaren kontzeptua proposatzeko prest dago Goethe: literatura unibertsala, literatura nazional-etatik sortzen da, kalitatezko literatura lokaletatik sortzen da; literatura unibertsala, literatura nazional unibertsala besterik ezin da izan<sup>122</sup>. Goethek esperientzia konkretua, bizitza-exigentzia du beti gogoan, abstraktuari ihes egin nahi dio beti<sup>123</sup>. Goethe unibertsalista txit energikoki alemana da, ondorioztatzen du Azurmendik, guztiz naziona-

---

117 *Ibidem.*, 74 or.

118 *Ibidem.*, 81 or.

119 *Ibidem.* Ikus, euskara batuaren hasieran egon ziren garbizaleen eta mordoilo-zaleen arteko gatazken kronika interesgarri bat, JAKIN aldizkariaren sorreran girotua, eta bertan Joseba Intsaustik izan zuen protagonismoa in, Azurmendi, J.: "Hizkuntz ereduaren eztabaida", JAKIN, 158, Donostia, 2007, 77-120 or.

120 Azurmendi, J.: "Goethe: literatura nazional unibertsala", *op. cit.*, 84-85 or.

121 *Ibidem.*, 93 or.

122 *Ibidem.*, 63, 96, 99 or.

123 *Ibidem.*, 95 or

la<sup>124</sup>. Unibertsala eta lokala, unibertsala eta nazionala guztiz uztarturik, kontraesanik gabe, kosmopolitismoaren arragoan.

## Zer dugu Renanen aurka?

Goethek Alsazian aurkitu zuen nortasun alemanarekin kontraste bizia da Renan: Alsaziaren konkista frantsesa legitimatu nahi duenean<sup>125</sup>, ez du eragozpenik izango ordura arteko bere nazioaren teoria perbertitzeko, aberrazio eta inkongruentzia gordinenak defendatzeko. Ezin duenez nazioaren kontzeptu klasikoa erabili Alsaziaren frantsestasuna frogatzeko, Alsazia aleman eta protestantea bihurtuko bailitzaioke, hizkuntza, arraza eta ohiturak gutxiesten ditu<sup>126</sup>, naziotasunaren kontzeptu deshistoriatu bat eraikitzen du<sup>127</sup>, herritarrek elkarrekin bizitzeko duten nolabaiteko borondate eta adostasun garaikidean oinarritua<sup>128</sup>, alegia, Estatuaren propagandan, Estatuaren indarkerian oinarritua.

Fustel de Coulanges ere aipatzen du Azurmendik nazionalismo frantses estatistaren aitzindaritzat: honentzat ere, nazioa esperientzia historikoa da, alegia, ideia-, interes-, oroitzapen- eta itxaropen-komunitate bat, bihotzean era-

---

124 *Ibidem.*, 68 or.

125 Azurmendi, J.: "Humboldt eta Renanen nazio kontzeptua", in *Wilhelm von Humboldt: Euskal Herria arakatzen, 1801*, RIEV, 48, 1, Eusko Ikaskuntza, Donostia, 2003, 98 or.

126 *Ibidem.*, 109 or.

127 *Ibidem.*, 114 or.

128 *Ibidem.*, 105, 114, 115 or.

maten dena, herritarrak maite duena<sup>129</sup>. Baina, berriro ere, perspektibismo historikoak erakusten dizkigu Fustel de Coulangesen baldintzagarri errealak: Alsaziari buruz ari denean baitio, esan, Alsazia aleman izan daitekeela arrazaz eta hizkuntzaz, baina, aberri-sentipenaz frantsesa dela, hain zuzen, 1789ko Iraultzak egin zuen frantsesa Alsazia<sup>130</sup>.

Azken batean, eredu frantses onesgarri horren azpian Voltaire agertzen da, Azurmendiren ustez, herrien baztertzaila nagusia<sup>131</sup>. Nazioa asoziatu-gorputz bat da: lege komun baten azpian bizi da eta ordezkaritza bakarra dauka politikan<sup>132</sup> Voltairerentzat herrien historia aurre-historia bat da, zibilizazio frantsesa erdiesterakoan osabetetzen dena: Frantziaren barruan lor daiteke bakarrik fintasuna, adimena, industria edo erosotasuna<sup>133</sup>. Frantzia bera ere ez da eredia, Frantzia burgesa baizik, alegia, Paris, perfekzio historiko gauzatuaren erakuspen distiratsua<sup>134</sup>:

---

129 Azurmendi, J.: "Esencia y esencialismo: análisis de un concepto. Notas para una relectura de Herder", in Palacios, X., *Ética y nacionalismo*, Nazionalismo Konparatuen Ikasketarako Institutua, Gasteiz, 1992, 189 or.

130 *Ibidem*, 189 or.

131 *Ibidem*, 214 or. Voltaireri egotzi ohi zaion euskaldunei buruzko definizio topikoa, Pirineoek bi aldeetan dantzan eta jauzika dabilen herriarena, alegia, ez du Azurmendik inon aurkitzen haren testuetan; aitzitik, aipatzen dituenean euskaldun menditarrak —alaiak eta dantzariak— giro satirikoan, iseka eta trufen artean egiten du, ohitura barbaroen adibide jartzen ditu —*Kandido* narrazioan bere amabitxiarekin esposatzeagatik Coimbran Inkisizioak erretzen duen bizkaitarra bezala— (Ikus, Azurmendi, J.: "Victor Hugo Euskal Herrian", *op. cit.*, 165-166 or, I. oharrean; bizkaitarraren pasarte, in *Kandido* ...).

132 Azurmendi, J.: "Esencia y esencialismo: análisis de un concepto. Notas para una relectura de Herder", *op. cit.*, 193-194 or.

133 *Ibidem*, 214 or.

134 *Ibidem*, 215.

Voltairek klase burges gorenaren espiritu harroa erakusten du, horretan<sup>135</sup>. Jakina, kontzeptu horrekin guztiz adostua, gordea arrazoiaren hizkuntzan mintzo da: frantsesez<sup>136</sup>.

Miranderen testu gogoangarri bat ere eskaintzen digu Azurmendik arrazionalismo antihistorikoaren izaera ongi asko ilustratzen duena:

Zentzu oneko edonork badaki endak, hizkuntzak, aspaldiko ohiturek eta edestiak dutela herri bat moldatzen. Frantziako errepublikanoek ordea faktore horiek garrantzi gutxitako dauzkate, non ez dituzten besterik gabe ukatzen; haiantzako herria adigai abstraktu bat baizik ez da gehiago; herri-araudi eta konstituzio bati darraizkiokenek omen dute herri bat antolatzen<sup>137</sup>.

Baina borondate eta adostasunaren ideia, interes eta oroitzapenen sarearena, itxaropen-komunitatearena, guztiz funsgabeak dira Azurmendirentzat. Zientzia berri bat baitago, teknika eraginkorra, herriak zer nahi izan behar duen erabakitzeko, dominazio tresna berri bat, sentimendu kolektiboak, premiak, beldurrak produzitzeko, iritzia publikoa maneiatzeko, administratzeko, planifikatzeko, manipulatzeko<sup>138</sup>. Karlos Santamariaren kezketako bat izan zen hori:

---

<sup>135</sup> *Ibidem*.

<sup>136</sup> *Ibidem*.

<sup>137</sup> Mirande, in Azurmendi, J.: *Demokratak eta biolentoak*, op. cit., 53 or.

<sup>138</sup> Azurmendi, J.: *Demokratak eta biolentoak*, Elkar, Donostia, 1997, 64, 105, 135 or.; *Teknikaren meditazioa*, Kutxa Fundazioa, Zarautz, 1998, 114-115, 159 or.

“Nous connaissons l’existence d’un certain nombre de techniques de persuasion, de propagande politique irrésistible, de dirigisme de l’opinion publique, de techniques psychologiques, par lesquelles on arrive à fabriquer, dans certaines sociétés, un espèce d’unité absolument fausse.”<sup>139</sup>

Eskola-sistema zurruna dago, gero, Salaberrik deitoratuko duenez, egitura terrorista bat, historia inposatzeko, kontzientziak domestikatzeko, herriak alienatzeko<sup>140</sup>.

Azurmendik, noski, ahalegin guztiak egin ditu tradizio frantses baten fundazio-sinbolo antzera erabiltzen den Renan berantiarraren hipotesiak errefusatzeko<sup>141</sup>, gure artean, euskal nazionalismoa borrokatzeko erabili izan delako eta erabiltzen delako, batez ere.

Bigarren kontraste bat ere egin ohi du Azurmendik, hots, estatismo ilustratuaren oinordeko izendatzen dituen estatismo sozialista eta komunista ortodoxoekin. Nazionalismoa gaixotasun burgestzat hartzen dute, topikoa denez eta, horrekin batera, grina berezia erakusten dute hizkuntza nazionalak arbuiatzeko, besteak beste, hizkuntza unibertsal baten beharra aldarrikatzen dutene-

---

139 Azurmendi, J.: “K. Santamaria: askatasunaren eta bakaearen borrokalaria”, JAKIN, 66, Donostia, 1991, 49 or. Ikus, Halaber, *Ibidem*, 53 or; “Filosofia personalistaren maisu bat: Karlos Santamaria”, JAKIN, 65, 1991, Donostia, 81-82 or, 140 Azurmendi, J.: *Etienne Salaberry II. Bere pentsamenduaz (1903-2003)*, op. cit., 76-79 or.

141 Azurmendi, J.: *Etienne Salaberry II. Bere pentsamenduaz (1903-2003)*, op. cit., 105 or; ikus, halaber, “Esencia y esencialismo: análisis de un concepto. Notas para una relectura de Herder”, op. cit., 163-220 or.

an<sup>142</sup>. Estatu nagusituaren alde egiteko, zentralismo linguistikoa onartzen dute, Sobiet Batasunean bezala —Stalinek errusoa nahi zuen bihurtu hizkuntza unibertsal, iraultza-  
ren hizkuntza, gizaki berriaren hizkuntza, Frantzian: patois makurren gainera, frantses garbia jartzen dizute<sup>143</sup>, euskara edo katalana existitzen ez direnez.

Eta, noski, hizkuntza nazionalaren defentsan agertzen direnak, erreakzionarioak, irrazionalak edo linguistikoki arrazistak bilakatzen dira, automatikoki<sup>144</sup>. Lehen internazionalistak ziren, orain kosmopolita deitzen zaie: hauentzat nazioek baliorik ez dute<sup>145</sup>.

## **Herder, Humboldt: Ilustrazio erromantiko alemana Euskal Herrian**

Historiaren konkretutasunari atxikitzeko beharraz, ilustrazio erromantiko alemana<sup>146</sup> nazio gutxituen eskubideez kezkatu zen, han eta hemen: Korsikaz, Poloniaz edo Lituaniatz, adibidez; baina, baita Euskal Herriaz ere<sup>147</sup>. Azurmendik alemanentzat kezka zintzoa zena kontrajartzen dio beste —frantses, espainol— askoren zabarkeria-

---

142 Azurmendi, J.: “Beste anekdota bat: Euskadiko PK eta Errepublika Baltikoak”, JAKIN, 60, Donostia, 1990, 101 or.

143 Ibidem.; *Humboldt: Hizkuntza eta pentsamendua*, op. cit., 291-292 or.

144 Azurmendi, J.: *Humboldt: Hizkuntza eta pentsamendua*, op. cit., 293 or.

145 Azurmendi, J.: “Beste anekdota bat: Euskadiko PK eta Errepublika Baltikoak”, op. cit., 105 or.

146 Ilustrazio bat baino gehiago dagoen bezala, noski, akatsa izango litzateke erromantizismo bakarrean pentsatzea (Azurmendi, J.: *Espainiaren arimaz*, Elkar, Donostia, 2006, 49 or)

147 Kezka berberak erakusten ditu Victor Hugok ere, beste Frantzia erromantiko batetik (ikus, Azurmendi, J.: “Victor Hugo Euskal Herrian”, op. cit., 154 or).

ri. Herderrek, gogoratu behar denez, euskaldunon independentzia-zaletasuna gorai patzen du, gure izaerari eusteko egin dugun ahalegina<sup>148</sup>. Europarentzat aberastasun handia da Euskal Herria: ikertu egin beharko lituzke Europak euskal literatura, historia eta ohiturak<sup>149</sup>. Galdu baino lehen.

Humboldték harreman estuagoa izan zuen Euskal Herriarekin eta Azurmendik ondo-ondotik jarraitzen du interes hori, bai baitaki klabe asko ematen dituela, kanpotik; askotan ikusten ez direnak, ikusi nahi izaten ez direnak, barrutik.

1799-1800.etan, Espainiara bidean zihoala, Euskal Herrira lehen aldiz etorri zenean<sup>150</sup>, garai hartako kezka zeuzkan gogoan: kulturen izaerari buruzko galdera, herrien inguruko jakin nahia<sup>151</sup>. Galdera eta jakin min horiek erantzuten eta asetzen Euskal Herrian hasten da Humboldt: bertan zer ikusi zuen, Goethe-ri txunditurik idatzi zion eskutitz batean esaten digu:

“Inoiz ez dut herri bat topatu, halako aiurri nazional autentikoa, estreinako ikusian ja hain originala sumatzen den fisionomia irozo duena.”<sup>152</sup>

---

148 Azurmendi, J.: “Esencia y esencialismo: análisis de un concepto. Notas para una relectura de Herder”, *op. cit.*, 213-214 or.

149 *Ibidem.*, 214 or.

150 *Ibidem.*, 60-61 or.

151 Azurmendi, J.: *Humboldt: Hizkuntza eta pentsamendua*, *op. cit.*, 28 or.

152 Humboldt, W. von, 1799-11-28ko gutuna Goethe-ri, in, *ibidem.*, 61 or.; Azurmendi, J.: “Goethe: literatura nazional unibertsala”, *op. cit.*, 80 or.

Euskal Herri autentiko horretan aurkitzen du Humboldték bere proiektu guztientzako norabide berria izango dena, Azurmendiren ustez: hizkuntzen estudioa hasten du, beti ere, garaiko interes antropologiko, estetiko eta filosofikoen inguruabarrean<sup>153</sup>, alegia, hizkuntzen estudiorako, karaktere nazionalaz ikertzeko asmoa hartzen du<sup>154</sup>. Herderren hizkuntzaren jatorriari buruzko planteamendu iraultzailea berretsirik<sup>155</sup>, arrazoimena hizkuntzarekin identifikatzen zuen Humboldték: gizakiaren, pentsamenduaren eta hizkuntzaren arteko batasuna hautsiezina zen harentzat, gizabanakoa komunitatean existitzen eta komunitatean osatzen den heinean. Gizabanakoa bera zer den jakiteko, bestalde, haren karakterea edo aiurriak ikertzea ezinbestekoa zela ulertu zuen: gizabanakoren azterketa, ezaugarri nazionalaren azterketa bihurtu zen, horrela<sup>156</sup>.

Parisera itzuli eta urte osoa eman du euskaraz jabetzen, Euskal Herriari buruz informazioa biltzen; ostean, 1801ean, bigarren aldiz etorri da gure artera: notak hartzen ditu, herriz herri, azpi-azpitik: Baiona, Donibane Lohitzune, Jaizkibel, Pasaia, Donostia, Getaria, Markina, Durango, Gasteiz, Bilbo, Somorrostro, Gernika, Lekeitio<sup>157</sup>... Ipuinak entzuten ditu han eta hemen, grekoen antza duten ipuinak, eta kultura-arketipoen teoria izan-

---

153 *Ibidem.*, 28 or.

154 Azurmendi, J.: *Humboldt: Hizkuntza eta pentsamendua*, op. cit., 28 or.

155 *Ibidem.*, 55-57 or.

156 *Ibidem.*, 60 or.

157 *Ibidem.*, 29-31 or.



go dena iradokitzen du...<sup>158</sup> Beti dabil erantzunen bila, beti dabil galderak egiten, Euskal Herriaz, herrien izaeraz. Ikerketa horren emaitzak ere eskaintzen dizkigu Azurmendik: euskalduntasunaren definizio oso bat:

Euskalduna da, 1) nazio bat, euskara bere mintzaira duena eta hari suharki atxikia, alde guztietatik nazio-zentzua dariola, berezi eta bere mugen burujabe sentitzen dena monarkia handi baten pean ere; 2) hor garbi antzematen dena “herri baten karakterearen, haren hizkuntzaren eta haren lurraren artean dagoen korapilo estua”; 3) hizkuntza komunaren atxikitasuna eta dialekto oso ezberdinen diferentziak bateratzen dituen, hots, unibertsaltasuna eta indibidualtasuna elkartzen dakiena, edo alderantziz esanda, berdintasuna bai, baina berdintasun orokorrari argoitzen zaion izpiritu lokal diferentziazale bizia ageri-ageri duena herririk herri...; 4) lezio bat da, nola hizkuntza ez den gramatika eta hiztegietan biltzen den masa hilotz hori, baizik eta herriaren ahotik dariona eta etxea bezala dena, non herria bizi den izpiritualki<sup>159</sup>.

Euskara pertsegiuaren kinka larria konstatatzen du. Bestalde, eratzunaren zigorra ezagutzen du Alemanian bertan ezagutu zuen zigor tipikoa; eskolan euskararik ez da egiten, jendeak dena gaztelaniaz idazten du, jauntxo eta ilustratuek baztertua daukate herriaren hizkuntza, eta, horrekin guztiarekin batera, oso handia da Estatuaren presioa: frantsesak alemana bezala, hizkuntza ofizialak ito egiten du euskara<sup>160</sup>.

---

158 *Ibidem.*, 136 or.

159 Azurmendi, J.: *Humboldt: Hizkuntza eta pentsamendua*, op. cit., 62 or.

160 *Ibidem.*, 29-31 or.

## **Euskara, XIX. mendeko euskal aldizkari bat Alemanian**

Ilustrazio alemanak Euskal Herriaz eta gure hizkuntzaz erakusten duen kezka hori berehala agortuko ez dela frogatzeko, adibide oso deigarria ekartzen digu Azurmendik: 1886. urtean antolatzen da Berlingen Euskal Elkargo bat *Baskische Gesellschaft*, euskararen alde eta euskararen ikerkuntzan interesatua, eta horrek sortzen du, urte berean, *Euskara* aldizkaria<sup>161</sup>, hain zuzen, Euskal Herrian Julio Urkixok sortutako RIEV baino lehenago<sup>162</sup>. Hamar urtez iraun zuen aldizkariak eta 17 ale, gehi separata bat, argitaratu zituen<sup>163</sup>, alemanez, bereziki, eta, baita ere, ingeleraz, frantsesez eta euskaraz<sup>164</sup>. Aldizkariarekin batera, liburutegi polita biltzen da Berlingen, euskal gaiei buruz<sup>165</sup>. Euskarari egiten zaizkion laudorio filosofiko edo poetikoez harago, hizkuntza unibertsal aldarrikatu nahi dute gure hizkuntza<sup>166</sup>, Azurmendik behar besteko garrantzia eskaintzen dion espiritu analitiko batez<sup>167</sup>: edukiz, aldizkari zientifiko bat nahi da 168, euskarari ez ezik, euskal kulturari ere musikari, esaterako erreparatuko diona<sup>169</sup>.

---

161 Azurmendi, J.: "Euskara, XIX. mendeko aldizkari alemana", *op. cit.*, 109 or.

162 *Ibidem.*, 108 or.

163 *Ibidem.*, 110, 112 or.

164 *Ibidem.*, 110 or.

165 *Ibidem.*, 112 or.

166 *Ibidem.*

167 *Ibidem.*, 111 or.

168 *Ibidem.*, 112 or.

169 *Ibidem.*, 113 or.

Euskaldun gutxik esku hartuko du, halere, ekimen hartan, nahiz eta aldizkaria gureganatzeko ahaleginak egin ziren<sup>170</sup>. Aldizkariak azkena jo zuenean, hain zuzen, salaketa mingotsak egiten zaizkio gure zabarkeriari: gure hizkuntzaz arduratzen ez garela, ez garela borrokatzen gure askatasunaren alde, herrien zerrendatik desagertzeak ez duela gugan asaldurarik sortzen eta abar<sup>171</sup>.

### **Victor Hugo Euskal Herrian**

Ez zen izan ilustrazio erromantiko alemana bakarrik, ordea, Euskal Herria ezagutzera gure artera etorri zena. Victor Hugo frantsesa ere Pasaian egon zen 1843.an, Humboldt baino 42 urte beranduago, hain zuzen. Urte batzuk lehenago, 1811.n, bederatzi urte besterik ez zituela, Baionara etorria zen, hilabetez, amarekin, eta ez zuen inoiz galduko haurtzaroko oroitzapen hura<sup>172</sup>: Euskal Herria bere historia sentimentalean, bere hunkiberatasunari atxikia geratu zen, nonbait, txiki-txikia zenetik. Azurmendik bihotz-bihotzetik eskertzen dio begirune hori.

Historikoki ere interesgarria da Hugoren ikuspegia: Humboldtak bisitatu zuen Euskal Herriak foruak zeuzkan oraindik, harmonikoki kokatzen zen tradizioaren eta modernitate hasi berriaren artean; Victor Hugok, ordea, Lehen Karlistadaren ostean ezagutu zuen gure herria bigarren aldiz<sup>173</sup>. Baina, halere, ez du Espainiarik ikusten, ez

---

170 *Ibidem.*, 119 or.

171 *Ibidem.*, 109, 121 or.

172 Azurmendi, J.: "Victor Hugo Euskal Herrian", *op. cit.*, 138 or.

173 Azurmendi, J.: "Victor Hugoren etxean Pasaian", *op. cit.*, 30 or.

du Frantziarik ikusten, Donostian; bai ordea, euskaraz mintzo den herri bat: *La langue espagnole est ici une étrangère comme la langue française*<sup>174</sup>. Eta Euskal Herrian ibili ahala Hondarribia, Astigarraga, Tolosa, are gehiago nabarmenduko du gure herriaren berezitasuna eta originaltasuna: *Ce n'est ni France, ni Espagne*<sup>175</sup>.

Euskal Herriaren historia ere ezagutuko du: hegoaldeko exiliatu politikoak iparraldean eta Bordelerako bidean; gerra karlisten txikizioak eta biolentzia hegoaldean<sup>176</sup>. Karlisten alde agertzen da, orduan ere, eta, karlismoaren barruan fueristen alde eta ez erregezaleen alde; Don Karlosen Gorte debota eta klerikala gorrotatzen du<sup>177</sup>. Euskal Herriak aurreko lau mendetan barrena Espainiaren eta Frantziaren indarraren aurrean izan duen adore politikoa miresten du: Euskal Herriaren espiritu errepublikazalea, bere batasuna, bere eskubideak eta foruak, bere izaera zaharra, hitz batean<sup>178</sup>.

Euskararekin ere egin zuen ahalegintxoren bat<sup>179</sup>: euskarak abegitsu bilakatzen zuen lehenago fidagaitza izana zen euskalduna, adiskidetasuna segurtatzen zuen<sup>180</sup>. Euskara aberri bat da, erlijio bat da, Hugorentzat<sup>181</sup>.

---

174 Azurmendi, J.: "Victor Hugoren etxean Pasaian", *op. cit.*, 14 or.; "Victor Hugo Euskal Herrian", *op. cit.*, 144, 145 or.

175 Azurmendi, J.: "Victor Hugo Euskal Herrian", *op. cit.*, 145 or.

176 *Ibidem.*, 143 or.

177 *Ibidem.*, 144 or.

178 *Ibidem.*, 146-147 or.

179 *Ibidem.*, 152 or.

180 *Ibidem.*, 148 or.

181 *Ibidem.*, 149 or.

Zer zeukan Euskal Herriak, galdetzen du Azurmendik, munduari buruz, Europari buruz aritua zen halako idazle handi bat Euskal Herriari buruz jar zedin berehala?<sup>182</sup>

## Herrien Europaren ideia

Victor Hugo, 1789ko iraultza literaturan eta literaturaren bidez egin nahi duten erromantiko gazteen buruzagia da Frantzia: iraultza literarioa, iraultza sozial eta politikoaren osagarritzat ulertzen du<sup>183</sup>. Naturaren maitale mistiko bat da, estiloan eta jarreran, historiarekiko tragiko eta nostalgikoa, askatasunarekin obsesionatua Shelley eta Byron bezala<sup>184</sup>. Ezagutzen ari den Euskal Herrian, bizitzen ari den Euskal Herrian, natura eta askatasuna miresten ditu; urtu egiten da, adostu egiten da, enpatia biziz, Miarritzen eta Pasaian, jendearen jantziak, kapelak, orrazkerak, gorpuzkerak erreparatzen dituenean, ohiturak dantzak, kantuak, jan-edan kontuak ezagutzen dituenean, paisaia kaleak, etxeak, elizak, mendiak, itsasoa..., basa-natura begien bistan hartzen duenean. Ez darama begian objektua kanpoan eta subjektua bereizten dituen oposizio cartesiarra<sup>185</sup>.

Europari begira jarri baita Europa XIX. mende horretan; XVIII. mendean urrunetako jendeak deskubritu zituen bezalaxe, XIX. mendean Europaren barruak deskubritzen

---

182 Azurmendi, J.: "Victor Hugoren etxean Pasaian", *op. cit.*, 14 or.

183 Azurmendi, J.: "Victor Hugoren etxean Pasaian", *op. cit.*, 11; "Victor Hugo Euskal Herrian", *op. cit.*, 155 or.

184 Azurmendi, J.: "Victor Hugoren etxean Pasaian", *op. cit.*, 12, 27 or.

185 *Ibidem.*, 21 or.; "Victor Hugo Euskal Herrian", *op. cit.*, 141-142, 144 or.

ditu Europak, jendea eta paisaiak: Europa, herrien Europa<sup>186</sup>.

Literaturagile, artista, musikari eta pentsalari askoen begirada da Victor Hugorena: Goethe, Stendhal, Keats, Shelley; Berlioz, Wagner, Mendelssohn, Lizt; Lord Byron, Schopenhauer, Tomas Mann; Nietzsche, Oscar Wilde, Alexandre Dumas, Walter Scot...<sup>187</sup> Guztietan, sentiberatasuna, lekuekin, jendearekin, ohiturekin, hizkuntzekin, herriekin. Beste Europa bat nahi zuten, askotarikoa, libera-la<sup>188</sup>. Literaturagile, artista, musikari eta pentsalari haiek guztiak beste Europa bat posible zela sinistuta zeuden, beste Europa hori bultzatzeko prest zeuden: horregatik erakusten dute burdinazko Estatuetan sinesten dutenek erakusten ez duten sentiberatasuna.

Gizadi aske eta anaitasunezko batekin egiten dute amets, Humboldt-ek edo Schiller-ek maiz aldarrikatu dutenari jarriki<sup>189</sup>. Nazioak ez daude bata besteari kontrajarriak, lotuak baizik, elkarren osagarri eta lagungarri dira helmuga komun batera iristeko<sup>190</sup>. Oinarrian, Humboldt-ek garatzen duen kooperazio unibertsalaren filosofia da: arrazoi pribatuaz harro dagoen kosmopolitismo abstraktuaren lekuan, gizaki eta herri solidario elkar laguntzaileen kontzeptua; benetakoa izango bada, kosmopolitismo unibertsala partikularren gainean eraiki beharko baita: kultu-

---

186 Azurmendi, J.: "Victor Hugoren etxean Pasaian", *op. cit.*, 15 or.

187 *Ibidem.*, 16-28 or.

188 *Ibidem.*, 30 or.

189 *Ibidem.*

190 *Ibidem.*, 20 or.

ra ezberdinen berezitasunen bidez ahalbidetu daiteke bakarrik gizadi osoaren kultur aurrerapena <sup>191</sup>.

Estatu despotikoen Europa, demokrazia administratuaren Europa guztiz nagusitu gabe zegoen oraindik, nahiz eta Victor Hugok tragikoki iragarri<sup>192</sup>. Ingurugiro horretan sortuko da Humboldt-en kritika zorrotza, garapenez, Estatu modernoak ekarriko zituen estatismo iraultzaileari berari, gizartea nahi baitu berak indartu, ez Estatua; Estatu minimoa nahi du Humboldt-ek, menderatu gabeko gizarteari euste aldera<sup>193</sup>.

### **Modernitatearik gabe Euskal Herrian**

Baina Victor Hugoren iragarpen gaiztoak berehala beteko ziren, Modernitatearen bigarren ziklo hura gabe geratu zen Euskal Herria; European Alemanian eta Ingalaterran, aurrena hain interesgarriak gertatu ziren urte haiek alferrik emango ziren Euskal Herrian:

Euskal Herrian, politikoki, dramatikoak izan dira gerra zibilekin eta azkenean kalamitosoak, arazoaren askadura ordez, problemaren instalazioa betiko Estatu eta gizartean ekarri baitu, gaur arte; kulturalki, aldiz, ozta-ozta nabari daitekeela ezeren hastapenik gure artean, esan beharko genuke. Beharbada nabaritzen dena, Erdi Arotze txar bat da gehiago, inolako modernizatzerik baino.”<sup>194</sup>

---

191 Azurmendi, J.: “Humboldt eta historia: filosofia baten bila”, *op. cit.*, 155-158 or.

192 Azurmendi, J.: “Victor Hugo Euskal Herrian”, *op. cit.*, 146 or.

193 Azurmendi, J.: *Humboldt: Hizkuntza eta pentsamendua*, *op. cit.*, 27 or.

194 Azurmendi, J.: “Victor Hugoren etxean Pasaian”, *op. cit.*, 24 or.

Lehen Modernitatearekin berdin gertatu zela gogoratzen digu Azurmendik. European aire ilustratuak gailen zebiltzanean Euskal Herrian ere azkar bizkortu zen mugimendu berria: Dideroten Entziklopediak, Bergaran bakarrik, II harpidetza izan zituen; Ignazio Maria Altuna Rousseuren adiskiderik minena bilakatu zen<sup>195</sup>... Baina, aire berrizale hark Elizarekin eta ingurugiro kulturalarekin egin zuen talka:

Euskal Herriak sozialki ez zuen ilustraziorik izan. Eta lehenago, erlijio-gerrarik ez zuen izan, eta erlijio-askatasunaren eta tolerantziaren fenomenoak ere ezin izan zuen eza-gutu, ondorioz<sup>196</sup>.

Beti ibili gara garaia galduta:

Erljio gerrak XIX. mendean ezagutu ditugu guk, sentimendu erromantiko sutsuen aroan, ez humanismoaren eta arrazionalizazioaren garai zorrotzetan<sup>197</sup>.

Esanguratsua da, zentzu horretan, epos nazional baten ametsa, Italiak Danterekin, Ingalaterrak Shakespearerekin, Espainiak Cervantesekin edo Portugalek Camoensekin<sup>198</sup> egin zutena, Euskal Herrian XIX. mendean burutu nahi izatea<sup>199</sup> edo, halaber, klasiko greko eta latinoen itzulpenekin

---

195 Azurmendi, J.: "Entretien d'un philosophe: Diderot (1713-1784)", JAKIN, 32, Donostia, 1984, 118 or.

196 *Ibidem*.

197 *Ibidem*.

198 Ikus, Portugaleko epos nazionala, in Azurmendi, J.: "Topoi nacionales/nacionalistas en el renacimiento: "Os Lusíadas" de Camões", in Vilar, P.; J. Azurmendi, *El hecho catalán, el hecho portugués*, Hiru, Hondarribia, 1999.

199 Azurmendi, J.: "Orixe-ren inguruko garai-giroaz", *op. cit.*, 124 or.



hastea<sup>200</sup>; Euskal Pizkundea deitzen zaio: Lizardi, Orixe, Lauaxeta, Aitzol...

Batzuetan etsipengarria ere gertatzen da:

Euskal Herriak, gutxienez azken bostehun urte honetan egin duen Ipar Afrikako historian, ez du izan bere lurpe kulturala pulamentuz harrotu dion Ernazimendurik (Erdi Aroarekin hausteko); ez benetako krisi erlijiosorik eta Erreformatarrik, beraz, Kontraerreforma ere errigorismo moral baten gisakoa bakarrik...; Euskal Herriak ez iraultza humanista, ez iraultza erlijiosoa, ez liberal burgesa, egin ditu, hitz batean; ez liberalismorik zinez ukan du, filosofikoki (Azkoitiako Zalduntxoak abstemoiak dira edozein arazo ideologikotan zuhurki), eta ez Erromantizismo libertariorik, ez iraultza industrial eta teknikorik bere garaian<sup>201</sup>.

Mirandek berak Nafarroako Errege protestanteei begiratzeko nostalgiak: haiek garaile atera izan balira, Albreteko Joanna eta Leizarraga, berpizkundea, Ernazimentua etorriko zatekeen Euskal Herrira<sup>202</sup>.

Modernizazioa iritsi denean, berriz, presaka bezala etorri da gurera, bortizkeriaz bete:

Eta bostehun urtetan ukan ez duen Europako historia guztia orain dena batera gainean erori zaio (erlijioso, liberal, are sozialista, moral, ekologiko eta nolana hiko iraultza guztiak). Euskal Herriarena krisi asko da krisi batean<sup>203</sup>.

---

200 *Ibidem.*, 128 or.

201 Azurmendi, J.: *Teknikaren meditazioa*, op. cit., 229 or.

202 Azurmendi, J.: *Schopenhauer, Nietzsche, Spengler Miranderen pentsamenduan*, op. cit., 97, 124, 126-127 or.

203 Azurmendi, J.: *Teknikaren meditazioa*, op. cit., 229 or.

## **Konkretutasuna Euskal Herrian: bortizkeriaren historia**

Europar nagusitu ziren berrikuntzarik gabe geratu izanak, ordea, beste fenomeno batean dauzka sustraiak, alegia, Euskal Herriak mendeetan barrena jasan duen maila gutxietako bortizkerian. Konkretutasunak konkretuari erantzun behar dionez, konkretutasunaren metodologia aplikatu nahi duenak, Euskal Herrian, kultura eta hizkuntza gutxitu baten errealitatea hartu behar du aurrez aurre, nazio gutxitu baten gutxitasunak arakatu behar ditu, halabeharrez. Horixe egin digu Azurmendik, hain zuzen, diziplina eta amorrua nahasten dituen sukar grinatsu batez.

Erromatarrak etorri ziren; eta godoak; eta, Erdi-aroarekin, gure historia modernoa hasi zen, inperioaren xedea, estatu-aparatu suntsitzaileak: anbizio gordinenaren historia basatia, dominazioa, konkista, krimenez jositako mendeak<sup>204</sup>. XIX eta XX mendeak, geroago: gerra karlistak, emigratuak Ameriketara, Foru-murrizketa, gerra, Foruen abolizioa, diktadura militarrek..., bataren atzetik bestea. Alegia, 200 urteko Estatu-terrorismoa, konkluditzen du Azurmendik<sup>205</sup>.

Zapalkuntza militarrekin batera, indarraren arrazoiarekin batera, zapalkuntza ideologiko eta sinbolikoa: zapalkuntza politikoa bera baino arriskutsuagoa den zapalkuntza kulturala, hizkuntza-zapalkuntza, herri-nortasuna ahi-tzen duena, herritasuna mundutik desagerrarazten duena.

---

204 Azurmendi, J.: *Espainiaren arimaz*, *op. cit.*, 8 or.

205 *Ibidem.*, 10 or.

Mendez mende gutxituak euskaldunak, arbuiatuak, irainduak; mendez mende eboluzioan ere parte hartu gabe, munduan sortzen diren gizarte-molde politiko eta erlijiosoak baitaratu gabe, kultura, kulturaz osatu ezinean, aberastu ezinean; mendez mende borrokan, euskaldunak: borroka armatuan, eta borroka ideologikoan<sup>206</sup>.

Ezin ditugu hemen laburtu Azurmendiren azterketa erraldoiak baina, gutxienez, adibide esanguratsu modura, testu ezberdinetan euskaldunoi egotzi zaizkigun epiteto arbuigarriak ekarriko ditugu, Azurmendik eskaini dizkigun bezala: erromatartu gabeak, euskaldunak, kristautu gabeak, barbaroak, basatiak, arloteak, gerra zaleak, antropofagoak, errebeldeak, intsumituak, lapurrak, inzestua eta aztikeria praktikatzen dituztenak, mozkorrak<sup>207</sup> ...; leloak, euskaldunak, burugabeak, egoskorak, basatiak, indioen parekoak (bertako indioak), menditarrak, eskola gabeak, iletsuak, azal beltzekoak, astoak eta, gehiago astakirtenak, arloteak,<sup>208</sup> ...; ugariak, euskaldunak arbuiatzeko erabili diren amorruzko eta gorrotozko adierazpideak besteen historia ilustratuan bat, abere-hizkuntza<sup>209</sup>; hitz egin ere, ez dute euskaldunek

## **Euskara barbaroa**

Jakina, hain herri barbaroak hizkuntza barbaroa behar du izan: euskara tartaila da, basatia, zaunka bat, asto-arrantza

---

206 Azurmendi, J.: *Espainolak eta euskaldunak*, Elkar, Donostia, 1998, 61 or.

207 *Ibidem*, 61-89 or.

208 *Ibidem*, 261-262, 279-280, 299, 303 or.

209 Animalia-hizkuntza hau ere topiko bat da: Odiseo heroi homerikoak epiteto berbera darabiltza Biltzarretik jaurtiki nahi duen Tersites herritar makurrarekin.

askorik egiten, mutu egon ohi dira; Espainian espainolez egin nahi izan dutenean, barregarri geratu dira<sup>210</sup>.

Bitxia ere bada baieztapen hau, Azurmendik ongi erreparatu duenez, kontuan hartzen badugu, XV-XVIII mendeen bitartean, Espainiako idazkari gehienak —ia plaga bat— euskaldun eskolatuak izan direla, erret-bulego guztietan, kontseiluetan, lehen ministroen ondoan; bitxia, euskaldun idazkari hauengandik aginpidea, borondatea eta argitasuna estimatzen bada<sup>211</sup>.

Baina ez da dena arbuio eta destaina hutsa izan, hori icebergaren erpina besterik ez da: euskara galtzeko eta desagerrarazteko ahalegina jarraitua izan da mendetan zehar. Hori ere esan egin behar da, esan egin behar du Azurmendik, gogorarazi, ahanzturarekin borrokan, gezurra badirudi ere, ukatu egiten delako gertakari hori oraindik. Espainiari lotuta, esaterako, berehala jartzen ditu pensalariak eraso linguistikoaren mugarriak: 1544-1555erako, predikuetan espainola zerabilen eliza salatzen du Kalagurriko apezpiku arabarrak eliza tresna indartsua izan baita Euskal Herria espainolizatzeko; 1613an gaztelania ez zekiten alkate eta ordezkariak debekatu egiten zaie Bizkaiko Juntetan esku-hartzea; 1621etik aurrera, prokuradore izateko espainolez irakurri eta idatzi behar da elizaurreetan; XVIII.mendean Nafarroan euskaraz ezer publikatzea debekatzen da; 1787an, Beasainen, Elgoibarren, Aian..., eraztuna eta zigorra ezartzen zaie

---

210 Azurmendi, J.: *Espainolak eta euskaldunak*, op. cit, 279, 304 or.

211 *Ibidem*, 312 or.

euskaraz egiten duten haurrei<sup>212</sup>. Ondorioz, espainola oso goizetik iritsi eta nagusitu da eskolan; horretaz kexu da Larramendi, Azurmendik jasotzen duenez:

“Nada se lee ni se escribe ni se enseñ a a los niños en Bascuence; no hai Maestro que quiera ni sepa deletrear en su Lengua”

Gero etorriko zen Foruen galera (1831), euskararen aurkako azkenaurreko bultzada: eskolak espainoltzen dira, eta kalea, berehala<sup>213</sup>.

### **Iraganetik orainera**

Bortizkeriazko historia horren ondorio larriak nabarmen gertatzen dira Azurmendik egungo euskal gizartea aztertzen duenean: gizarte desintegratu bat da gurea, identitate apurtu bat, nazio txikitu bat, batasunik gabeko eremu bat; Administrazioan esparru-zatiak ditugu, helburu eta erritmo ezberdinak politikan; paraleloan egiten dugu gizartegintzan; hizkuntza-identitate ezberdinak ditugu, ez dugu berdin ebakitzen mundua; euskaldun izateko identitateak ez datoz bat guztiengan<sup>214</sup>: gutako batzuk Euskal Herririk do euskal nortasunik dagoenik ere ukatzera iristen dira<sup>215</sup>. Gutxitiak gaude historia handiaren eta txikiaren desorekan.

---

212 *Ibidem*, 515, 527-532, 384-385, 511, 555 or.

213 *Ibidem*, 243, 246 or.

214 Azurmendi, J.: *Espainiaren arimaz*, *op. cit.*, 12 or.; “Politikatik zer itxaron kulturari”, *JAKIN*, 58, 1990, 169 or.

215 Azurmendi, J.: *Espainiaren arimaz*, *op. cit.*, 12 or.

Euskal nortasunari eutsi nahi diogunean, berriz, gutako bakoitza puskatuta dago barnetik: kontraesanean bizi gara<sup>216</sup>. Euskaldunak neke handiz jasan behar du bere euskalduntasuna, euskaldunari euskaldun izan nahi izatea eskatzen zaio egun osoan zehar<sup>217</sup>:

Ez da erraza euskalduna izatea. (Izatea, izan nahi izatea da, enpeinatzea da, izateak izate sinplea izan behar zuenean). Zerbait antinaturala bezala bihurtua dago<sup>218</sup>.

Eta, halere, bortizkeria historiko horretatik guztitik burua altxatu nahi duen euskal nazionalismoa arbuia eta gaitzetsi egiten da gaur egun ere. Ustez hiritarren borondate eta kontsentimenduan oinarritzen den nazionalismo beti zuzen eta demokratikoki orbangabe baten aldean Renanen eredu frantses berantiarra, euskal nazionalismoa beste ikuspegi erabat esentzialista eta antidemokratiko batekin parekatuko da Herder ezagutzen ez dutenek Herderri egozten dioten eredu alemanarekin, zehazki, eta azkenean, perbertsio intelektual askoren lagun-tzarekin, nazismoarekin nahastu eta kutsatuko da. Hala, euskal nazionalismoak esentzia mitikoa eta antidemokratikoa daukala esan dezake Escudero batek; fede-komunitate bat osatzen duela, sinbolo andana baten inguruan; euskara jartzen duela nazio-kulturaren eramaile mitikotzat<sup>219</sup> Edo, bestela, euskal nazionalismoak kontzepzio idealista eta

---

216 Azurmendi, J.: "Politikatik zer itxaron kultural", *op. cit.*, 169 or.

217 Azurmendi, J.: *Espainiaren arimaz, op. cit.*, 7 or.

218 Azurmendi, J.: "Irakurketari jarraituz gogoetan", *op. cit.*, 2 or.

219 Escudero, in Azurmendi, J.: "Esencia y esencialismo: análisis de un concepto. Notas para una relectura de Herder", *op. cit.*, 171 or

antihistorikoa daukala, Recalde, hain zuzen, Euskal Herria industrializazioaren aurretik historikoki eta kulturalki gauzatu ikusten duelako, alegia, euskara, Foruak (erakundeak) eta kultura-molde tradizionalak jartzen dituelako oinarrietan<sup>220</sup>.

Hain bereizketa garbia eginda, ongia eta gaizkia absolutuki jerarkizatuta, euskal nazionalistak eta, bereziki, euskal nazionalismoa eta haren ondorio modernoek bortizkeria politikoa historian eta kulturari jartzen dituzten teoriakoak *moralista*, *ergel*, *gizagaixo* eta *asesino* bihurtzen dira; Azurmendi bera gogor eraso dute Martinez Gorriaran, Unzueta, Juaristi eta gainerako ilustratu progreek<sup>221</sup>.

### **Etsipena eta bortizkeria, gerra-osteko kulturgintzan**

Etsipen- eta bortizkeria-sentipen historikoak, epe luzekoak bezala, epe laburrekoak, oso bizirik egon dira 1936ko gerraren ostean: belaunaldi oso bat abailarazi eta suntsitu zuen bortizkeriak, kulturgile eta idazle belaunaldi oso bat, haien artean: Andima Ibinagabeitia, Nemesio Etxaniz, Jon Mirande, Jokin Zaitegi, Orixe, Etxaide, Salvatore Mitxelena, Gabriel Aresti, Txillardeggi, Gandiaga, Xabier Lete, Mikel Lasa<sup>222</sup>...

Azurmendik, noski, ezin du bere burua sartu zerrenda hauetan.

---

220 Recalde, *in, ibidem.*, 172 or.

221 Azurmendi, J.: *Euskal Herria Krisian*, Elkar, Donostia, 1999, 16 or.

222 Azurmendi, J.: *Oraingo gazte eroak*, Enbolike, *op. cit.*, 13 or.; "Aresti: sentsibilitate konkretu bat", JAKIN, 36, Donostia, 1985, 22 or.; *Artea eta gizartea*, *op. cit.*, 12-14 or.

Errazegi ahanzten dugu iragana:

Diktadurak, inor edo ezer zanpatu, desterratu, gartzelera-  
tu, torturatu, afusilatu baldin badu, euskal literatura eta  
euskara izan dira, zoritxarrez euskara eta euskal literatu-  
ra torturatzeraz bakarrik mugatu ez bada ere<sup>223</sup>.

Salaberrik Bismarck du gogoan, indarkeriak Hego eta Ipar  
Euskal Herrietan izan duen ondorio paradoxikoaz mintzo  
denean:

“Burdina eta sua herriaren biltzaile” zioen Bismarck ale-  
man minixtroak. Burdinak eta suak deslotu dute Hego-  
Euskal-Herria Espainiatik. Burdinak eta suak lotu dute  
Ipar-Euskal-Herria Frantziari<sup>224</sup>.

Azurmendik berak espresatzen du bortizkeriaren kon-  
traesana bere lehen heziketa politikoa:

*Baina nire herriari  
indarra egiten zaio. Niri ez.*

[...]

*Politikatan eta ez zikintzeko  
ikasi nuen. Estudio luze bat<sup>225</sup>.*

Eta, gutxitasuna, hutsaltasuna, etsipen agoniko bat,  
Oteizaren metafora ezaguna darabilenean:

---

223 Azurmendi, J.: “Euskal literaturaren orainaz eta geroz”, *op. cit.*, 408 or.

224 Azurmendi, J.: *Etienne Salaberry II. Bere pentsamenduaz (1903-2003)*, *op. cit.*,

126 or., 13. aipua.

225 Azurmendi, J.: *Manifestu atzeratua*, <http://www.basquepoetry.net>, 2007an  
jaitzia (jatorrizkoa 1967koa).



*Aginako zero bat zen  
Gure inperio guztia*<sup>226</sup>.

Bortizkeriaren biktima izan diren kultur gile hauetako bat-  
zuengan agertzen den burua botatzeko, alde edo moldez,  
buruaz beste egiteko gogoaz ezinegon haren adierazlea  
da<sup>227</sup>.

Arestiren hitzak oso argiak dira:

*Inor ez da profeta  
bere mendean.  
Berriz etorri naiz  
pentsamendura,  
eta andre alabarik ez banu,  
pozik  
hilen nintzateke  
ene esanak kontsidera litzan  
euskal harriak (II, 202)*<sup>228</sup>

Nemesio Etxaniz apaizarenak, gordinagoak, agian:

Gure sinesteak galaraziko ez baligu, zenbat aldiz nere  
burua garbitu nuen, jende irendu hortatik ihes egiteko!<sup>229</sup>

Herri zanpatu eta suntsitua garelako kontzientziaren  
aztarnak oso nabariak dira guztiengan<sup>230</sup>.

---

<sup>226</sup> *Ibidem*.

<sup>227</sup> Azurmendi, J.: *Oraingo gazte eroak*, op. cit., 14.

<sup>228</sup> Aresti, G.: *Poemak*, Kriseilu, Donostia, II, 202 — erdarazko itzulpen traketsa dela-eta, Azurmendik hainbeste kritikatu duen argitaralpena erabili behar da, tamalez (Ikus, Azurmendi, J.: “Aresti: sentsibilitate konkretu bat”, op. cit. 36, 28.—

<sup>229</sup> Nemesio Etxaniz, in, Azurmendi, J.: *Oraingo gazte eroak*, op. cit., 14 or.

<sup>230</sup> Azurmendi, J.: *Oraingo gazte eroak*, op. cit., 14-15 or.

Are ezkutatu ezinagoak, Miranderengan: euskaraz idazteari utzi ostean, bere burua hil zuen, Azurmendik ongi diagnostikatzen duenez, depresio latz batez<sup>231</sup>.

## **Biolentziarekin erantzun biolentziari**

Une batetik aurrera, kultura kristauak ezingo dio eutsi etsipenari: bortizkeriari bortizkeriarekin erantzun behar zaiolako pentsamendua gero eta zuzenago adierazten da. Gizarte tradizional eta katoliko bati bere barne-barnetik ernaldu zitzaion krisialdia: moral kristaua ez zen ongi adiskidetzen indarkeria harekin guztiarekin:

Nola aska, edo nola altxa herri bat, klase zapaldu eta zupatu bat, *dohatsu zarete paubreak*, *dohatsu zarete orain gose zaretenok*, *dohatsu zarete orain nigarrez zaretenok* horiekin, edo beste exigentzia haiekin, *onhets itzazue zuen etsaiak: ongi egizue gaitzesten zaituztenei; otoitz egizue oldartzen zaizkizuenakgatik*<sup>232</sup>.

Nemesio Etxaniz apaizaren lekukotasuna ezin argigarriagoa da, berriro ere, Azurmendirentzat, giro kristau eta politikoki zuzen batean hazia, gizaldi gogorragoak eskatzen baitzituen, armak hartzea, jendea hiltzen hastea<sup>233</sup>:

Gure herriak beste gizaldi gogorragoa hazi behar du Euskadi askatzeko. Gu bigunegi eta klerikalegi haziak gera. Odolak eztigu onik egiten, eta odolik ixuri gabe ez Elizak,

---

231 Azurmendi, J.: *Schopenhauer, Nietzsche, Spengler Miranderen pentsamenduan*, op. cit., 1989.

232 Azurmendi, J.: "Entretien d'un philosophe: Diderot (1713-1784)", op. cit., 116 or.

233 Azurmendi, J.: *Oraingo gazte eroak*, op. cit., 66, 74, 80 or.

ez demokratak, ez dute inungo herririk aintzakotzat hartzen. Jendea hiltzen hasiz gero... A! orduan bai! Elizak ere induljenti poltsa parra-parra zabaltzen du. Lapur guztiak, suerte ona izan dutenean, beti aurkitu izan dute nahikoa Gotzain, beren gaizkinak bedeinkatzeko<sup>234</sup>.

Herri bezala bizi-nahi gorriaren erantzuna zen, desesperazioaren azken errekurtsoa<sup>235</sup>.

### **Mirande: krisialdi baten espilu**

Literaturan, Jon Miranderengan aztertu du sakonki Azurmendik krisialdiaren eragina.

Mirandek Euskal Herria maite zuen, oroz gain, jasan ere ezin izateraino<sup>236</sup>. Euskal Herri burujabe eta libre bat nahi zuen: euskaraz mintzatuko zena, bere legeak idatziak edo idatzi gabeak izango zituen<sup>237</sup>. Abertzale erradikala deitzen dio, sintomatikoki, Azurmendik<sup>238</sup>. Horregatik altxatzen da eta arbuizatzen du askatasuna galarazten edo atzeratzen duen guztia: EAJ eta demokrazia, demokrazia kristaua, bereziki; zintzotasun hura, gauzak bide onetik egiteko modu hura inozokeria zen harentzat<sup>239</sup>. Eta, sozialis-

---

234 Nemesio Etxaniz, in, Azurmendi, J.: *Oraingo gazte eroak*, op. cit., 66 or. Ikus, beste batean: "Askotan egoten naiz nere artean asmatzen: ohapean hiltzea zozoa litzatekeela, eta norbait garbitu aurretik, eta nere bizia gal behar nukela", in, *ibidem*, 74 or. Eta gehiago ere badira: 80 or., esaterako.

235 Azurmendi, J.: *Oraingo gazte eroak*, op. cit., 70, 74 or.

236 Azurmendi, J.: "Mirande, berriro", JAKIN, 106, Donostia, 1998, 41 or.

237 Azurmendi, J.: *Demokratak eta biolentoak*, op. cit., 49 or.

238 *Ibidem.*, 19 or.

239 Azurmendi, J.: "Mirande, berriro", op. cit., 32 or.

moa, marxismoa, anarkismoa..., konformismo kristau bat guztietan, sakonean<sup>240</sup>.

Kontuan izan behar da, Miranderen garaian, reketek eta faxistak direla nagusi hego aldeko Euskal Herrian eta, halere, nazionalismo jeltzalea paralisi moduko batean dagoela, etsaiak beraien zerbitzari bilakatua, batzuetan; harro, izaera kristau eta demokratikoari eutsita<sup>241</sup>.

Baina, Miranderen bereizgarria, sistema demokratikoei egiten dien kritika da: euskaldunok ez dugu ezer irabaziko Estatu modernoak indartu dituen demokraziarekin; Lege Zaharreko libertateak galarazi zizkigun demokraziak eta ez dizkigu berriro eskainiko<sup>242</sup>. Nabarmen egin dugu atzera: Iraultza Ilustratua baino lehen, Frantziako eta Espainiako erregeek errespetatu egiten zituzten herriaren izaera, legeak, ohiturak, usantzak eta hizkuntza<sup>243</sup>.

Ondorioz, Euskal Herriak ez zuen askatasuna lortuko, lehenago moral kristaua eraberritzen ez bazen<sup>244</sup>: bildots bakezale izateko nahia, saldo-abere bezala jokatzeko beharra, sakrifizioaren etika..., hura guztia kaltegarria zen haren ustez<sup>245</sup>. Elizaren askatasuna, bekatutiko eta grinatiko askatasuna da, ez du herrien askatasun kolektiboa ain-

---

240 Azurmendi, J.: *Schopenhauer, Nietzsche, Spengler Miranderen pentsamenduan*, op. cit., 7 or.

241 *Ibidem.*, 170 or.

242 *Ibidem.*, 131 or.

243 Azurmendi, J.: *Demokratak eta biolentoak*, op. cit., 49-50 or.

244 Azurmendi, J.: *Schopenhauer, Nietzsche, Spengler Miranderen pentsamenduan*, op. cit., 93 or.

245 *Ibidem.*, 95 or.

tzat ere hartzen<sup>246</sup>; helburu berbera dauka demokraziak, beti ere, Frantziaren —eta gaur egungo Espainiaren— demokraziak: askatasun-gogoak, borrokarako gogoak maskaldu<sup>247</sup>; hiritar langin baketsu eta mantsoak sortzen ditu demokratismoak Euskal Herrian<sup>248</sup>.

## **Antikonformismoa, borroka armatua**

Bere inguruan antzematen zuen konformismoari aurre egiteko, antikonformismoaren bandera hartu zuen Mirandek<sup>249</sup>; borroka armatuari ekin beharra ere aldarrikatu zuen ETA sortu baino lehen, *Jeiki, jeiki*<sup>250</sup> eresian iradokitzen denez<sup>251</sup>:

*Jeiki, jeiki Üskaldünak  
ehaitera<sup>252</sup> juaiteko  
ehaitera juaiteko.  
Aspaldian ginen bizi  
arrotzen esküpeko  
hen odolak gure lürra  
orai dü gizentüko  
orai dü gizentüko.*

---

246 Azurmendi, J.: *Demokratak eta biolentoak*, op. cit., 20 or.

247 *Ibidem.*, 21 or.

248 *Ibidem.*, 23 or.

249 Azurmendi, J.: *Schopenhauer, Nietzsche, Spengler Miranderen pentsamenduan*, op. cit., 94, 127 or.; *Demokratak eta biolentoak*, op. cit., 23 or.

250 Mirande, J.: *Orhoituz*, op. cit., 23-24 or.

251 Azurmendi, J.: “Mirande, berriro”, op. cit., 32; *Schopenhauer, Nietzsche, Spengler Miranderen pentsamenduan*, op. cit., 128, 130 or.; *Demokratak eta biolentoak*, op. cit., 24 or.

252 Batere begirunerik gabe esaten du hori Mirandek: Zuberoan ehailea hiltzaillea da, asesinoa (Azkue, R.M., *Diccionario Vasco-español-francés*, La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbao, 1969, I, 214).

Eta, azken estrofan:

*Sort-herriaren etsaiak  
denak eho<sup>253</sup> ditzagün  
denak eho ditzagün.*

Edo, Eresi XVI izenekoan<sup>254</sup>:

*Aineza gal bizia goiz batez  
iskilludun, ixil eta zutik  
guduz hilda lur zar honen maitez  
mendietan, etsaien eskutik.*

Gordin-gordina da Mirande: garbi samar zeukan euskaldunok ezingo dugula inoiz askatasunik lortu demokratikoki<sup>255</sup>.

Frantziako Errepublika demokratikoaren eta Francoren artean ez zegoen alderik harentzat: biak ziren etsai amorratuak Euskal Herriarentzat<sup>256</sup>. Mirandek sekulako gorrotoa zion Frantziari<sup>257</sup>, Frantzia demokratikoaren mistifikazioari, esan dezagun. Eta ezin zuen ulertu abertzale errealistek frantziar filosofoengandik zeukaten mirespena: legeen nagusigoa, aurrerapena, bakea, arrazoia..., goiburua haiek guztiak ez zitzaizkion egokiak iruditzen Euskal

---

253 Alegia, txiki-txiki egin eta, baita ere, itzali, iraungi, amatatu, alegia, akabatu (Ikus, Azkue, R.M., op. cit., I, 242 or.).

254 Mirande, J.: *Orhoituz*, op. cit., 53 or.

255 Azurmendi, J.: "Miranderen kritika Iraultza Frantsesari", *JAKIN*, 52, 1989, 86 or.

256 Azurmendi, J.: "Mirande, berriro", op. cit., 32 or.; *Schopenhauer, Nietzsche, Spengler Miranderen pentsamenduan*, op. cit., 132 or., 18. oharra; 153 or.

257 Azurmendi, J.: *Schopenhauer, Nietzsche, Spengler Miranderen pentsamenduan*, op. cit., 115 or.

Herriarentzat<sup>258</sup>; bai, ordea, Frantziarentzat, Frantziar Estatuaren boterearentzat, ulertzen da.

Izan ere, goiburu haiek onartzen zituzten euskal alderdiak ziren herriarentzat jarduera estatiko, geldikor eta suizida bat bultzatzen zutenak: haien aurka, erromantizismoa aldarrikatzen da, hain zuzen, Aita Larramendi, Agostin Chao, guda-buruzagi karlistak eta Arana Goiriren espiritua<sup>259</sup>; iparraldetik, frankoak Garona ibairaino erasotu eta suntsitu zituzten euskaldunen espiritua, Nafarroako Erresuma hegoalderantz hedatu zuten euskaldunen espiritua<sup>260</sup>, inola ere ez dena auzo on, bakezale eta jasankorra, baina bai bortitza, urduria, guda zalea eta handinahia: *Vascones inquieti*<sup>261</sup>.

Erlatibotasun-kontua da Azurmendirentzat: besteak gaiztoak badira, gu ez gara gutxiago izango<sup>262</sup>.

## Zer dute Miranderen aurka?

Jarrera bortitz horrek gaitzespena ekarriko zion Miranderi eta boterearekin ozartsu agertzen den euskal-

---

258 *Ibidem.*, 110 or. Miranderen *Euskaltasun romantiko baten alde* izeneko testu interesgarria eskaintzen da 110-111 orrialdeetan; ikus, jelkideen abertzaletasunaren kritika, in, *Euskaldun zintzoen balada*, "Ortzi euskal jainkoari zuzendu galde-otoitza, zintzo ez den batek egina" (*Orhoituz*, Kriseilu, Donostia, 1976, 33-35 or.; IGELA, Hordago, Donostia, 1979, 114-116 or.) eta *Herri saindu eta demokratikoaren parabola* (IGELA, Hordago, Donostia, 1979, 195-201 or.).

259 Azurmendi, J.: *Schopenhauer, Nietzsche, Spengler Miranderen pentsamenduan*, op. cit., 110, 126, 137. or.

260 Ikus, *Ibidem.*, 125 or.

261 *Ibidem.*, 111 or.

262 *Ibidem.*, 135 or.

dun orori gertatu ohi zaionez mekanismo estigmatizatzaile ankerrena abiaraziko zen harekin, neurrigabea, manike oa, inkisitoriala. Hitz batean, deshistorizatu egin zen, Azurmendik darabilen kontzeptu bat errepikatzearren. Ez zen egin bere mendeko giroan jartzeko batere ahaleginik, esaterako, Schopenhauer, Nietzsche eta Spengler-ekin<sup>263</sup>; baina, baita ere, Renanekin<sup>264</sup>; Jünger, Marinetti, Célin edo Pound-ekin<sup>265</sup>: haiek guztiak bezala, europar espiritu indartsua berreskuratu nahi zuen Euskal Herrian Mirandek, espiritu semita arrotzaren aurka<sup>266</sup>.

Izan ere, European nagusi zen testuinguru teoriko zabalago horretan, Mirandek krisi eta gainbehera kulturala jartzen du galdutako gerren gaintetik ere Euskal Herriaren gaitzen oinarrian: kristau inspirazioko espiritu demokratiko kaltegarri bat<sup>267</sup>, jasandako bortxa eta laido guztiak errazegi zuritzen dituen, hain zuzen. Arrazen teoria arriskutsu eta aurreiritziz betea bera kultura giro beretik barneratu zuen.

Ulertezina da halere Mirandekin erabiltzen den begia: ulertezina, esaterako, zergatik behar den izan arrazista gaiztoa Mirande bakarrik Euskal Herrian, eta ez Baroja, edo nazioaren kontzeptu liberal modernoa eragin duen Renan antisemita<sup>268</sup>, edo postmoderno zein supermoder-

---

263 Ikus, *Ibidem.*, 5 or.

264 Azurmendi, J.: "Mirande, berriro", *op. cit.*, 37 or.

265 *Ibidem.*, 39 or.

266 *Ibidem.*, 37 or.

267 Ikus, Azurmendi, J.: *Schopenhauer, Nietzsche, Spengler Miranderen pentsamenduan*, *op. cit.*, 123 or.

268 Ikus, Azurmendi, J.: *Espainiaren arimaz*, *op. cit.*, 245-252 or.



noek miresten dituzten Nietzsche eta Heidegger, edo Ortega y Gasset<sup>269</sup>; horiek guztiak Mirande bezainbeste dira antisemitak eta arrazistak, Azurmendik azterketa luzeetan frogatu duenez gauza ebidente batzuk gure artean frogatu egin behar direnez, baina, gaizto-gaiztoa, beti Mirande<sup>270</sup>. Zergatik hori? Besteek beren herrien alde eskatzen duten bortizkeria eskatzen duelako Mirandek Euskal Herriaren alde? Edo, Zazpiak bat eta Nafar Estatua aldarrikatzen dituelako?<sup>271</sup>. Edo, zerbait arriskutsuagoa egin du Mirandek, erromanizazioa ezetsiz, Frantzia eta Espainia ezetsiz, euskalduntasuna kultura propioarekin lotu duenean?<sup>272</sup>

Arrazarekin batera, hizkuntzak, legeak, ohiturak, adierazpen artistikoek egiten dute herria harentzat arraza bera inguruabar kultural horretan jartzen da, noski, ezaugarri horietan dira herri baten bereizgarriak<sup>273</sup>. Horrela ulerzen da, kultur-oinarri horiek abstraituz eta ukatuz nazioaren definizio juridiko hutsa aplikatzen duten Estatuari egiten dien kritika<sup>274</sup> eta, handik ateratzen duen ondorio humanista: egiazko giza aberea, odol-haragizko giza aberea da, bere kulturarekin batera bizi dena<sup>275</sup>. Haragiz, bihotzez

---

269 Ikus, *Ibidem.*, 245-252 or.

270 Azurmendi, J.: "Mirande, berriro", *op. cit.*, 37-38 or. Ez aipatzearren nazionalismo espainolaren oinarri erabat arrazistak (ikus, Azurmendi, J.: *Espainiaren arimaz*, *op. cit.*).

271 Azurmendi, J.: *Schopenhauer, Nietzsche, Spengler Miranderen pentsamenduan*, *op. cit.*, 152 or.

272 *Ibidem.*, 150-151 or.

273 Azurmendi, J.: *Demokratak eta biolentoak*, *op. cit.*, 49 or.

274 *Ibidem.*, 53 or.

275 *Ibidem.*, 54 or.

baino ezin baitaiteke borroka eta lor askatasuna, inondik ere ez paper hutsez, gehituko du Azurmendik<sup>276</sup>.

Edo, are zerbait kriminalagoa egin ote du Mirandek Azurmendik bezala, borroka morala, borroka politikoaren barruan integratu behar dela adierazi duenean?<sup>277</sup> Horrek ematen dio partikulartasuna euskal pentsamenduan<sup>278</sup>.

Mirande lehena izan zen Euskal Herriak jasaten zuen duen krisi kulturala eta politikoa antzematen, krisialdi horri mendebaldeko krisialdiarekin loturak aurkitzen ez ezik, krisialdiaren azken oinarriak Foruen galerarekin uztartzen eta, beraz, krisialdiaren ezaugarri propioak azpimarratzen<sup>279</sup>. Honez gain, errealismo ezin gordinagoz adierazi zuen bere ikuspegi politikoa: herri handiengandik, Frantziatik eta Espainiatik, ezer ez dezakegu espero; errepublikanoak ala monarkikoak, ezkerrekoak ala eskuinekoak, berdin-antzerak dira espainol eta frantsesak<sup>280</sup>.

## **Bortizkeriak eragindako barne-bortizkeria euskal literaturan**

Espainiako altxamendu faxistak eragindako biolentziari nola aurre egin jakitea ez zen gauza erraza izango euskal

---

276 *Ibidem.*, 54-55 or.

277 Azurmendi, J.: *Schopenhauer, Nietzsche, Spengler Miranderen pentsamenduan*, op. cit., 93-94 or.

278 Azurmendi, J.: *Demokratak eta biolentoak*, op. cit., 35 or.

279 Azurmendi, J.: *Schopenhauer, Nietzsche, Spengler Miranderen pentsamenduan*, op. cit., 160 or.

280 Azurmendi, J.: "Miranderen kritika Iraultza Frantsesari", II, JAKIN, 53, 1986, 106 or.

komunitate hautsi eta garaituarentzat. Kontraesan sako-  
nak sortuko ziren, egituraketa minimorik ahalbidetzen ez  
zuen garai haietan, kultura zaharraren eta zetorren kultu-  
ra berriaren ebakian. Itsu zebilen Euskal Herria, iluntasu-  
nean, itsu-makilakadak ematen, handik hona: eta zauriak  
sortu ziren euskal komunitatearen barruan, ezinikusiak,  
gatazkak, gaizki-ulertzeak; jende bat baztertu egin zen,  
jende bat arbuiatu zen<sup>281</sup>. Esan dugu euskaraz idazteari utzi ziola Mirandek, burua hil  
zuela depresioak jota<sup>282</sup>, berak aitortzen duenez, pseudo-  
euskaltzaleak oro eta abertzaleen erdiak nardarazita ibili  
ondoren<sup>283</sup>. Askotan esan da Arestik asko sufritu zuela,  
zapuztura jasan zuela euskaldungoaren aldetik, kritikak,  
publikoak ez zuela harekin begirunerik izan<sup>284</sup>; nigarra sor-  
tarazteraino, bere euskara *mordoiloa* ezjakintasunez kriti-  
katu ziotela aranstek...<sup>285</sup> Azurmendik gogoratzen du,  
artean, 1961.ean, nola argitaratu zuen Jakin aldizkarian  
eskela bat, marko beltz lodi batean enmarkatua, poesiarik  
sekula gehiago ez zuela idatziko aginduz<sup>286</sup>. Arestik bezala,  
Gandiagak ere asko sufritu zuen; *Elorri*-rekin, batetik: ez  
zioten ulertu hango Euskal Herria<sup>287</sup>, gaitzetsi egin zioten

---

281 Azurmendi, J.: "Aresti: sensibilitate konkretu bat", *op. cit.*, 22 or.

282 Azurmendi, J.: *Schopenhauer, Nietzsche, Spengler Miranderen pentsamenduan*, *op. cit.*

283 Mirande, in Azurmendi, J.: "Miranderen kritika Iraultza Frantsesari", *op. cit.*, 71 or.

284 Azurmendi, J.: "Euskal literaturaren orainaz eta geroz", *op. cit.*, 416 or.

285 Azurmendi, J.: "Arestiren tintazko bataioaz", *JAKIN*, 62, Donostia, 1991, 136, 139, 141 or.

286 Azurmendi, J.: "Hizkuntz ereduen eztabaida", *op. cit.*, 107-108 or.

287 Azurmendi, J.: *Azken egunak Gandiagarekin*, Elkar, Donostia, 2009, 45 or.

poesia-molde pertsonalista<sup>288</sup>; eta, oro har, Estatuaren eta Elizaren gutxiespena jasaten ari zen herri baten sufrikarioak partekatzen zituelako, besterik gabe<sup>289</sup>. Gandiaga beti triste bat ezagutu zuen Azurmendi<sup>290</sup>

Giro bortitz hura ere neurri historikoan ulertu behar da, halere. Ez zen izan jarrera gaizto bat pertsona jakin batzuen aurka, giro oso bat baizik, usteldura eta zornea eragiten zuen ezinegon orokor bat kulturaren. Arestiri buruz ari dela, ongi azaltzen du hori Azurmendik:

Izan ere, ez dakit noiz hasi behar dugun argi eta garbi alde-rantziz esaten: Aresti ordukoxe euskaldungoaren produktu tipiko bat zela; Arestiren borroka eta borrokak euskaldungoaren borroka eta borrokak zirela; euskaldungo hura ere bere buruarekin borrokan ari zela. Aresti bezalaxe; gaizki barik, ongi eta oso ongi ulertu zuela Aresti eta sekula inor gutxi bezala miretsi, estimatu, maitatu zuela; ez Aresti eta ez orduko euskaldungoa ulertzerik dagoela, biok elkarri kontrajarriz, biok bat eginez baino, biak bat-bat zirelako. Hori dena ere ez baita gutxiago halaxe izan. Eta, gero, nahi bada, esan bedi, baita, euskaldungo hura barne-kontraesanez beterik zegoela: erreakzioaren eta iraultzaren artean, ausardia eta herabearen artean, mito historikoa eta utopia nazional (tradizional)aren artean, mailuaren eta biolaren artean. Eta gizarte zapalduen erraztasun zoro guztia zuela mundua ezker-eskuin kondenatzeko nahiz bedeinkatzeko, bedeinkaziotik madarikaziora

---

288 Azurmendi, J.: *Artea eta gizartea*, op. cit., 8 or.

289 Azurmendi, J.: *Azken egunak Gandiagarekin*, op. cit., 49 or.

290 *Ibidem.*, 74 or.

pasatzeko eta madarikaziotik bedeinkaziora. Gizarte zentsuratu guztien itxikeria eta informazio-falta zuela, eta ideien trafikoa aldagaitsua eta irekitasuna; superstizio santuak eta bapateko ferbore ideologikoak. Kontraesanek beteriko gizartea, gutariko gehienok azkenean geratu garen bezala, Arestiren salbuespenik gabe, zurrunbilatik irten nahi eta ezinda. Aresti, Mirande, Oteiza, Krutwig... eta beste hainbaten gizartea<sup>291</sup>.

Justifikazio historiko guztiekin ere, tira-bira haiek guztiak garestiegiak atera ziren, gerora:

Prezio altuegia ari zaigu kostatzen. Nekagarria da. Jende balioko gehiegi kiskaldu zaigu. Proiektu on gehiegi lardas-katu. Historia luzea da<sup>292</sup>.

## **Sentiberatasun konkretu bat euskal literaturan**

Hala ere, sufrimenduaren eta krisiaren gainetik, euskal literaturak jakin zuen ekarpenik egiten, jakin zuen kultur-gintza abiatzen jartzen, etsipenaren barrutik. Azpi-azpitik, konkretutasunetik hasi zen altxatzen, bortxaren menpean bizi zen gizakia eta lurra hasi zen estetikara goratzen: gizarteak krisian jausten direnean gogoeta ere zerutik lurrera jaitsi ohi da, Filosofia antropologizatu egiten da, dio Azurmendik, Cassirerrek<sup>293</sup>.

---

291 Azurmendi, J.: "Aresti: sentsibilitate konkretu bat", *op. cit.*, 25 or.

292 Azurmendi, J.: "Politikatik zer itxaron kulturari", *op. cit.*, 176 or.

293 Azurmendi, J.: "Sokrates: krisialdiko pentsalaria", in Platon, *Sokratesen Defentsa*, JAKIN Irakurgaiak, Donostia, 1999, 25 or.

Bigarren modernitatearen ebakian, ilustrazio erromantikoak Frantzian eta Alemanian eskatzen zuen giza aberearen ulerkuntza antropologiko eta historiko konkretua, Kanten arrazoimenean agertzen den sentiberatasun konkretua, Euskal Herrian ere poliki-poliki ernaltzen ari dela iragartzen du Azurmendik, gerra-aurreko lehen Pizkundean, nabarmen, eta, orobat, gerra-osteko euskal kulturgintzan zein literaturan. Garen gutxia onarturik, garen lakatz eta landugabeak onarturik, garena apainduz eta bizigarrituz hasi ziren lehen belaunaldi ezberdinak, goratuz eta eroriz, baina, beti ere, galdu gabe zutitzeko indarra<sup>294</sup>.

Helburuetan, nazio konkretu bat, ohitura, hizkuntza, lekuan lekuko ekonomia eta abarrekin; bultzagileetan, herri xehea, jauregi distiratsurik gabe, bere biziera espontaneoarekin, bere kantu, erritmo, dantza, ipuin, poesia, mitologia, jakinduria familiarra eta abarrekin.

Herriaren barrutik sortuko baita lehen belaunaldi apal-apal bat: Arrese Beitia, Bilintx..., elite selektoek baztertuak, ez hiribururik, ez gortetik, ez ideia berri-berririk, ez burgesiarik, ez aureola sozialik<sup>295</sup>..., ia Alemanian bezala. Eta Lizardi, gero, Lauaxeta, Aitzol.... Eta Orixerengan zein Arrutirengan, lanarekin lotutako jendea, berriro, jende apala, jende xehea, herri pobrea, ustiatua, baserritarrak, nekazariak, artzainak, olagizonak, haurrak, agureak, hildako gurasoak..., eta haien lanak, ohiturak, uste eta izpiritua<sup>296</sup>.

---

294 Azurmendi, J.: *Azken egunak Gandiagarekin*, op. cit., 186 or.

295 Azurmendi, J.: *Azken egunak Gandiagarekin*, op. cit., 394 or.

296 *Ibidem.*, 74 or.; *Volksgeist/Herri gogo*, *Ilustraziotik nazismora*, op. cit., 301 or.

Euskara kultistaren joera nagusitu zenean ere, jende xehearen euskara miresten du Orixek<sup>297</sup>. Herri-bertsolaritzaren aurkikuntza, *bertsolaritzaren iraultza* deitu zena, etorri zen Lekuonaren eskutik, bestalde<sup>298</sup>. Azurmendik berak behin baino gehiagotan eskatu du estatus literarioa bertsolaritzarentzat<sup>299</sup>.

Eta, geroago, bigarren pizkunde bat gerra-ostean, Mirande bat, Aresti bat, Gandiaga bat, eta beste hainbeste: Rikardo Arregi, Telesforo Monzon, Krutwig, Txillardeggi, Xabier Lete eta Lurdes Iriondo, Mikel Lasa, Xalbador Garmendia... Hauekin, euskal gizartea iratzartzen ari zelako lehen sintomak antzematen ditu Azurmendik:

Euskal gizartea eginkizun baten aurrean aurkitzen dela, iratzartu dela, eginkizun baten kontzientzia sutsua duela. Gizarte osoaren kontzientzia-batasun gehiago dagoela. Eta artista ere oso-osorik kontzientzia horren barruan dagoela, haren parte aktibo bezala<sup>300</sup>.

Gerra-osteko belaunaldi honek, 50. urteetatik aurrera, kultur mailara jaso du euskara, azpiegitura oso bat antolatu du, arlo guztietan<sup>301</sup>; hasiera batean erakundeen laguntzarik gabe<sup>302</sup>.

---

297 Azurmendi, J.: "Orixe-ren inguruko garai-giroaz", *op. cit.*, 131 or.

298 *Ibidem.*, 127, 134-135 or.

299 Azurmendi, J.: "Euskal literaturaren orainaz eta geroz", *op. cit.*, 413 or.

300 Azurmendi, J.: *Artea eta gizartea*, *op. cit.*, 10 or.

301 Azurmendi, J.: "Euskal literaturaren orainaz eta geroz", *op. cit.*, 419, 435 or.

302 *Ibidem.*, 436 or.

## Gabriel Aresti

Arestiren poesian izen propioak, giza abere konkretuak dabilta munduan: Rikardo Arregi, Telesforo Monzon, Krutwig, Mirande, Xabier Lete eta Lurdes Iriondo, Mikel Lasas, Xalbador Garmendia, Ibarrola, Oteiza, Balerdi...; gizarte jakin bat, haragizko gizonez eta emakumez osatua<sup>303</sup>. Bere poesia egunerokoa zen, bertsoz bertso, egunkari-puskak egiten zituen: euskara batuaren borroka, Rikardo Arregiren heriotza, alabaren jaiotza, Burgosko prozesua, Lurdes Iriondoren kantak, euskal ortografia...<sup>304</sup>.

Bilbo zen bere hiria: Zazpi Kaleak, Jardin Txikerra, Barrenkale, Abando, Basurtu, Atxuri, Larraskitu, Errekaldeberri<sup>305</sup>... Bere hiria, bere herria euskara zen<sup>306</sup>. Bere euskara mordoiloa aranisten kritikengatik hainbeste nigar sortarazi ziona<sup>307</sup> Bilbo zen: Zazpi Kaleetan, Jardin Txikerran, Barrenkalen, Abandon, Basurtun, Atxurin, Larraskitun, Errekaldeberrin..., izenetan, euskaldun gutxituen ahotsetan entzuten zuen. Laguntasun gehiagoren bila Donostiara joango zela aitortu arren<sup>308</sup>, Arestik ezin zuen utzi bere hiria, euskal hiria. Ito egingo zen hiri, herri abstraktu bat zapaltzen bazuen. Euskal Herria, bere Euskal

---

303 Azurmendi, J.: "Aresti: sentsibilitate konkretu bat", *op. cit.*, 14.

304 *Ibidem.*, 17 or.

305 *Ibidem.*, 15 or.

306 Azurmendi, J.: "Arestiren tintazko bataioaz", *op. cit.*, 135 or.

307 *Ibidem.*, 136, 139, 141 or.

308 *Ibidem.*, 139 or.



Herria zen: txistulariak, bertsolariak, bere aitaren etxea, euskal arraza hori ere<sup>309</sup>, tradizioak, Foruak, historia Larrabetzun, Gernikan, Saibigainen<sup>310</sup>.

Gai abstraktuak erabiltzen dituean ere jaitsi egiten ditu mundura: itxaropena, zurea da, nirea<sup>311</sup>. Kategoria ideologikoak larru-azal bakoitzaren kolorekoak egiten zituen<sup>312</sup>. Arestik bidea ongi arkatu zuen: sentsibilitatearen konkretutasunak konkretutasunaren sentsibilitatea dakar suposatzen du Azurmendirentzat<sup>313</sup>.

## **Ettienne Salaberri, Manex Erdozaintzi-Etxart**

Ipar Euskal Herrian ere aurkitzen du Azurmendik konkretutasuna, Etienne Salaberri eta Manex Erdozaintzi-Etxart aztertzen dituean.

Salaberriren eraldaketa ideologikoa oso esanguratsua da: frantses eskolan, frantses ideologian hezia, berak hainbeste salatuko zuen kontzientziaren domestikazioa eta alienazioa<sup>314</sup> barneraino sarrarazi zitzaiola, frantses nazionalista izan dena abertzaletasunera lerratu da<sup>315</sup>. Aldaketa politiko hori nazien preso zelaian dagoela gertatu zaio,

---

309 Azurmendi, J.: "Aresti: sentsibilitate konkretu bat", *op. cit.*, 15, 19 or.

310 *Ibidem.*, 15-16, 20, 21 or.

311 *Ibidem.*, 14 or.

312 *Ibidem.*, 15 or.

313 *Ibidem.*

314 Azurmendi, J.: *Etienne Salaberry II. Bere pentsamenduz (1903-2003)*, *op. cit.*, 76-80 or.

315 *Ibidem.*, 31 or. Bitxia da nola errepikatzen diren nortasun abertzaleak berreskuratzeko prozesuak Salaberriengan eta Lè opold Sédar Senghor senagaldar jatorriko idazlearengan, hain zuzen, 2. Mundu Gerran Frantziaren alde borrokatu eta gero (ikus, Azurmendi, J.: "Irakurketari jarraituz gogoetan", *op. cit.*, 4 or.).

Azurmendik arakutzen duenez: konturatu baita, gizon-emakumea, klasearen edo kategoria abstraktu bat baino lehen, herrikidea dela, lagun hurkoa<sup>316</sup>. Gero, Eskal Herrira etorrita, arindu egin da bere garapena: lurrak errotzen baitu bat, etxekotzen baitu bat, tinkotzen gaitu leku eta historia batean moral batean, azkenean, gizatasun batean<sup>317</sup>.

Salaberriren herria idealizatu samarra, dantza, pilota, base-  
rria da; kantak, atsotitzak, irrintzia; festak, jokoak, lagunarte-  
tea; baina baita ere, hizkuntza eta haren barnean adieraz-  
ten den arima; fede konkretu bat, moral konkretu bat<sup>318</sup>.  
Manex Erdozaintzi-Etxartengan errepikatu egiten da, oro-  
bat, konkretutasun hori. Aresti egiazko herriaren bila zebi-  
len bitartean, Manexek aurkitua zeukan herri konkretu  
hori Ipar-aldean<sup>319</sup>: loreak, arbolak, bideak Euskal  
Herrikoak; iturrietan, pentzeetan..., izen propioak; umeak,  
laborariak, abereak, lan-tresnak; izarrak; injustizia, niga-  
rra..., denak bere herrikoak<sup>320</sup>. Haragia agertzen da  
Manexen poemetan<sup>321</sup>. Ideologikoki ere, fanatismo guztien  
gainetik, formula praktikoak bilatzen dira: autogestioa,  
kooperazioa, aurpegi gizatarreko sozialismoa, askatasun  
konkretu bat<sup>322</sup>.

---

316 *Ibidem.*, 31, 92 or.

317 *Ibidem.*, 33 or.

318 *Ibidem.*, 33, 64-68 or.

319 Azurmendi, J.: "Manex nire oroipenean", JAKIN, 96, Donostia, 1995, 14-15 or.

320 *Ibidem.*, 18 or.

321 *Ibidem.*, 16 or.

322 *Ibidem.*

## Bitoriano Gandiaga

Konkretutasun berbera, berriro ere, Gandiagarengan<sup>323</sup>, naturarekin, lurrarekin oso lotua: iturri hori, lur hori, arbola hori, sasi hori..., herri xume-xume hori, Arantzazuko poetaren oinen azpian<sup>324</sup>.

Mendien izen propioei begiratzen dienean, herentzia sakratu bati bezala, bide zaharrak oin-begiekin errepasatzen dituenen, Gandiagak Arantzazu oso bat interpreta-tzen du<sup>325</sup>. Arantzazu konkretu bat, eremu batean, denbo-ra batean; sentsuen Arantzazu bat, ez izpiritu abstraktua-rena, baserri eta artzain lurralde bat<sup>326</sup>. Mendia, basoa, lanbro eta euria, udaberria<sup>327</sup>. Izan den eta izango ez den mundu bat, agian<sup>328</sup>. Espiritualitate hori guztia, ideologia bat da, munduan egoteko modu bat, lurrarekin izateko ahalegin bat<sup>329</sup>.

Gauza txikiak egiten dituen herria da berea, ez ordea, gauza handiak egiten dituen<sup>330</sup>. Batetik, euskaldun rustiko eta oihesa, artzainak eta laborari pobreak, jende xume eta apala, jende marjinatua; ez, ordea, handikien eta ospetsuen herria<sup>331</sup>. Baina, industriaren mundua ezagutzen duenean

---

323 *Ibidem.*, 17 or.

324 Azurmendi, J.: "Hitzaurre moduan", in B. Gandiaga, *Adio*, Elkar Donostia, 2004, 15 or; *Azken egunak Gandiagarekin*, Elkar, Donostia, 2009, 16 or.

325 Azurmendi, J.: *Azken egunak Gandiagarekin*, *op. cit.*, 10-11, 16 or.

326 *Ibidem.*, 54 or.

327 *Ibidem.*, 72 or.

328 *Ibidem.*, 15 or.

329 *Ibidem.*, 20 or.

330 Azurmendi, J.: "Hitzaurre moduan", *op. cit.*, 21 or.

331 Azurmendi, J.: *Azken egunak Gandiagarekin*, *op. cit.*, 16, 36, 39, 393 or.

ere, ez du hausten konkretutasunaren begirada: Plaentzian, Bergaran, Eibarren ezagutzen du industrializazioa; dragak, motozerrak, zilindroak, eskaiola eta buztina, mailua, trintxa, tailerra, labea, andamioa<sup>332</sup>... Klase berean sartzen ditu pobre guztiak, herritarren klasean<sup>333</sup>.

Euskararen herria da berea, erresistentziaren herria, mendez mende ezin-ikusiz zigortutako herria<sup>334</sup>; izatera, heltzera iritsi ez den herria; narratzeko, alienazioaren historia besterik ez duen herria<sup>335</sup>.

## **Lurrez betetako konpromisoa**

Uste du Azurmendik, konkretutasun hori, euskal poesian, nahikoa izango litzatekeela abertzaleok herri abstraktu eta esentzialista bat eraikitzen dugula salatzen dutenei erantzuteko<sup>336</sup>. Baina, badaki, ikusi nahi ez duenak ezin duela hori ikusi, *itsu* iraun nahi duela, esango genuke Wittgensteinekin.

Noizbait ikusiko bada, erakutsi egin beharko da, konkretutasunetik jarraitu beharko dugu optika zaharra berritzen, lurrarekin, hizkuntzarekin, lurrean sortu den giza aberearen izaerarekin, herriaren estiloan, apaltasunez. Hasiera-hasieratik izan du hori argi Azurmendik:

Artea herriarena da, ta herriaren alde jokatzu burrukatuz

---

332 *Ibidem.*, 81 or.

333 *Ibidem.*, 133 or.

334 *Ibidem.*, 183, 389 or.

335 *Ibidem.*, 38-39 or.

336 Azurmendi, J.: "Manex nire oroipenean", *op. cit.*, 15 or.

desarrollatu behar du. Herri lausengari ez, baino herritar izanez, noski<sup>337</sup>.

Inguruabar horretan polemizatzen du Azurmendik euskal idazleen tradizio luze bat haustera datorren belaunaldi berri moderno batekin haien ekarpenaren balioa inondik inora gutxiesten ez duen arren: Izagirre, Saizarbitoria, Atxaga eta abarrekin, Pott eta *Panpina Ustela* aldizkarien izpirituarekin, hain zuzen, soilik literatura egin nahi dutela aldarrikatzen dutelako, alegia, beren burua euskal kultur-gintzan integratzeko arazoak ikusten dituztelako<sup>338</sup>.

Euskal literatura zer den, zer ari den, interes eta kontzeptuen testuinguru zehatz batean egiten da galdera: situazio konkretu batean, kondizio jakin batzuen artean. Galderak badu bere sentido espazio zehatza. Errealitate mugatu eta jakin bati erreferitzen zaio, kultur eremuan batipat, baina historiarekiko erreferentzian ere bai. Eta errealitate konkretu hori, bere erlazio mundu guztiarekin<sup>339</sup>.

Eta, aurrerago:

Euskal literaturaz badihardugu, literaturaz dihardugula ta, ezin ahantz genezake adjetiboa: eta *euskal* horrek ez du hizkuntza bakarrik adierazten, zeinetan espresatzen den literatura hau, baina gure egoera guztia. Gure egoera eta (gure) literaturaz edonola hitzegiteak ez dauka sentidorik<sup>340</sup>.

---

337 Azurmendi, J.: *Artea eta gizartea*, op. cit., 92 or.

338 Azurmendi, J.: "Euskal literaturaren orainaz eta geroz", op. cit., 446 or.

339 *Ibidem.*, 406 or.

340 *Ibidem.*

Euskal literatura berrian, urte haietan gertatu zen fenomeno interesgarri, prometagarri eta pozgarrienarekin<sup>341</sup>, diferentziapen prozesu bat datorrela badaki, halere, literatura arazo espezifiko eta autonomo bezala gauzatzea ekarriko duena<sup>342</sup>. Baina, halere, diferentziapen prozesu horrek bere mugak dituela ere badaki: idazle batzuk, esaterako, Txillardegi baten edo Gandiaga baten autokonprentsiolari eutsiko diote, alegia, literatura, euskal kulturaren barruan, herrigintzarekin lotua ulertzen jarraituko dute<sup>343</sup>; baina, besteek, literaturaren zentzurik autonomoena aldarrikatzen dutenek ere, ez dirudi erraz utziko dutenik euskararen esparru konkretua.

Euskal literaturaren esparruan, euskaraz idazten duten idazleak ez ezik, euskaraz argitaratzen duten argialetxeak, euskal literaturaz interesa duten hedabideak, euskaraz irakurtzen duten irakurleak edo euskal liburuak aholkatzen dituzten irakasleak baitabilta —besteak beste—, beti ere, literaturaren gako autonomoei begira bainoago, seguruenik, euskalgintzaren dinamika osoari engaiatuta.

---

341 *Ibidem.*, 447 or.

342 *Ibidem.*, op. cit., 430, 446-447 or.

343 *Ibidem.*, 446 or.

## ERABILITAKO BIBLIOGRAFIA

OHARRA: bibliografia honetan Azurmendiren lehen garaiko testu gehienak falta dira, lan hau burutzeko ez bainaiz irten etxeko liburutegiko mugatik. Orixeri buruzko testuak irakurri ezin izanak sortarazi dit hutsune handiena. Beste liburutegi batzuk arakatzten hasi naizenerako, ordua erakutsi dit erlojuak. Hurrengo batean kitatu beharko dut zorra.

AZURMENDI, J. (1967): "Gaurko aleman lirikaz, euskal poesiaz", JAKIN, 25, Arantzazu, 24-41 or.

(1975): Gizona abere hutsa da, JAKIN, Arantzazu.

(1977): "Irlanderaren paraderoa", JAKIN, 1, Arantzazu, 100-116 or.

(1977): "PNV eta euskal indarren batasuna", JAKIN, 1, Arantzazu, 117-122 or.

(1978): Artea eta gizartea, Kriseilu, Donostia.

(1978): "Euskara, XIX. mendeko aldizkari alemana", JAKIN, 8, Arantzazu, 108-122 or.

(1978) "Fisologia berria: Krisi luze bateko produkto", JAKIN, 8, Arantzazu, 61-111 or.

(1981): "Euskal literaturaren orainaz eta geroz", in Askoren Artean, *Euskal linguistika eta literatura: bide berriak*, Deustuko Unibertsitateko Argitarazioak, Bilbo, 1981, 405-452 or.

(1983): "Josu Landaren Gerraondoko poesiaren historia", JAKIN, 29, 1983, 167-172 or.

(1984): "George Orwell, idazle enpeinatua. 1984: Reality exists in the human mind", JAKIN, 32, Donostia, 87- 103 or.

(1984): "Entretien d'un philosophe: Diderot", JAKIN, 32, Donostia, 111- 121 or.

(1985): "Aresti: sentsibilitate konkretu bat", JAKIN, 36, Donostia, 5- 30 or.

(1985): "Victor Hugo Euskal Herrian", JAKIN, 36, Donostia, 137-

- 166 or.
- (1986):“Orixe-ren inguruko garai-giroaz”, JAKIN, 39, 1986, 119-139 or.
- (1987):“Diskurtso berria mintzaira zaharraren baitatik”, JAKIN, 42-43, Donostia, 119-141 or.
- (1989): *Schopenhauer, Nietzsche, Spengler, Miranderen pentsamenduan*, Susa, Donostia.
- (1989):“Nietzsche-ren itzal argia. Ohar orokor Miranderi sarre-rakoak”, in, Baloreak gizartean, UEU, Iruñea, 11-152 or.
- (1989): “Miranderen kritika Iraultza Frantsesari”, JAKIN, 52, 1989, 69-87 or.
- (1989):“Miranderen kritika Iraultza Frantsesari (II)”, JAKIN, 53, 1989, 81-114 or.
- (1990):“Politikatik zer itxaron kulturari”, JAKIN, 58, Donostia, 169-179 or.
- (1990): “Beste anekdota bat: Euskadiko PK eta Errepublika Baltikoak”, JAKIN, 60, Donostia, 77-114 or.
- (1990): “Karlos Santamariari omenalditxo gisa”, JAKIN, 61, Arantzazu, 87-108 or.
- (1991): *Gizaberearen bakeak eta gerrak*, Elkar, Donostia.
- (1991):“Arestiren tintazko bataioaz”, JAKIN, 62, Donostia, 129-142 or.
- (1991): “Filosofia pertsonalistaren maisu bat: Karlos Santamaria”, JAKIN, 65, Donostia, 63-87 or.
- (1991): “K. Santamaria: askatasunaren eta bakearen borrokalaria”, JAKIN, 66, Donostia, 45-63 or.
- (1991): “Hitzaurrea”, in, Kant, *Prolegomenoak*, Klasikoak, Bilbo, 1991, 7-29 or.
- (1992):“Esencia y esencialismo: análisis de un concepto. Notas para una relectura de Herder”, in Palacios, X., *Ética y nacionalismo*, Nazionalismo Konparatuen Ikasketarako Institutua, Gasteiz, 163-220 or.
- (1995):“Manex nire oroipenean”, JAKIN, 86, Donostia, 11-26 or.



(1996): “Kant eta Mendelssohn: arrazoimena ezbaian”, Uztaro, 16, UEU, Bilbo, 57-65 or.

32

(1997): *Demokratak eta biolentoak*, Elkar, Donostia.

(1997): *Gizakiaren filosofia ilustratutik antropologia filosofikora* (testu-hautapena eta sarrera), JAKIN Irakurgaiak, 4, Donostia.

(1997): “Joan Mari Torrealdai: 25 urte JAKIN-en zuzendari”, JAKIN, 102, Donostia, 85-109 or.

(1997): “Santamariaren pentsamendu atarikoak”, Uztaro, 20, UEU, Bilbo, 61-76 or.

(1997): “Metafisikatik historiara”, hitzaurrea, in G. W. Leibniz, *Metafisikako diskurtsua*, JAKIN Irakurgaiak, Donostia.

(1998): *Espainolak eta euskaldunak*, Elkar, Donostia, (Lehen argitaraldia, 1992).

(1998): *Oraingo gazte eroak*, Enbolike, Irun.

(1998): *Teknikaren meditazioa*, Kutxa Fundazioa, Donostia.

(1998): “Mirande berriro”, JAKIN, 106, Donostia, 31-43 or.

(1998): “K. Marxen eboluzioa *Manifestu*-ra arte. Hegelen idealismotik materialismo historikora”, hitzaurrea, in K. Marx; F. Engels, *Alderdi Komunistaren Manifestua*, JAKIN Irakurgaiak, Donostia.

(1999): *Euskal Herria krisian*, Elkar, Donostia.

(1999): “Sokrates: krisialdiko pentsalaria”, in Platon, *Sokratesen Defentsa*, JAKIN Irakurgaiak, 11, Donostia, 7-79 or.

(1999): “Goethe: literatura nazional unibertuala”, JAKIN, 111, Donostia, 63-99 or.

(1999): “Txillardegiren saioa: hastapenen bila”, JAKIN, 114, Donostia, 17-45 or.

(1999): “En agradecimiento a Pierre Vilar”, in Vilar, P; J. Azurmendi, *El hecho catalán. El hecho portugués*, Hiru, Hondarribia, 7-30 or.

(1999): “Topoi nacionales/nacionalistas en el Renacimiento: ‘Os Lusíadas’ de Camões”, in Vilar, P; J. Azurmendi, *El hecho catalán. El hecho portugués*, Hiru, Hondarribia, 125-209 or. (Jatorrizkoa,

- euskaraz, in, Garzia, P; I. Zaldua: *Historia: zientzia ala literatura?*, UEU, Bilbo, 1995, 89-146 or.).
- (2000): *Joxe Azurmendi*, XX. mendeko poesia kaierak, Susa, Zarautz.
- (2000): "Etorkiaren mitoak eta genealogiak", Egunkaria, X-15.
- (2000): "Karlos V.a eta bere asaba Noe", Egunkaria, X-15.
- (2001): "Heidegger, Sloterdij eta (in)humanismoa", JAKIN, 122, Donostia, 85-91 or.
- (2003): *Etienne Salaberry II. Bere pentsamenduaz (1903-2003)*, EGAN.
- (2003): "Victor Hugoren etxean Pasaian", JAKIN, 138, Donostia, 11-30 or.
- (2003): "Humboldt eta Renanen nazio kontzeptua", in *Wilhem von Humboldt: Euskal Herria arakutzen*, 1801, Riev, Eusko Ikaskuntza, Donostia, 91-124 or.
- (2003): "Humboldt eta historia: filosofia baten bila", in *Wilhem von Humboldt: Euskal Herria arakutzen*, 1801, Riev, Eusko Ikaskuntza, Donostia, 143-161 or.
- (2004): "Filosofia Modernoa", in Azurmendi, J; J.B. Bengoetxea; J. Garmendia; I. Soto, *Filosofiako Gida*, UEU, Bilbo, 75-88 or.
- (2004): "Antropologia Filosofikoa", in Azurmendi, J; J.B. Bengoetxea; J. Garmendia; I. Soto, *Filosofiako Gida*, UEU, Bilbo, 273-281 or.
- (2004): "Hitzaurre moduan", in, B. Gandiaga, *Adio*, Elkar, Donostia.
- (2006): *Espainiaren arimaz*, Elkar, Donostia.
- (2007): "Hizkuntz ereduen eztabaida", JAKIN, 158, Donostia, 2007, 77-120 or.
- (2007): *Karlos Santamariaren ideiak eta ekintzak*, <http://www.gipuzkoakultura.net/>, 2007an jaitsia.
- (2007): "Epilogo. Irakurketari jarraituz gogoetan", [Ignacio Aiestaranen *Munstro abertzalea* poema-liburuari epilogo], in <http://bbk.armiarma.com/>, 2007an jaitsia.

(2007): *Manifestu atzeratua* [1968koa jatorrizkoa], in <http://www.basquepotry.net/>, 2007an jaitsia.

(2007): *Humboldt: hizkuntza eta pentsamendua*, UEU, Bilbo.

(2007): *Volksgeist, Herri gogoa, Ilustraziotik nazismora*, Elkar, Donostia.

(2009): *Azken egunak Gandiagarekin*, Elkar, Donostia.

(2007) “Hizkuntza, askatasunaren espazioa”, in *Paulo Iztueta euskal pentsamenduaren eraikitzaile*, EHU, Bilbo, 79-109 or.

MENDIZABAL, Lazkano (1975): *Gizona abere hutsa da*, JAKIN, Arantzazu, ikus, AZURMENDI, J., 1975.

## **Joxe Azurmendi. Askatasunaren pentsalaria.**

Andoni Olariaga Azkarate, Jon Jimenez Martinez  
(Filosofian lizentziadunak)

Artikulu honek Joxe Azurmendiren pentsamenduaren oinarriak jarri nahi ditu. Orain arteko bere pentsamendu guzia biltzen duen sintesi bat egiten saiatuko gara ondorengo lerroetan. Jakinda, beti ere, aldaketan eta mugimenduan –bizirik– dagoen zerbaiten laburpena eta klasifikazioa –hots, sintesia– egitea benetan zaila suertatzen zaigula filosofiaren kontzeptu abstraktu eta betierekoekin operatzen dugunoi. Eman dezake, horregatik, Azurmendiren pentsamendurekin “bukatzera” etorri garela edo amaitutzat ematen dugula. Ez da hori, ordea, geure intentzioa, ezpada kontrakoa. Aldi berean, bere pentsamendu filosofikoa traizionatzen ari garelakoan egon daiteke norbait bere pentsamenduko aspektu nagusiak eta errepikakorak bakarrik hartzean, pentsamendua, obra eta pertsona bera aldaketarik gabeko zerbait bezala hartu dugulako. Are gutxiago da hori gure asmoa –espazio eta denbora kontuagatik ez bada–.

Azurmendiren pentsamendua ulertezina da mendebaldeko kulturako pentsamendurik gabe. Pentsalari alemanak izan dira berarengan eragin gehien izan dutenak. Horien artean Friedrich Nietzsche agertzen zaigu. Mendebaldeko kulturako dogma guziak agerian jarri dituen pentsalari bikaina. Morala, Estatua, Metafisika, Zientzia eta abarren sustraiak suntsitu ditu. Baina ezin izan du kasik defentsa batera baino erreduzitu bere kritika guzia. Ondorengoak

kritika haiek eskuan hartu eta zerbait berria eraikitzen deituak zeuden. Postmodernoak omen, pentsalari horiek. Analogikoki, esan dezakegu, gure herri txiki honetan, Joxe Azurmendik apurtu dizkigula dogmatismoaren forma hartzen duten kate mental guziak. Hasieran marxismo ortodoxoarekin, geroago Moderniako dualismo metafisikoarekin, hala esentzialismo espainol zein euskaldunarekin, moralaren printzipio absolutuekin eta abar luzearekin, loturak zeuden lekuan askatasunari tartetxo egin nahian funtsatuko da bere borroka. Bizi izan duen eta bizi den mendebaldeko krisiak eta krisi politikoak astindutako Euskal Herrian, ideologiek, zientziek, estatuak eta abarrek lotu duten askatasuna edo askatasun espazioak berreskuratu nahian pasa du bizitza osoa. Kontzientzia eta pentsamendua askatzeko ahaleginak, berriz gatibu dauden honetan, bere obra guzia zeharkatu du.

Esan dugun moduan, Azurmendiren pentsamendua defentsa eta auto-defentsa bat izan da. Bere buruarena, batetik; eta euskal komunitatearena/herriarena, bestetik. Askeago egin gaitu –eta egingo gaitu–, ez bairik gabe. Loturak urratu dizkigu –eta urratzen jarraituko dizkigu–, ziur gaude. Hasiera batean bide malkartsua zena lauago bihurtu zaigu bere eraginez. Bere ondotik gatozenak bide horretatik bertatik ibiltzera “kondenatuta” gaude. “Kondenatu” gaitu Azurmendik. Eta bide horren erdian, egungo euskal filosofia den plazaratu honetan, egin dugu topo gu biok. Eta bide horretatik ibili eta gero, gazte bati, egun Euskal Herrian filosofia egiten duen edozeini bezala, galdera bat –eta erantzuteko premia– etorriko zaio burura, guri artikulu honetan etorri zaigun eran: nola uztartu

liberatutako espazio horiek eta horien gainean egin beharreko sorkuntza lan berria? Nola hasi eraikitzen askatasun horren gainean?

## **Krisian gaude**

Krisian gaude. Puntu horretatik hasi behar da hausnartzen Azurmendiren pentsamendua hobeto ulertu nahi badugu. “Krisi” hitzak, konnotazio negatiboetatik harago, “aldaketa” baino ez du esan nahi. Aldaketa garaian gaude. Eta zein aldaketa? Zein ezaugarri ditu krisi honek?

“Balioen krisia deitu ohi dena egiaz krisi sozial, kultural, politiko, etiko konplexu bat da. Aurrena, errealitate bat da, tradizioaren krisia; beste era batera “mendebaldeko kulturaren” edo modernitatearen krisia ere esan ohi dena.” (1999: 21)

Modernitatearen krisiak tradizioaren fundamentu finko eta absolutu guziak ezbaian jarri dizkigu, Nietzscherekin batera esateko: “Jainkoa hil da”. Ez daukagu ez inor ez ezer seguru eta absolutuki *zer egin* –ongi eta gaizki zer dagoen–, *zer jakin*... esango digunik. Erori gara eta ez dakigu zeri heldu altxatzeko. Aterpe seguru guziak, segurantz seguru guziak, eraman ditu krisiak. Zer egin –Bibliarik gabe, Jainkorik gabe, Argi Ilustraturik gabe, Arrazoimen ahalguztidunik gabe—...? Zeri atxiki?

“...mundu modernotik mila gauza heredatu dugu; baina gu ez gara mundu horietako ez bat eta ez bestekoak, eta

geure mundu bat ez daukagu. Gu puskailetakoak gara. Modernitatea bera guk mila fragmentotan apurtuta jarauntsi dugu. Mundu ikuskera global bezala ez digu balio. Horregatik da larria gure problema (nahiz eta ez izan larriki sentitua).” (2009: 293)

Aurretik pausatu ditugun galderen aurrean, aldiz, galderen –krisiaren beraren– ulerkuntzara baino, haien ukaziora jotzen dugula salatzen etorriko da Azurmendi. Zer dela eta? “Krisiak ikaratu egiten du gizartea. Gizarte ikaratuak ziurtasuna bilatzen du.” (1999: 23) Baina batzuek gure garaia postmodernitate sekularizatu bezala –modernitatearen gaindipen bezala– ikusi nahi izan duten arren, “aurreko” garaiko jarrera dogmatiko berberak ditugu nagusi oraindik gure artean: moralak kristaua izaten jarraitzen du, Estatu kontzientziaraino sartzen den Eliza da... Krisiari erreparatu diezaiogun, filosofoak errealitatea hartu, aztertu eta bertatik abiatu behar duela askotan errepikatu izan digu unibertsiateko klaseetan Azurmendik. Eta ondoren, soilik, kritikatzeko espainiar *intelligentsiak* teoria mailan balio batzuen izate absolutua predikatu izan duen –nola oraindik ere horretan diharduen– eta teoria mailan absolutuki goratuak dauden balio horiek nola ez diren, ordea, de *facto*, inon ematen:

“Gure tragedia da, bizi dugun kulturaren, zurrutotsik ez egitea guretzat absolutua dela, eta ez hiltzea edo ez torturatztea ez dela absolutua.” (1999: 70)

Horixe dugu problema, beraz, errealitatean inon idatzi gabeko mila absoluteurekin funtzionatzen dugula, eta alde-

rantziz, teoria mailan absolutuki printzipio mailara altxatu diren horiek ez direla inon betetzen.

## **Estatua, demokrazia, morala eta biolentzia**

Horrela, besteak beste, Estatuak aipatu krisiaren aurrean giza duintasuna eta bizitzaren santutasuna predikatuko du. Hori predikatzea, ordea, bere sarraskiak justifikatzeko tranpa soila baino ez da izango, “kapitalismoa(n), esate baterako, duintasuna baino ziurrago baitugu hor denok prezioa”. Duintasuna eta bizitza eskubidea giza eskubideen deklarazioan baino ematen ez diren ideia soilak –absolutu eta abstraktu– dira. Azurmendik, beraz, Estatuak errealtatean ematen ez diren balio batzuk moralki absolutizatu eta dogmatizatu egiten dituela kritikatu egingo du, eta Estatuaren morala, orduan, behinola Eliza Katolikoarena zenaren parekoa bihurtu dela. Horren arrazoia zera izango da, Estatuaren fundamentua eta zilegitasuna, gehiengoaren inposaketa batean oinarrituta dagoela, eta beraz, zilegitasun hori kolokan duela. Alegia, Estatuak ez du bere fundamentua demokratikoki eraiki, gehiengoaren indarrarekin baizik. Gehiengoa arrazoi bihurtu du, dogma. *Demokratak eta biolentoak* liburuan ipuintxo labur batekin gehiengoak inposatutako demokraziaren problemak jenialki erakusten dizkigu:

“...demokrazia bat asmatzera gindoazen. Eman dezagun, [...] Pazifikoko irla batera emigratzea erabaki dugula, eta han elkarrekin eramango dugun bizieraren Konstituzio bat idazten dugu: gehiengoak nahi duena egingo da, etab. Bost



mila biztanle gara herrian. Aitona zahar ipurterre batek ordea, Konstituzio testua eztabaidatzen hasi garenean, berari bost axola zaiola, osteratzen digu: berak ez duela Pazifikora ezertara joan nahi, uzteko bakean...[...] Baina orain gehiengo gu gara eta, demokrazian zuzenbide zuzenak dioen eran, lepotik heldu eta behartu egiten dugu gurekin irlara etortzera [...] Eta egurra: <gehiengoak nahi duena egin (nahi!) behar da!>. Handik aurrera hauteskundeetan parte hartu beharko du, gehiengo eta gutxiengoe-tara jostatu, eta beti aurpegi alai jarri, <demokrat onen gisa>... Berak ordea, ezetz [...] Ezin izan dugu kaskagor-rra demokratizatu. Horiek dira Konstituzio bat (gero han-dik jariatzen ei baitira hiritar guzti-guztien eskubide eta obligazio politiko guzti-guziak!) <gehiengoarekin> oina-rritzearen problemak.” (1997: 69)

Estatua, beraz, ez da zilegi oinarrietatik eta oinarrietan, baina bere buruari zilegitasun osoa aitortu nahiko dio, bio-lentziaren monopolioa harentzako soilik gordez. Demokrazia ez dela ezartzen goitik behera, hauteskunde batzuekin eta abar gogorarazten digu Azurmendik orduan, baizik eta oinarrietatik, ahalik eta jende gehienaren behar-rrak eta zirkunstantziak kontuan hartuz egin behar dela. Hau da, ez dira herritarrak gehiengo baten aurrean makurtu behar direnak. Aitzitik, Estatua da barnean dituen gizarteen, nazioen, taldeen eta abarren nahira moldatu eta egokitu behar dena.

Behin eta berriz kritikatu du gaurko Estatu dogmatiko hori, gure kontzientzian sartzen dela esanez, kondena politikoaren exijentziarekin gertatzen den bezala. Oso

posizio argia hartuko du kontzientziaren bortxaketa horren aurrean:

“Ez dut biolentzia kondenatu egiten. Hautu ez biolentzia da neurea, halere, berdin da zergatik, eta biolentziarik ez dut praktikatzten. Zein Estatuk eta San Pedrok esijitu behar dit, eta demokrata baldin bada are gutxiago, neure hautu hori beste guztientzat ere zilegizko bakarra kontsideratzen? [...] Estatuak eta politikoez ez daukate zergatik ezer gehiago eskatu, eta gutxien-gutxiena daukate zergatik nire kontzientziaren barruan ezertarako sartu.” (1999: 101)

Hemen ere, kontzientziaren askatasunaren alde borrokan egingo du sutsuki. Eta beraz, demokraziaren fundamentuetan pentsatu nahiko du. Ez hutsean, gure herrian ematen den egoera konkretuan baizik. Demokraziaren oinarrietan arakatzea funtsezkoa irudituko baitzaio errealitatean ematen diren elementu desberdinak hobe ulertzeko: biolentzia politikoa, kasu. Eta gogoraziko digu, arazo politikoa-ekin sortzen diren problema etikoak, teorikoak baino, praktikoak direla. Eta ondorioz, problema horiek errealitatean bertan dauden elementuak, aldeztatik, ukatuz baino, errealitateko elementuak onartuz haiek sakonean aztertu eta krisitik “irtenbide” posibleak lantzea izan beharko dela gizartearen egitekoa. Eta horrela, gizartea demokratikoki eraiki beharko da, inork biolentzia zilegiztat hartu ez dezan.

## Gizarte perfektuaz

Antolamendu sozial justuena pentsatzeko saiakera batzuek (marxismoa, liberalismoa...) sistema hertsietan bildu, eta gizarte perfektu bat posible dela amestu dute. Azurmendik gogoraraziko die gauza bat ahaztu egin zaie-la; alegia, gizakia animalia dela. Horixe da Azurmendik ekartzen digun ideia simple baina sakonenetariko bat. Gizakia borrokalaria da, pasioei men egiten diena, eta era berean haien kontra doana ere, hau da, bere naturaren kontra doan animalia bakarra da. Agresibitatearen problema hagitx sakon aztertuko du beraz, eta ondoren modernitateak gizakiaz zuen irudi inozoa jaso izana kritikatu-ko du. Ikuspegi edo mentalitate hori, gure herrian, bai libera-lek zein sozialistek, biek ala biek jaso duten modernitate-aren ondarea dela salatuko du. Batzuentzat gizakia txarra da naturaz, besteentzat ona. Azken horientzat, zibilizazioak edo gizarteak ekarri dizkio gaitz guziak gizakiari, behinola Rousseauk esan zuen bezala.

Azurmendik, ez du ez bata ez bestea onartuko. Hau da: gizakia ez da ez ona ez txarra naturaz. Agresiboa da, baina baita soziala ere. Espelikazio simple honekin nora heldu nahi da? Bada gizakiak borroka egiten du, bere bizitzagatik, bizi den lur zatiagatik, jateko zerbaitengatik, eta abar gehiagorengatik. “*Beldurgarri, gauza asko da; eta ezer ez beldurga-rriago, gizona baino*” (Sofokles; Antigona: 332-333). Gizakia borrokalaria da, animalia, eta halaxe izaten jarraituko du. Horregatik, Azurmendik Freuden tesiari pixka bat jarrai-tuz, elkarrekin bizitzeko gizartearen errepresioaren beha-rra azpimarratuko du. Horrek nahitaez gizakia bere natu-

raren kontrara biltzea eskatzen du. Hori da gizakiaren paradoxa. Eta beraz, paradoxa handi horretatik gizarte perfektu batean bizi gaitezkeela pentsatzera iristea, Moderniatik jaso dugun aurretik aipatu mentalitate hori oinarrian izanda pentsa daiteke soilik. Honen harira kontuan hartzekoa da Azurmendik dioskuna:

“Ideologia guziak dira utopikoak. Utopia ez da utopismoa. Utopia berez positiboa da. Utopismoa, herriaren energiak dohan kiskaltzen dituen gaitza. [...] Oraintxe eta hemen-txe, orriotan, zerbaitetan erori nahi ez badugu, fede berri batean da, hortakoz. Fedeak, edo kredoak behintzat, nahia-go ditugu denak galdu, berriak asmatu baino.” (1975: 228)

Gizartea askeago eta justuago bihurtzen lagundu dezakeen balio multzoak izan daitezke. Aldiz, kasu honetan gizarte perfektu baten ameskeriaz itsututa, idealarengatik gizakiak aurretik eramateko prest dagoen eta gizakiaren animaliatasuna onartzen ez duen sistema da utopismoa. Gizakia naturaz ona delako eta gizarteak gaiztotu duelako Rousseaturen ikuspegi desfasatu horretan funtsatzen da beraz.

Gizarte perfektuak, hortaz, gelditasun absolutua suposatuko luke. “Pax perpetua” bat. Arazoak betiko bukatu dira eta ez dago jada zertan kezkatu. Irrotasun eta hertsitasun horiek, ordea, zein puntutaraino ez dute lotuko gizakia? Zein puntutaraino kenduko diote askatasuna? Mugimendua eta, batik bat, mugitzeko ahalmena kentzen bazaio gizakiari, erraz eta motzean: askatasuna kentzen zaio. Posibilitateak itxi zaizkio. Etorkizuna, iragana eta orai-

na batu egin dira eta bat izango dira betiere, eternalki. Ez betiereko itzulera batean, baizik eta betieretan, mugimendurik gabe. Mugimendu ezean. Naturak eta kulturak (gizartea, zibilizazioa...) bat egin dute. Elkar dominatu dute batak bestea.

## **Natura/ kultura**

Natura eta kulturaren arteko dikotomia izango da, hain zuzen, Azurmendiren gai “kuttunetako” bat. Dikotomia honetan askatasunari zein espazio, zein leku, gelditzen zaion zehaztea izango da bere helburuetako bat. Izan ere, dikotomia hau ez da berria filosofian, Azurmendik berak idatzitako lehen liburuetan garatutako gai bat dugularik. Giza naturari dagokionez, problematikoa den gaia dugu oso, atzean lotura-askatasunaren arteko talka ezkututzen baita. Arazoaren adiera klasikoan: naturak gizakia lotu egingen du, finkoa den zerbait ezartzen dio; kulturak (gizarteak, historiak...), aldiz, askatasuna suposatzen du. Natura bat da, kulturak anitzak. Eskema horrekin apurtu nahi du Azurmendik. Bi eratan:

Natura/kultura dikotomia faltsua da. Hots, naturaren eta kulturaren artean ez dago halako jauzi kualitatiborik. “Absurdia [bailitzateke] naturak gauza ez-naturalak sortzen dituela pentsatzea. [...] Aitzitik, natura eta kultura, [...] “eztirade konfus, baina zein bere; ez ordea separatuak. Eta gizona animalia, kito. Ez konfus, baina ezta ere separatuak.” (1991a: 199). Gizakia eta bere produktu guztiak natura dira. Ez gehiago ez gutxiago. “Onar dezagun, gizona abere bat dela, abere hutsa. Historia guzia abere

honen historia dela bestelako promesarik gabe.” (1975: 143) Naturatik haraindi ez dezagun izaki metafisiko goren bat eraiki/sortu. Ez dezagun natura bera printzipio absolutu eta kateatzaile bihurtu.

Hortaz: “natura bat/kultura anitzak” dikotomia, aurrekoa bezain faltsua da. Aurrekoaren aurkako arrazoi berberengatik. Natura bat dela onartzean, lotura bat, kate bat, sortu dugu eta gizakiari jarri diogu. Giza natura aldazina eta eternoa litzateke. Puntu horretatik dena eratorriko litzateke eta handik kanpo ez legoke ezer. Puntu arkimediko baten erara funtzionatuko luke. Beste hainbat puntu arkimediko bezala. “Jakina: lehen arrazoimenaren edo eta historiaren helburu absoluturen baten esklabo bazen, ez dezagun gizona orain natura absolutuaren esklaboa bihur. Gizonaren natura[k] kostituzio irekia du.” (1975: 143).

Zein da soluzioa, ba, kateetatik askatzeko? Naturan bertan askatasuna sartzea. Hots, giza natura aldagarri bihurtzea. Mugimenduan jartzeta. *Des-absolutizatzea*. Kultura naturalizatu eta natura *des-sakralizatu*. Gizakiaren nortasuna irekia da, librea. Naturak eta testuinguruak (kulturak) determinatu egiten du. Baina libreki. Giza nortasunaren garapena askea da. Ez dago, ez dauka determinazio absoluturik. Ez bide hertsirik. Behin korapilo hura askatuta, zein da ibili beharreko bidea? Nola “eraiki” behar da gizakiaren nortasuna hain zalantzazkoak eta labainkorrak diren uretan? Galderari –beste- erantzun absolutu bat eman nahi dionarentzat, abisu bat ere uzten du zegamarrak:

“Gure obligazioa dirudi XVIII. mendearen alferrikako berbizkunderik ez frogatzea. Ilustrazioak, gizonaren “natural-

tasunean” interesaturik, eta bere arrazionalismo guztizko-arekin, natura *humanizatu* zuen, hein batetan behintzat (Rousseau). Gero, arrazoimen sasinatural haren arbuioz, baina funtsean arrazionalismo berdintsuz, historia absolutizatu zen, gizonaren askatasuna historiaren jainkoaren bati gomendatuz. Har dezagun natura den bezala, eta historia ere benetan agiri duen “naturaltasunez” (1975: 143)

## **Historia**

Eta zer eman ahal dio historiak gizakiari, gizaki hauei, gorputz hauei? Beren askatasunari? Zer eskaini?

Historiara joan ohi gara beti etorkizuneko proiektuak justifikatzera. Historiak “egia” bat ezkutatuko balu bezala eta bertan arakaturik gero etorkizunerako planek oinarri sendo bat izango balute bezala. Hegelek hori egin du, adibidez. Historia guzia Ideia edo Arrazoi bateranzko bidean balego bezala irakurri eta Ideia batetik baletor bezala ikusi du. Te(le)ologikoki. Horrek zer suposatzen digu? Lotura bat. Historiak norabide finko eta zehatz bat baldin badauka gizakia horretara kateatuta egongo da seguru. Helburu bat(zuk) betetzera derrigortuta. Edo, bestera esanda:

“Historialari garaikide enpiriazaleak besterik uste izaten badute ere, apenas dago ikerlandarik metafisikaren interferentzia gehiagorekin historiarena baino. Mugatzeak –ikerketa gertakari jakin batera mugatzen denean– mugaz gaindikora igortzen gaitu: gertakari ikertua ez da osotasun handiago baten zati bat baino (eta isilpean historia uni-

bertsal bat suposatuz mintzo gara horretaz); agenteak ez, gizadiaren zati bat baino (eta horietaz antropologia bat suposatuz bakarrik mintzo ahal gara).” (2007: 143)

Edo, beste era batean ere: historiaren ikuspegi ideal horrekin batera metafisika bat suposatu –behar– dugu. Pentsamendu dialektikoa, marxismoa barne (eta batez ere); kristautasuna; liberalismoa; Ilustrazioa... historiaren ideia berean funtsatu dira: hoberanzko (perfekziorainoko) progreso bat eta iragan loriatsu bat. Paradisu bat iraganean eta etorkizunean. Lehen genion moduan: gizarte perfektu bat. Historiaren ikuspegi horrek zama bat suposatzen dio gizakiari –*historiaren jainko bat*. Atzean daukan zama, baina etorkizunerako ere izango duen zama. Eta zama horrek, argi dago, askatasun eza suposatzen du. Historiak –historiaren ideia absolutu eta absolutizanteak– giza nahimena, desioa... itzaliko ditu, lurperatu, bai atzerabidean zein aurrerabidean. Eta Euskal Herrian...

“Euskaldunek sekula Nafarroako Erregerik, eta Forurik, eta demokraziarik, eta Gernikako Arbolarik, eta karlismo-rik, izan ez balute ere: zer? Eta euskaldunek Nafarroako Erresuma eta Foruak eta demokrazia eta beste loria handi asko izan badute ere: zer? Orain eta hemen bizi gara. Ez goaz iraganaldira. Etorkizunera goaz.” (1992: 561)

## **Erlatibismo erlatiboa**

Joxe Azurmendik krisi etiko, sozial eta politiko sakon eta konplexuan dagoen eta handik alde eginez dogmatismora



ihes egiten duen kultura honetan jarrera tinko bat hartuko du: erlatibismo erlatiboarena. Hau azaldu aurretik –edo hobe, hau ulertu dezagun-, galdera garrantzitsuena hau da: nola egiten gaitu erlatibismo erlatiboak loturetatik (dogmatismotik) askeago? Erlatibismoa, *clichétzat* hartzen da egun, eta desitxuratu. Azurmendik zera gogorarazten digu: “tonto desinteresatuek eta listo interesatuek bakarririk hartzen dute[la] erlatibismo hori denak berdin balio izatea bezala. Burutsuak, zuhurtasunezko bere lanaren abiapuntu modura ulertuko dizu.” (1991b: 78) Hau da, “hortik hasi beharra dago, eta horretan ez dago milimetro bat amore ematerik. Balio denak erlatiboak dira, arrazoiak ere denak erlatiboak dira. Ez dago balio absoluturik. Ongi eta gaizki absoluturik.” (1999: 35) Baina kontuz, “askotan gure hizkuntzak engainatzen gaitu: erlatibotasunak ez du balio eskasa edo inportantzia gutxi esan nahi; esan nahi du, guk ezagutzen dugun oro, kondizio batzuekin eta harreman edo erlazio sistema batean ezagutzen dugula.” (1999: 39).

Beraz –aitzineko galderara bueltatzeko– nola egiten gaitu erlatibismoak askeago? Edo –hobeto– zein loturetatik askatzen gaitu? Azurmendik arras argi azaltzen du, Grezian sofistek bultzatu zuten “dena iritzia da” doktrina (gogoratu Protagorasen lehen erlatibismo hura, adibidez) iraultza bat izan zela orduko boterearen kontra. Sofistek azpimarratuko dute boterearen fundamentuak erlatibizatuz, hauek ez direla eternalak eta testuinguru historiko –gizarte, kultura, denbora, espazio geografiko, klima, pertsona... konkretu– batean gauzatzen direla –eta beraz aldakorrek direla– (gogoratu, orain, egungo Espainiako Konstituzioko “la unidad indivisible”-ren eternaltasuna).

Galdetu genezake ordea: zergatik ez erabili pluralismo hitza hain satanizatua dagoen erlatibismoaren ordez? Azurmendik argi du: pluralismoaren erabilpena oraindik geratzen diren arrasto dogmatikoak ezkutatzeko tranpa besterik ez da. Horregatik, boterearen kontra –probokazio bezala ere nahi bada–, erlatibismoa oso tresna eraginkorra deritzo. Botereak bere buruari ematen dion zilegitasun ahistorikoaren kontrako tresna bakarrik ez, batez ere, edozein ideia dogmatikoren kontrako ezinbesteko txertoa dugu erlatibismoa.

Hau da, mendebaldeko krisiak fundamentu gabeko gizarte batera eraman bagaitu, eta kriterio absoluturik ez badago ongi edo gaizki zer dagoen bereizteko, edo antolamendu politiko egokiena zein den erabakitzeko, zer egin behar da? Azurmendiren erantzuna: krisian bizitzen ikasi. Nola? Printzipioz, balio eta biziera forma desberdinak aldeztu aurretik ukatu gabe balioen politeismoan bizitzen ikasiz. Horra, erlatibismo erlatiboak bakarrik eraman gaitzake.

## **Hizkuntza, askatasunaren espazioa**

Posizio hori hizkuntzarekiko duen jarreran barnebiltzen da argien. Labur-laburrean esateko: hizkuntza erlatibismo erlatiboaren espazioa da. Askatasunarena. Azter dezagun, geure aburuz, Azurmendiren pentsamenduan garrantzi handien duen esparru hau.

Sarreratxo gisa-edo, aipatu behar dugu hizkuntza eta pentsamenduaren arteko harremana pentsatzearen auzian, zegamarrak ekarri duela hobekien gure artera zientzia berrien eta filosofia klasikoaren arteko uztarketa.

Hemen ere dogmatismoaren kontra ibili da. Zer egiten du hizkuntzalaritzak? Zer biogenetikak? (Hizkuntzaren) Filosofiak? Hizkuntzaren edo gizakiaren ezaugarri konkretu batera lotzen dute hizkuntza. Hizkuntza bakarrik gramatika da, hizkuntza komunikazio tresna soila da, hizkuntza konkretuek hizkuntza unibertsal batean dute beren jatorria... Hau da, disziplinartea baino, erredukzionismoa (izan) da nagusi gai honetan ere (Pinker, Chomsky...). Eta horrekin batera ere, dogmatismoa eta esentzialismoa. Finean, betiko arazoa: “Askatasuna versus ordena, berriz ere?” (2007: 404).

Aurreko zitaren ildoari jarraiki, Azurmendik defendatuko duen tesia da hizkuntza ez dela bakarrik gramatika, hizkuntza ez dagoela hilda. Eta ez dela geldirik aztertu behar. Azaltzen hasteko, planteatzen ditzagun galdera batzuk. Zerk egiten gaitu “gu” izatea? Zer gara? Aterpe seguru bila ibili da gizakia historian. Grekoek naturan bertan zeukaten berea, ez oso segurua dena den. Erdi Aroan Jainkoa zegoen dena arautzeko. Modernian Arrazoimena. Moderniaren bukaera aldera Progresoa, Justizia... Natura ere, Arraza, Estatua, Arima, Izpiritua, Historia... Horiek denak Ideia edo Printzipio absolutu izan ditu gizakiak noizbait. Baina horiei denei Nietzschek lehenik eta Heideggerrek geroago –eta “efikazago”– amaiera eman diete. Horren guziaren sunsiketaren ostean etorri zaigu Azurmendi –bera ere tematu da gure artean oraindik zirautenak garbitzen– Europako “nobedadeak” Euskal Herrira aplikatzera. Eta paragrafo hasieran planteatzen genuen galdera bera atzean daukala esan genezake: zerk egiten gaitu “gu”? Zehazkiago –lokalago–: zerk egiten gaitu euskaldun?

Esentzia guziak erori zaizkigu bidean. Historiak bakarrik ez gaitu egiten, ez baitauka zentzu intrintsekorik, barnekorik, esentzialik. Eta berdin Arraza edo –arrazoi handiagoz oraindik– Estatuak. Ez dago *euskal* dei genezakeen Izpiritu eterno eta esentzialik, absoluturik. Baina, hala ere, euskaldun garelara badakigu, esan dezakegu. Zergatik? Zerk eragiten du hori?

Hizkuntzak: orokorrean eta abstraktuan gizakiari. Eta euskarak: konkretuan eta zuzenean euskaldunari. Euskarak egiten gaitu gu euskaldun –alemanak alemaniarrek egiten dituen bezala. Baina ez esentzialki. Hots, hizkuntzara lotuta gaude, baina aske gara bere barrenean eta han bakarrik izan gaituzke aske. Gizakiak sortu egiten baitu hizkuntza –hizkera– eta era berean hizkuntza bere “barnean” darama. Horrek suposatzen du: bere barnean darama historia, nahiak, poesia, zientzia, kantak, jokoak... mundu-ikuskerako oso bat. Etengabe aldatzen dagoena baina osoa dena bere horretan.

Azkeneko trilogiaren lehenengo liburuan, *Humboldt. Hizkuntza eta pentsamendua*-n, hain zuzen, eskematikoki aurkeztu nahi izan digu ideia hori. Baina hemen, hobe azaltzeko, *Volksgeist. Herri gogoa* liburuaren hitzaurreko bere hitzekin esango dugu:

“Ezaguna da, orobat, kontzeptuak metaforatik erretzen direla, esan zuela jada Herder-ek (eta geroago Nietzschek, eta lehenago Voltairek...). Gerta liteke, beraz, zientzian kontzeptua jada desbaliatua egonik ere, metaforak baliagarri eta eder izaten jarraitzea, zientziak erreminta bezala beretzat hartu izan baino lehenago bezalaxe, gero ere.

Esaterako, herriaren izpiritua hizkuntza dela; euskara dela Euskal Herriaren arima, euskal herri gogoia. Zergatik ez? Metafora bikaina da. Kontua da, hori esaten dugunean, zer esaten dugun jakitea –metafisikarik gabe: <metá phorá> (“phérein”) ez da <metá fisiká>.” (2008: 9)

## **Hitz batzuk bukatzeko**

Omenalditxo txiki honekin amaitzeko, irakurleari jakinarazi nahi genion artikulua honek, hasiera batean, galdera honi erantzun behar ziola: zer ekarpen egin digu Joxe Azurmendik Euskal Herriko *filosofo* gazteoi? Edo hobe: zein eragin izan du filosofo gazteengan Joxe Azurmendiren pentsamenduak (eta pertsonak)? Horixe jakitea zaila bezain nekeza litzateke –ezinezkoa dela ez esatearren–, ikusten denez. Azkeneko lerrotxo hauek, hortaz, errazagoa dena burutzeko parada hartuko dugu. Hau da, saiatuko gara laburki margotzen gu bion pentsamenduan edo mentalitatean izan duen eragina. Zein izan da, bada, gugan izan duen eragina?

Lehenik, gauza batez ohartu gara: tamalez, Azurmendiren pentsamendua bere zabaltasun osoan oraindik Euskal Herrian arakatu ez den unibertso eder eta konplexu bat da. Filosofo haundiuste(l)aren figuraren kontrakoa, azalpen konplikatuenetan ere argitasuna eta umiltasuna uztartzea posiblea dela erakusten digun pertsona da. Filosofiaren unibertsoaren atekabeteak parez pare ireki dizkiguna, harenganako duen pasioa kutsatuz bete-betean. Euskaldunoi, beste-en atsekabeei baino, geure buruari erreparatzera bultzatu gaituena behin eta berriz. Horrexegatik eta ez beste ezer-

gatik eraso du euskaldunon dogmatismoa, hain zuzen, euskalduna kate gabe nahiko lukeelako ikusi. Libre.

“Baina libre izan nahi dugu,  
zer kulpa daukat nik.  
Eta txeke zuri faltsu baten antzean  
Gernikako arbola bat asmatu diguten arren  
libre nahia bekatu balitz bezala,  
aitzakiaren bat beharko bagenu bezala,  
guk, guztiz xingle, libre izan nahi dugu.  
Nahi dugu, besterik ez.  
Hauxe baita gure engainu azkenekoa:  
libre izan nahia justifikatu behar dugula  
pentsarazi digute  
lehen kanpotik eta barrutik orain.”  
(2000: “Manifestu atzeratua”)

Askok eta askok Azurmendiren emankortasuna liburu kopuruan edo orri kopuruan edo zita kopuruan neurtzen dute. Libre dira hori egiteko. Baina, Azurmendiren pentsamendua ulertzeko abiapuntu eskasa izateaz gain, bere obra guziaren erdira baino ez dira iritsiko. Nola neurtzen da liburu baten orrialde bateko lerro bakar batek irakurle batengan sortutako inpresioa, eragindako zirrara, aldatutako pentsamoldea? Nola neurtzen da unibertsitatean egindako lana? Edo Jakinen egindakoa? Edo euskal kulturaren munduan orokorrean burututakoa?... Sortu duen kritikotasun maila ez dago neurtzerik. Ireki dizkigun bide berriek ez daukate distantziarik. Bere gainean eraikitzeko eman digun askatasunak berak inongo mugarik ez daukan

bezalaxe. Horregatik, beste belaunaldi baten indarrak xahutuko ote ditugu gure hertsitasun dogmatikoan bilduta?

(Eskerrak eman nahi dizkiegu lan honetan zuzenketa lanak egin eta gomendioak eta aholkuak eman dizkiguten Jesus Mari Intxauspe, Xabier Eizagirre eta Garazi Arrulari)

## **Bibliografia**

- AZURMENDI, Joxe (1975): *Gizona abere hutsa da*. Oñ ati: EFA.
- (1991a): *Gizaberearen bakeak eta gerrak*. Donostia: Elkar.
- (1991b): “Filosofia pertsonalistaren maisu bat. Karlos Santamaria”. *Jakin*. 65. zenbakia. 63-89 orr.
- (1992): *Espainolak eta euskaldunak*. Donostia: Elkar.
- (1997): *Demokratak eta biolentoak*. Donostia: Elkar.
- (1999): *Euskal Herria krisian*. Donostia: Elkar.
- (2000): *XX. mendeko poesia kaierak – Joxe Azurmendi*. Zarautz: Susa.
- (2007): *Humboldt. Hizkuntza eta pentsamendua*. Donostia: UEU.
- (2008): *Volksgeist; Herri gogoa. Ilustraziotik nazismora*. Donostia: Elkar.
- (2009): *Azken egunak Gandiagarekin*. Donostia: Elkar.

## **Joxe Azurmendi: "Oso untzi hauskorreko argonautak gara euskaltzaleok"**

Elkarrizketa: Lorea Agirre

"Niretzat garbi dago: izan, euskalduna naiz, ez naiz beste ezer". Hortxe laburbiltzen du Joxe Azurmendik bere iza-tea eta egotea. Pentsalari eta idazlea, euskal kulturgilerik oparoena eta aberatsena da. Eta baita beharrezkoeneta-koa ere. 'Zegamako alemaniarrek' Euskal Herriaren eta euskaltasunaren bizi-iraupenerako oinarriak jarri ditu, herri eta nortasun ukatuaren bizi arrazoiak berritzeko hitz eta pentsamenduak josi. Kultura, herria, identitatea, demokrazia, askatasuna, tolerantzia, indarkeria, hitzetik hortzera darabilzkigun hitz handi, hitz totemikoen, erabi-lera iruzurtia argira ekartzearen ekina da Azurmendirena. Korapiloak askatzearena. Poeta gisa hasi zen orain berrogei urte, eta geroztik etengabean hogeitaka saiakera kale-ratu ditu. Denak euskaraz. Beti zorrotz, beti kritiko, beti bikain, beti eskuzabal. Filosofiako irakasle katedraduna EHU<sup>n</sup>, *Jakin* aldizkariko kide, eta euskalgintzako hainbat eta hainbat proiektutan eragile.

### **Zein da gogoan duzun amaren lehenengo irudia?**

Ez daukat, edo ez dakit. Lehenbiziko oroipen edo irudi famatu horiek, lehenengo eskola eguna, lehenengo jau-nartzea, lehenengo zapatak edo ez dakit zer, psikologoent-zat hain inportanteak, holakorik batere ez daukat nik gogoan. Andralagunak esan ohi dit iraganik gabeko gizona naizela. Ez da oso gezurra. Bera nola ezagutu nuen ere ez



naiz gomutatzen. Baina egia ere ez da. Haurtzaroko Zegamatik, Arantzazutik, hainbat oroipen daukat. Beharbada bitxia dena da, horiek ez direla denborari erreferituta egoten. Inoiz ez dakit gauza bat lau urterekin ala zortzi-hamarrekin gertatu zen. Beharbada iragana baino gehiago denboraren zentzua da ez daukadana.

### **Eta zer da umetako Zegama hartatik oraindik atxikia duzuna?**

Zaila da esaten. Nik neure burua oso Zegamakotzat daukat, ez nuke asmatuko esplikatzen zergatik, baina ez da Zegamako oroipen asko daukadalako, beste zerbait da. Euskal Herriko edozein herri txikitakoa naiz. Neure sensibilitatea begiratzen badut, adibidez, ni kalean jaio eta kalean jolastu izan naiz, baina kalea Zegamakoa da, eta niretzat inportantziarik handiena mendiak dauka, ez kaleak edo itsasoak. Itsasoak niri ez dit ezer esaten, estetika superfizial bat da. Eta Paris edo Berlin, gustatu bai, hamabost egunerako asko gustatzen zaizkit, baina emozionatu ez naute egiten. Beno, ez da erabat egia. Egon izan naiz Grezian itsasoari begira, nire barruan Homero pizten da, eta diferente da orduan. Itsaso nordiko ilunak ere hunkitu izan nau, Danimarkan, Finlandian, eta kasi bere barru isil geldira hurrupatu ere izan nau. Baina momentuak dira. Nire ariman benetan dagoena mendia da, Aizkorri, autoritate bat bezala. Gogoratzen naiz, urteak kanpoan egon eta etxera nentorrela, autoan, Aizkorri bistan agertu zenean nolako zirrara egin zidan. Inpresioa daukat nire memoria-ren forma txinparta edo flash bezalako irudi solte batzuen delatena, ez filmeko sekuentzien formakoa. Lagunekin hau

edo hori egin izanaren edo istorioen oroipenik apenas daukat, baina horrelako flash batzuk indartsuak. Esaterako, Drensteinfurten behin Gabonetan, bakar-bakarrik nengo-ela mahaian idazten, gauerdia pasatxo eta, bat-batean Ugatseko iturriko uraren usaina fuerte sentitzea langelan. Eta usaimenik ia ez daukat.

### **Noiz eta nola ohartzten zara euskalduna zarela?**

kontzientzia hori duzula? Nik uste dut honek maila asko izan dituela. Ume-umetan, Zegaman, maisu falangistekin-eta, euskalduna guk izan nahi ez genuen zerbait zen, desgrazia bat. Nire lehenengo urte kontzienteak euskalduntasunaren ihesi ibili naizela esango nuke. Hamalau urterekin, Foruan, adiskide zarauzta bati Euskadiri buruz hitz egiten entzun nion, gutziz sekretuan, eta uste dut euskalduna izateaz harrotzen hasi nintzela. Baina erdaltzale jator jarraituz, Seminarioan ikasi bezala, eta seguru asko espainolista ere bai. Aitortu behar dut nik Jose Antonio Primo de Riveraren Obra Osoak gazte askorik irakurri nituela, orduan inolako errebeldiarik sentitu gabe, batxileratoko urteetan oker ez banago. Behintzat Oliten filosofian Campion-eta irakurri nituen, hamazazpi-hemezortzi urterekin, eta nik errebelazio bat bezala aurkitu nituen, nire barru osoa inarrosi zuten. Nafarra sentitu nintzen. Espainiak inbaditua sentitzen hasi nintzen. Une berean Joseba Intxausti segurarrak euskara ikasten jarri ninduen, gutziz atzendua neukan, eta nire euskal kontzientzia inguru horretan mamitu dela, esango nuke, Oliten. Beharbada horregatik nik paraje horri diodan atxikimendua, Olite, Tafalla, Uxue inguru horri. Handik aurrera beti euskara

ikasten eta euskaraz idazten ahalegindu naiz. Niretzat garbi dago: izan, euskalduna naiz, ez naiz beste ezer. Lizentzi badut, beste zerbait gehituko nuke: kostako euskalduna dago, eta mendiko euskalduna dago. Ni mendikoa naiz.

### **Zer eman dizu Arantzazuk?**

Kulturalki eta moralki naizen dena. Egia da erlijiosoki urrundu naizena, baina Arantzazuren aurka-edo gaur eduki nezakeenak berak, kritikoak, Arantzazun dauzka sustraiak. Maisuak ziren espiritu irekian, tolerantzian, disidententearentzako eta kontrarioarentzako ere txeran, edo errespetuan gutxienez, txikien eta pobreenganako onberan, frantziskotartasunean. Beste gauza bat da nik zer ikasi nuen. Arantzazuri zor dizkiot musika eta poesia, eta arte eta pintura zaletasuna ere. Muñ oz, Oteiza, Txillida, Aita Goitia, Pasionea, korua, iluntzeroko musika entzunaldiak edo arte konferentziak, zineforuma, nik ezagutu dudana Akademia ernazentistarik multibertsalena zen garai hartako Arantzazu.

### **... eta zer kendu?**

Artean, mutikoaren harrokeriatxoak, anbiziotxoak, ez dakit. Arantzazuri batez ere askatasuna zor diot. Eta mundua eta jendea ikusteko modu bat.

**Alemaniatik Euskal Herrira: herri bat hizkuntza bat da, kultura bat, beraz izpiritu bat, herri-gogoa. Humboldt ekarri, eta geuretu egin da: euskara da euskaldun egiten gaituena. Hori izan liteke 60ko**

**hamarkadan euskal kulturgintzan ereindako izpiritu kritikoak (bidea Arantzazutik barrena ere egin zuenak) eman zuen gogoeta oparoenetako bat. Ez ote da, hala ere, gogoeta hori zokoratua geratu azken 30 urteetako instituzionalizazio prozesuaren ondotik?**

Hau ez da korapilo bat, korapilo askoren mataza gordiarra baino. Ez dakit asmatuko dudan askatzen, autoritarioki moztu ordez. Nik beti azpimarratu dut, Euskal Herria euskara da. Batez ere Txillardegiri zor diogu kontzientzia hori. Baina begira, ezin da esan beste gabe, herri bat hizkuntza bat da. Hori zuzena da maila batean, eta herri batentzat bezala pertsona bakoitzarentzat balio du. Ni ez naiz beste ezer nire memoria baino, nire agiantzak, kontzientzia, emozioak, harremanak, etab., hori dena hizkuntzan bilduta ematen baita. Ez euskaran soilik, baizik neure mintzaira guztiz partikularrean. Hori idazle edo bertsolarietan hobeto nabaritzen da, baina edozeinentzat balio du. Beraz, herri bat zer den galdetzen dugunean, horrek bere memoria historikoa dauka; lana, tradizioak, ohiturak, dantza eta kantak, mitoak, eta hori dena biltzen duena hizkuntza dela azken finean, esan genezake. Honi batzuetan kultur nazioa ohi deritza mugaketa arriskutsu batekin –arriskutsua nazio politikoari kontrajarri nahi bazaio, edozein politikatan funtsezkoa izango den elementu asko baitago nazio kulturallean, lan harremanetatik famili harremanetaraino eta hizkuntzatik moralera, ohitura eta balioetara. Nazio kulturala eta nazio politikoa txanponaren bi aurpegiak dira, ez bi txanpon. Hau dena erantzun teoriko, antropologikoa baino ez da. Definizio abstraktua bezala.

De fakto identitatea erreferentzia sistema baten arabera markatzen da, diferentziatzen da, eta erreferentzia sistema hori interes kognitiboen, sozialen, politikoen arabera ezberdinki tratatzen da.

### **Horren adibiderik jarriko zenuke?**

Identitate nazionalaren mailan zu eta ni berdinak gara, euskaldunak. Beste erreferentzia maila batean ni, zurekiko, gizona naiz, arra; zure haurrarekiko, sentona; beltz batetiko, zuria. Historian, arauz eta zein konflikto edo interes erreferentzian, markatu identitate bat, ateratzen da irlandarren identitatea ez dela markatzen hizkuntzarekin, baina erlijio katolikoarekin; ordea ingelesak hizkuntzarekin markatzen dira, ez erlijioarekin; eta iparramerikarrak hizkuntzarekin ez, baina euren hastapenen historia epikoarekin. Euskaldunek euren diferentziaren kontzientzia beti eduki dute. Baina beti ez dute diferentzia hori hizkuntzarekin seinalatu lehentiariki. XVI. mendean nobleak dira, inoiz menperatu gabeak, etab. Alegia, momentuko interesak horiek zirenez, espainolek eta frantsesek izan gura zuten guztia euskaldunak baziren, eta gehiago ere bai. XIX. mendean konfliktoa instituzio politikoena bilakatu da, eta interes horren arabera euskaldunek euren identitatea Foruekin berdindu dute. Euskal Herria, Foruen Herria. Bai liberalek eta bai karlistek egin dute hori, gero Foruen balioa modu diferentean estimatu badute ere. Erakunde propioak galdu direnean, identitatearen espresioa beste maila batera pasa da, eta Campionek, Arana Goirik, nazioaren kontzeptuan lotu dute hori, eta guk horiek ondoren. Identifikatzen gaituen instituziorik ez dugu, baina

bagara: badugu gure identitatea, euskal nazioa gara. Barka, oso aspaldiko irakurketen oroipenetan fidatzen ari naiz, beharbada oker nago. Nazioa Campionek gehiago historia eta euskarari ardaztu du, Aranak gehiago arraza eta euskarari. Baina biek identitatean sartzen dute kenduak diren erakundearen errebindikazioa ere. Honezkero identitatearen arazoak, espainolista puru batentzat ez, baina edozein “abertzale”rentzat ezin baitu zentzu politiko instituzioen errebindikatzailerik hori ez eduki, euskal identitatea identitate foral bezala armaz defendatu izan eta gero. Euskaltzaleok, euskara larri dago-eta, askotan ez dugu ikusten instituzio propioen lorpenaren arazoa ere identitatearen arazoa, euskararen defentsa bezalaxe. Ulertzen da, Francoren pean gure identitatearen defentsa euskararen defentsa bezala nagusitzea. Eta ulertzen da, Franco hil eta gero aukera bat aspaldian gabekoa ireki denean instituzio propioak lortzeko, uholdean bezala dinamika guztiak hortik jotzea. Nik uste, oso inportantea zela hori egitea. Orain, esan nahi badidazu, instituzionaltze horretan euskarak ez duela zorte handia izan, ados nago. Hasi zaitetz Jaurlearitzako euskararen arduradunen zerrenda begiratzen...

**Gu izateko, euskaldun izateko, komunitate gisa bizitzeko, aro modernoaren baldintzak ezin betez geundela, postmodernia etorri zaigu esanez ez identitate sendoek, ez kontzientziak, ez komunitate eratuek dutela zentzurik. Bi aldi historikoen gatazkak harrapatu ote gaitu, eta diskurtso berriak osatu ezinean ari ote gara?**

Zure galderak pixka bat harritzen nau. Enetzat posmodernia deitzen den anabasa hori, hau da, erlatibismoa, multikulturalismoa, etab., berez jarrera abertzale edo euskaltzale baten aldekoago da jeneralean, ordena berri baterako irekiagoa, komunitate eta kultura txikien begiratuagoa, diferentziaren maitatiagoa, ezen ez Arrazoimena eta Estatua berdinduz bukatzen zuen modernitate klasikoa baino, halaxe ikusten baita Frantziako Iraultza txit irrazionalki razionalistan, nola gertakari historiko horren filosoforik handiena izan den Hegelengan, eta funtsean Max Weberengan ere, Soziologia modernoa “razionalitate” historikoaren tradizio berorretan ahokatu duenean. Razionalitatea beti kakotx artean: ukatu gabe, baina nuan-satuz, ñ abartuz. Gertatzen dena da posmodernia delako hori, hain zuzen razionalitate zahar haren kritikoa, jarrera edo ideia solte multzo bat besterik ez dela. Ez da logika bat, sistema bat. Bere abertzaletasunaren alde bezain ongi balia liteke horren aurka, abertzaletasun dogmatiko baten aurka batik bat. Eta batez ere posmodernia delako hori libertate indibidual, arintasun, gozamen, ezaxola, ez engaiamendu bezala saltzen edo kultibatzen bada. Berehalaxe ohartuko duzu, abertzaletasunaren kritiko posmodernoeke euren posmodernitate guztia kontrarioaren posizioak atakatzeko bakarrik erabiltzen dutela: ezin dugu euskal kulturari itxita geratu, multikulturara zabaldu behar dugu; identitatea errealitate plurala da; komunitaterik eta eskubide kolektiborik ez dago, norbanakoak baino ez, etab. Gustura hasiko zinateke erantzuten: komunitaterik eta eskubide kolektiborik ez badago, Auschwitz errotik birpentsatu beharra dago, eta agian errebisionistei

eman beharko zaie arrazoia. Izan ere, indibiduoak besterik ez badago, han ez da herri juduaren aurka deus egin, X eta Z andre edo jaun hiritarren aurka soilik baizik, inola ere ez judu ziren bezainbatean; genozidioa hortaz figura juridiko absurdu bat da, gizadiaren aurkako krimenaren kontzeptua bera da krimen bat, banderaren eta sinbolo nazionalen irainik ezin da egon, horiek beti kolektibitateak errepresentatzen baitituzte, fikzioak alegia beraien esanean, etab. Baina deskuida zaitez bandera espainola Diputazioan ez jartzen –ez jartzen, alegia; abstenitzen soilik egintza batetik!-, eta ikusiko duzu. Baina ez, ez, hori ez dute Donostiako edo Gasteizko Ppistek edo Pesozialistek egiten: Legeak egiten du. Ez, ez, berak ez dira espainolista: konstituzionalistak dira. Zaila baita alde batetik gaurko moderno edo posmoderno agertu nahi izatea eta bestetik Estatu ageriki autoritario bat defendatzea. Horregatik Legearen atzean ezkututzen dira. Konstituzioa eta Legea azareak eginak balira bezala, eta Patuak aplikatuak. Orduan munduko errazena baita halako argudioei buelta ematea, horrela arrazoitzen dutenek badakite hori, eta inola ahal bada euren posizioa zein den ezkutatu egiten dute, ez dute inoiz positiboki arrazoitzen. Horrela euren buruak a priori edozein kritikatatik inmunizatu ditzaketela uste dute: hasteko, beraiek “errealitatea” onartu besterik ez dute egiten –Estatuari esaten zaio errealitatea. Gero topikorik sublimeenetan errefuxiatzen dira, Eliza Katoliko ezpolitikoari, mundu honetakoa ez omen denari, ikasitako estilo berberean: berak eznazionalistak dira, ez dute identitatearen arazorik, unibertsalak dira, horixe esan gura du “katolikok”; berak tolerantziaren eta



progresoaren alde daude, jendearen zinezko arazo egunorokoez arduratzen dira, hau da, ontasun guztien inkarnazioak dira. Euren diskurtsoa goi-goiko laino zuri ukiezin batean kokatzen da, handik gezi pozoinduak etsaiei jaurtikitzeko.

### **Eta identitatearena?**

Kontu hori, adibidez, azkeneko boladan jende batek asko hartzen du ahotan. Nola, eta zertarako? Abertzaletasunaren muin-muina diluitzeko, Euskal Herriaren zinezkotasuna. Lehenago euskaldunen arrazismoa zen, gero esentzialismoa, orain identitatearen obsesioa. Ezeztatu beharra dago mamu hori. Hiritarrak besterik ez du egon behar. Egun hauetantxe buruzagi politiko eznazionalista goren batek galdegileari erantzun dio: “ni harro sentitzen naiz espainola naizelako, eta harro sentitzen naiz baskoa naizelako, eta europarra naizelako... Nire identitatea oso konplexua da: hasi, eman dezagun Gallartako kale batean hasten da, eta amaitu, ez da inon amaitzen”. Galdegilearen tranpa politiko bati erantzuteko ez da erantzun politiko txarra. Baina beha dezagun hurbigalago. Identitate begiratu hiztegiari, eta identitate kulturalak, korporatiboak, trigonometrikoak aipatzen dira, hau da, identitateak epiteto kapritxoso aldaberak ametitzen ditu –maskulinoa da, rockeroa, eskizofrenikoa-, horien artean demonimoak (identitate gallartarra, identitate baskoa) edo Estatu-nazionalak (DNI espainola, carte d’identité frantsesa). Identitateak maila eta zentzu ezberdinak erabilerara du hortaz. Kontzeptu konplexua da, politikariak dioen legez. Bakarrik, konplexutasuna aipatzen bada, argi-

tzeko izan behar luke, ez iluntasuna aprobetxatu eta ihes egiteko. Bereizten badugu, identitatearen kontzeptuak formalki esan gura duen dena da, norbait edo zerbait bere buruaren identikoa dela, predikatzen den zentzu horretan. Hori harri bat da, esaten badut, esan gura du harria dela. Edozein harri eta beti. Hori europarra da, europarra dela. Baina zer esan nahi du horrek zehazki: Europan jaioa dela?, edo Kenian jaioa, baina pasaporte ingelesa duela?, edo Kenian jaioa eta pasaporte ere keniarra, baina kulturalki europarra? Hau da, identitateak, bere aldagarritasun semantiko guztian, beti kontzeptuaren eduki materialen indikadore batzuk adierazi behar ditu, erreala bada: etxean lehoiak ditut, esaten badut, ezin duzu ulertu harem bat daukadala eta emazte guztiak Leo. Bestela identitatea nominalista hutsa da. Izeneko identitate soila da, gezurrezkoa. Gatozen gaira. Gure politikaria espainola da, eta europarra da: zer dauka identitate daniar, poloniarren edukietatik, ala identitate horietatik ezer ez edukiz da bera europarra? Hots, bere identitate europarrak eduki berak al ditu bere espainola izateak bezalakoak, eta bere identitate espainolak eduki berak baskoa izateak bezala, eta baskoa izateak bere identitate gallartarraren berak? Ala bere identitate espainolak eta bere identitate europarrak maila eta zentzu guztiz diferenteetako erreferentziak dituzte, suitzarra esan eta hori jaun-andre bat edo berdin xokolate bat izan litekeen antzera? Hau da, identitatearen konplexutasuna, egiazkoa, politikari abilak tranpa bezala baliatzen du, teorian baino gehiago praxian egiten da hori, arazoaren konplexutasuna argitu ordez are gehiago nahasteko. Eta, nahastu, gauzak dauden daudeneantxe uzteko

xedeaz: hau da, batetik, identitatea definiezin da, hori ez da zerbait guztiz erreala, utz ditzagun buruhauste horiek; bestetik, ez daukagu identitate bat, baizik asko, denok diferenteak, eta bakoitzak identitate denak libre dauzka, ez dago identitate arazorik. Orain jarrai zeuk gogoetan. Kontzeptuak zerbait erreali erreferitu behar zaizkio esanahi errealik izateko. Zein erreferentzia sistematan da bera baskoa, eta zu eta ni? Denok gara nolabait Leo, baina zer ikusi behar dute haren Leo baskoa izateak eta gure Leo euskaldunak izateak? Dударik gabe, erreferentzia pila batean kointziditu egingo dugu, baina beste pila batean ez, beharbada funtsezkoan. Zerbaitegatik vasco ezin da itzuli euskaldun. Ez dut jarraituko. Beste liburu bat beharko genuke, eta beste liburu bat ere alfer-alferrik izango litzateke ulertu nahi ez duenarentzat. Ulertu nahi duenarentzat franko sinplea da. Azkenean zinezko problema ez baita zein tresneria kontzeptual edo teorikorekin kontatzen dugun arazoa argitzeko, edo arazoa ukatzen saiatzeko. Kontua da zein borondaterekin kontatzen dugun arazo hauek konpontzeko edo konpondu beharrari ihes egiteko.

**Bestela esanda, 60tik (edo lehenagotik) egiten genuen galdera, "zergatik enpeinatu behar dugu euskaldun izaten?", eta horren erantzuna euskaldun izan nahi dugulako, bizi-nahia, bizi-beharra dugulako, eta horrenbestez beraz kontzientzia bat eta militantziako jarrera bat. Eta gaur esaten digute, esaten dugu, kontzientzia ez dago modan, militantismoak ez du XXI. mendean inor engaia-tzen, eta bidea besteekiko erakargarri, atseginga-**

**rri izatean datza, indibiduoaren erreinuan bizi gara, norberaren aukera librea da arau sakratu bakarra, merkatuak markatzen du joku eremua, eta horretara moldatu behar dugu guk euskaldunok ere. Eta mapa berri horretan galdera agian larriago errepikatzen da: zergatik enpeinatu euskaldun izaten?**

Motiboen mundua bai dela konplexua! Seguru asko norbait euskaltzale edo abertzale bihurtzeko arrazoi erabakigarriak pertsonalak izaten dira, subjektiboak. Familia, etab. Ni neu adiskideek euskaltzaletu ninduten. Irakurketek ere bai. Baina abertzale itsu burumotz batzuek abertzaletasuna higuigarri bihurtu ere maiz egin didate, bai euskaltzaletu aurretik eta bai gero. Etengabe bonbardatzen gaituen espainolismo ranpantea ez da txarra, abertzale bihurtzeko ez bada, bai antiespainol sentiarazteko. Zenbait jende ikusita ematen du arrazoi negatiboak indartsuagoak direla positiboak baino, eta ez dago gaizki, zein Espainiatan bizi garen erakusten baitu horrek. Zer izan nahi dugun ez badakigu, zer izan nahi ez dugun behintzat garbi daukagu. Ez nuke neure buruagatik ere hori guztiz ukatuko. Ez da izaten arrazoi hutsa batera ala bestera jo erabakitzen duena gure baitan. Gizakiok gure arrazoitxoa baino gehiago gara. Baina hori orain aparte lagata, arrazoiak badu bere parte eta, orokorki, esango nuke abertzale edo euskaltzaletasunerako arrazoi positiboa hain zuzen mundu ikuskera posmoderno bat dela, kulturen eta diferentzien ugaritasuna maite duena, gizarte berdindu uniformatuak gorroto dituen, Inperio handiek entusiasmatzen ez dutena, edo, hitz batean, askatasuna ugaritasunean eta diferen-

tzian bakarrik dela posible, uste duena. Ederrak eta politak ere jeneralean gauza txikiak izaten dira. Herri gizarte-en ekologia. Ez dizut ukatzen kontsumismo giroan bizi garela, militantziarako ez dela primadera bat garai hauxe. Baina noiz izan da?

**Zuk idatzia da: "Erakunde publikoek euskararen alde ezer egiten ez zuten historiatik, egin behar-reko den-dena beren eskuetan eta beren ardurapean hartu behar dutela etorri gara pentsatzera. Estatuari ahal diren baliabide guztiak eskuetatik kendu egin behar zaizkio, eta ahal diren gutxienak eman". Ez ote da beharrezko administrazio publiko eta gizarte zibil euskaltzalearen arteko beste harreman eredu bat?**

Gai handi batetik beste bat handiagora jauzika gabiltza! Begira, Estuari buruz nire filosofia orokorki hauxe da: Estua ahalik gutxiena eta gizartea ahalik gehiena; gizarte ahalik eta gehiengan pertsona ahalik eta libreena. Beraz, liberalismo erradikal bat, eta Marx eta Bakunin erradikalenak ere bai une berean. Honek denerako balio dit. Euskararen alde nik Estua nahi dut, berak ahalik gutxien egiteko, hain zuzen bere egitekoa gizarteak ahalik gehiena egin dezan laguntzea delako, eta ez gizarteak bere erakundetxoak sortu dituen tokian Gobernuak lehiakideak sortzeko. Ez dut uste ondo asmatu zenik, baina ez dut iragana konpontzen hasi nahi. Hori Estuaren filosofia orokor bezala. Bestetik, euskararen interesei begira, garbi daukat euskal kulturak, indartu eta bere kontura biziraun ahal izateko, autonomia lortu behar duela erakunde poli-

tikoetatik, burujabetasun ekonomikoa oroz gain. Baina autonomia hori, gaur oraindik ezinezkoa, garatu egin behar dugu, kulturaren antolaketa enpresarialeaz, etab., eta erakunde publikoek horretan lagundu behar lukete. Ez bakarrik gaur PSOEak agintzen duen tokian bihar PPK agintu dezakeelako. Hori bigarrentiarra da. Ezpada bestela euskal kultura luzarora kondentatua legoikeelako subentzietatik bizi den bizkarroia bilakatzera betiko, indioen hondar degeneratuen erreserba bat.

**"Badugu euskaltzaleen tradizio bat, baina euskararen tradizio kulturalik ez, publiko eta autonomoa". Zergatik ez dugu asmatu tradizio hori erai kitzen, zabaltzen? zerk eragotzi digu? azken finean, ez ote du, akademiak, politikak, merkatuak, ekonomiak, komunikabideek... erdaraz hitz egiten? erdalgintza egiten?**

Hori, hemen eta Finlandian, eta Txekia edo Kroazia austriarretan, eta edonon berdin da, edo oraintxe Alsazian. "Merkatua" ez dago gure alde: Boterearen mintzairan mintzo dira klase sozial gorak, eta klase gorenaren mintzairan klase behereak. Erraztasunaren automatismoa ez dago gure alde, ez. Eta zer? Gure alde edertasuna eta askatasuna dago, minoritarioa beti. Azkenean gure alde gure borondatea dago, beste ezer ez. Eta merezi duela, sinesmena. Aitortzen dut, oso untzi hauskorreko argonautak gara euskaltzaleok.

**Demokrazia, askatasuna, berdintasuna, aniztasuna, eskubideak, gehiengoaren arrazoia, bakea, tole-**

**rantzia, indarkeriaren ukoa... Kontzeptu hauek guztiak (politikoki zuzenak) hitzetik hortzera darabilzkigu segurtasun handiz (botereak, sistemak eta baita guk ere), baina zertaz ari garen, gaurko errealitatearen argitan zer esaten ari ote garen ba ote dakigun zalantzan jarri izan duzu.**

Nola ez? Puente Ojeak bere autobiografia laburrean “la mente españ ola, totalitariamente colonizada durante toda su historia por la hegemonía eclesiástica” salatzen du. Puente Ojea diplomatiko espainol bat da, beraz sistemako gizona, kritikoa bada ere. Aniztasuna, tolerantzia? Kultura eta ohitura inkisitorial barbaroekin ez da posible gizarte demokratikoa. Baina hori egunoroko gauza txiekitan ere nabaritzen duzu. Hendaiatik Romaniemiraino ez da entzuten Irun eta Donostia artean adina bozinazo mehatxukor. Intolerantzia gure esentzia bilakatua dago.

**Aldiz euskalduna, Euskal Herria... gero eta kontzeptu ekibokoagoak ez ote diren bihurtzen ari...**

Erakunde publikoek eta Alderdi interesek badute zerikusirik horretan. Zer da Euskadi, Baskongadak? Are, EAJko buruzagi batzuk Euzkadirekin setatzen dira oraindik. Zer da Euskal Herria PSOErrentzat? Zer da euskalduna izatea? Baina identitateaz nahikoa luzatu gara. Ados, Euskal Herriarena edo euskal nazioarena ez da kontzeptu matematiko bat. Baina Instituzioekin eta Alderdiekin obligaziorik ez dugunontzat ez dago ekiboko partikularrik. Zer da frantsesa izatea, inkesta egiten ari dira oraintxe Frantzian. Leizarragarengan jada Euskal Herria nazioa da, eta nazio honen izena Euskal Herria da. “Les Basques, entre toutes

autres nations” idatzi du 1571n Arroxelan Erreginari Eskaintzan. Eta ABCan berriro, “berce natione guciéc, cein nec bere lengoagean beçala, Heuscaldunak-ere berean duençat, certain iracurtzen ikas ahal deçan”, paratu duela liburutxo hori. Euskal Herria beste edozein nazio bezalaxoke nazioa dela alegia. Jakina Ernazimentuko nazioa ez dela oraingoa. Baina kontzeptu linguistiko edo kultural soila ere ez. Zer da hori, gainera? Ideien historia politiko-kulturala ez ezagutzea da. Nazioa Ernazimentuan, bere mugakaiztasun guztiarekin ere, beti titulu bat da, komunitate baten ezagumendu titulu bat, balio politikoa ere baduena, nahiz ez juridikoa, baina identitate sozio-politiko eta kultural ongi definitu bat adierazten duena. Eta bada-go nazio kontzientzia bat ere, eta patriotismo ernazentista tipiko bat, eta nazio harrotasuna, hau ere oso ernazentista, Leizarraga baitan ere nabaritzen baita horren oihartzuna. “Heuscaldunak berce natione gucién artean ezgarela hain bassa...” Euskal nazioa ez da beste edozein nazio baino gutxiago, berriro. Erdi Aroa ezkeroztik tradizionala baita nazioa eta hizkuntza berdintzea, Axularrentzat orobat (1643) Euskal Herria lehen-lehenik euskararen herria da, herri bat bera “Nafarroa garaian, Nafarroa behean, Zuberoan, Laphurdin, Bizkaian, Gipuzkoan, Alaba-herrian, eta bertze anhitz lekhan”. Leizarraga bezalaxe, Axular ere ez da euskal nazioaren apologiarik-edo egiten ari, eta horregatixe hainbat baliozkoago da haren testigantza, zehar-meharka nola euskal nazioaren harrotasuna islatzen duen berak ere. Euskaldunak “kantabresak” kontsideratzen dira, hots, erromatarrek berek ezin konkistatu izan zituztenak. Eta inork inoiz konkistatu ezin izan dituelako,



eta beti burujabe izan direlako, beraz burujabetasunaren kontzientziarik ez da falta, “bertze hitzkuntza eta lengoia komun guztiak bata bertzearekin nahasiak dira. Baiñ a euskara bere lehenbiziko hastean eta garbitasunean dago”. Ez da izango Iraultzaren burujabetasun herritar “nazional”- aren kontzeptua, baina haren iturria berauxe da, eta ez dago aintzat ere ez hartzerik, modernoa ez omen delako. Bistan da egiazki subiranoa Erregea edo Erregina bakarrik izan zitekeela oraindik, orduan teoria soziala teologikoa baitzen, eta subiranotasunaren iturria Jainkoa kontsidera-tzen baitzen, ez nazioa edo herria. Horrek ez du ukatzen euskal nazioaren errealitatea Erdi Aro beranta ezkeroztik jada, objektibo nahiz subjektiboa, diferentziaren eta burujabetasunaren kontzientzia, garaian garaian zegokion eran noski. Diferente izan ote da akaso Alemanian?, Txekian? Hori dena euskal nahiz erdaldunentzat garbi egon da hizka-mizka politikoki interesatuek endredatzen hasi arte.

### **Eta nazio kontzientziaz aparte, zertan da hizkuntzaren auzia?**

Nazio kontzientzia edo harrotasuna aparte, Ernazimentuak nazioan, Erdi Aroak bezalaxe bestalde, objektiboak esaten diren ezaugarriak ere begiratu ditu. Hizkuntza batik bat. Hain zuzen euskaldunen kasuan ezaugarri linguistikoa bereziki azpimarratu izan da. Bidaiari eta behatzaile guztiek Euskal Herrian euskararen herria ikusi dute lehenago. Badakigu gaur euskara nola dagoen, eta batzuek esaten dizute: nazioak fenomeno historikoak dira, ez dugu esentzialistak izan behar, eboluzionatu egiten

dute. Hori egia da eta ez gara esentzialistak. Baina euskal nazioaren eboluzioa euskarak eboluzionatu duena da, euskarazko munduak eboluzionatu duena, eta beste ezaugarriek. Euskarak galdu egin duena ez da euskal nazioaren eboluzioa, euskal nazioaren zauria eta txikizioa baizik. Nazio bat zanpatu eta akabatu ere egin liteke. Azalgorriak nazio bat zirela suposatuz, azalgorrien nazioaren eboluzioa ikusi behar ote da gaurko nazio iparramerikarrean, eta ez lur berean goitik behera doan nazio baten alboan beste nazio baten jaikiera behetik gora, hura suntsitzen? Ez dezagun berriro tranpa egin. Auschwitz ez da nazio juduaren eboluzioan germanizaziorantz urrats handi bat. Bohemia ez zen nazio txekiarren eboluzio alemana. Horregatik dago identitate nazionalaren arazo bat Euskal Herrian, txikizioa egon delako, eta soluzioa eskatzen du. Hori horrela ulertu dute txekiarrek, poloniarrek, lituaniarrek, egoera berdintsua jasan izan duten denek. Espainian bakarrik nahi da bestela ulertu.

**Demokraziaren zure kritika zorrotza da oso: "Espainian demokrazia ezarri digute diktadura ezartzen den moduan" eta "gure diskurtso publiko eta 'demokratiko' guztia bestea anulatzearen eta ez arrazoitzearen mailan geratzen da" idatzi izan duzu. Ba al du horrek irtenbiderik?**

Demokrazia ezarri egin digutela, esan gura du, hemen demokrazia herriak ez duela borroka konkistatu, edo derrota baten ondoren nekez ikasi, Alemanian legez, baizik ere Trantsizioa deitu den xirmi-xarmaren magiaz kapelatik atera dela. Klik, eta Guardia Zibil frankista, Guardia Zibil

demokratikoa. El Correo Español, klik, eta El Correo demokratikoa. Ezer kanbiatu gabe, dena kanbiatuta. Baina nire kritikak demokrazia espainolari ez dira ezer, egunoro irakurtzen ditugunarekin alderatuta, irakurtzen duguna benetan hartzen badugu behintzat. Justiziara bakarrik mugatuz, egun pare honetantxe, Felipe Gonzalezek mahainguru batean Sevillan adierazi omen du Justizia dagoela “hecha unos zorros, y no sólo por..., sino por el ‘ganao’ que tenemos ahí dentro”. Urkulluk deklaratu bide du “la Justicia en sí está absolutamente politizada”. Hitler edo Stalinen denboran bezalaxe alegia. “Si en algún poder no ha habido transición o si ha brillado por su ausencia ha sido en el Poder Judicial”. Hori demokrazia eskasa egotea baino okerrago da. Zuzenbide Estaturik ez egotea da. Euskal Herrian zerbait badakigu horretaz, ezta? Orain, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Gorenaren presidentea ezin hautaturik, ezin berrosaturik Botere Judizialaren Kontseilu Orokorra, Kataluniako Estatutuari buruz ebatzi ezinda Auzitegi Konstituzionala, Gürtel kasua, Garzon salatua, etab. 1.500 Epailek sinatu du “Manifiesto por la despolitización de la Justicia”. Eta Gabriel Albiac filosofoak, behiala oso ezkertiarretakoa bera, komentatu du: “Podemos jugar a engañarnos... Podemos seguir llamando a esto en lo cual vivimos democracia. Pero...”. Dena egunotantxe. Begiratzen badugu alderdiek zer esaten duten batzuek besteen aurka, demokrazian gaudenik hemen ez du inork sinesten, ez PSOEen eta ez PPn. Bitxiki, Konstituzioan denek sendo sinesten dutela, ematen du. Erregean ere bai.

**"(...) Izugarrizko habailan ari garela 'demokrazia mendebaldarrera' adaptatzen, gu ere beste guztiak bezalakoxeak izateko munduan, eta oso ondo ari garela adaptatzen gainera, abelera honetan laster helduak izango baikara segovianoak edo badajoztarrak bagina bezalaxe pentsatzera eta ebaztera. Orduan gauditua izango dugu azkenik praderako betiko indioak izatea, eta ez dugu lotsatu beharko 'aldeanoak' probintzietako aldean izateagatik'. Azken finean, 'arazoa' gu gara, eta guk garena izateari utzita konpontzen da.**

Aspaldiko historia da, "kafea denontzat" haren ildo berean. "Normalizatu" esaten da orain. Badajozen normala denak normala izan behar du Donostian. Denok berdindu egin behar dugu. Oso Eliza latinotarra dirudi horrek. Modernian, lehenbizi oso frantsesa, ez jakobinoa bakarrik; eta Espainian Frantziatik ikasi izan da beti, urrunago ez ziren ailegutzen. Descartesek, Estatuak inperfektuak direla frogatzen bezala argudiatzen du, perfektuak balira denak berdina izango liratekeela. Denak diferenteak direnez, denak inperfektuak dira. Oso xorrotxa. Bakarrik, perfektioaren kontzeptu hori izan liteke logiko-geometrikoa edo teologikoa, politikoa ez. Hori da ikusten ari garena. Descartes razionalistarentzat diferentziak irrazionalak ziren, irregulartasunak. Iraultza Frantziako lurkarta dena matematikoki berdintzen ahaleginduko da. Tradizio politiko espainolean batasun eta berdintasunaren kontzeptua erromatar katolikoa da: diferentziak kiskali egin behar ditugu, heresiak dira. Nire aspaldiko susmo bat da hau. Espainia Elizaren produktu bat da, Eliza txar bat. Europa

katoliko osoaren problema da hori neurri batean. Espainolak eta euskaldunak liburuan kapitulu bat eskaini nion gai honi, eta, kurioa da, itzulpen espainolean horixe kendu da.

**"Estatu modernoak Jainko edo jainkozko klasikoaren atributu gehien-gehienak dauzka", idatzi duzu azken liburuan, eta sarritan aipatu duzu estatuak, sistemak, interes politikoko esijentziak moralaren mozorropean egiten dizkiola herritarrari, beti ere sistemaren legitimazioa alde edo moldez lortzeko.**

XVIII. mendean intelektual kritikoak Elizapetik askatzen hasi dira. Laster klase gorek pentsamendu ilustratu hori bereganatu dute, nobleek eta hirietako burgesia handiak, eta berehala Gorte eta Gobernuek ere bai. Gizartea sekularlartu egin dela, esan ohi zaio prozesu horri. Alde batean sakratuaren mundua ipintzen da, eta bestean sekularra, biak ximenki bereizita. Eliza bere espazioan gelditu da, fededunentzat. Estatua, esaten da, bere espazioan, Elizatik banatuz, urrunduz, menpegabetuz joan da, guztiz libre izan arte, hiritar guztien Estatua izateko, fededun hala fedega-beena. Hori da, laburki, sekularpenaren historia kanonikoa, hau da, Estatu laikoak berak kontaktzen duena, eta historia beti irabazleek kontaktzen dute. Beharbada beste irakurketa bat ere posible da. Botere eliztarra eta Botere politikoa beti lehian aritu dira, jada Erdi Aroan hasita, elkar xaxatuz, borrokatuz, bata-bestearen barrutiak inbadituz. Niretzat sekularpena ez da bi Botereren banaketa soilak biok zein bere jarriz, Boterearen birpartiketa berria baizik.

Sekularpenak Estatuaren Elizatik askatze bat adierazten du, dudarik gabe. Baina Eliza Botere bat da, eta Botere horren parte handi bat Estatu sekulartuak Elizari kendu eta bereganatu egin du. Botere ekonomikoa, desamortizazioekin-eta. Baina niri interesatzen zaidana bestea da, Estatuak Elizari kendu dion Botere espirituala, morala ere bai, eta ideologikoa, irakaskuntza bereganatuz, eskoletan historia nazionaleko irakasgaia programatuz, etab., eta Botere sakratua bera, eta sinbolikoa. Egia da, hortaz, Estatuak nolabait deselizartu dela, baina bera Eliza bihurtuz. Konstituzioaren eta autoritatearen sakratua, Justiziaren ukiezina, ospakizun nazionalen liturgiak, heroi martiriak, etab., Estatuaren agerkeria publikoetan hainbat ikuskizun aipa liteke adibide gisa. Telebista ikusten ari gara, Ministro izendatuek zin egin behar dute: batek Jainkoaren izenean egiten du, eta besteak zin laikoa, h. d., originala eta kopia. Okerrera ez dira Estatuaren ageriko gestuak. Eliza atera eta Estatuak, bera sartu da gure barruan. Zertarako aipatuko dizut bortxaren kondenaren arazoa? Elizaren tokian gaur Estatuak da moralaren maisua. Estatuak da gaur, infernu eta zero arkaikoen beharrik gabe, jendearen beldurren eta itxaropenen kudeatzailea. Ongiaren eta Gaizkiaren taularen jabea. Denok oso sekularrak eta laikoak gara. Eta gara, sakratua sekulartu adina politika sakralizatuz. Elizatik ihesi Tenploan sartu gara. Sakratuaren kantitatearen suma ez da aldatu.

**"Hezkuntzaren eginkizuna, kulturarena bezala, balio ezberdinekin bizitzeko razionalitate eredu sozial berriak garatzea izango da gaurgero:**

**balioen bere gogoeta berri bat hain zuzen, gizar-tearen eta libertatearen gogoeta berri baten baitan ordea, elkarbizitza berri bat balioen 'politeismoan' bideratzeko praktikan". Nola egiten da hori?**

Bakoitzak ikasiz, balio absolutuak denok dauzkagula, ezin dugula ez eduki, baina horien fundamentua inoiz ez dela razionalki absolutua, beraz nahitaez absolutua beste edozeinentzat ere. Edo, bestela esanda, berriz ere diferentzian zerbait positiboa eta aberasgarria edo gutxienez kuxkuxgarria deskubritu dezakegula ikasiz. Ikus eta ikasminak izanez. Begira, estudiantetan inolako problemarik gabe bizi izan zara lagun protestanteekin, komunistekin, neska lagun musulmanekin. Zergatik egon behar du arazorik elkarrekin bizitzeko? Distantzia gordetzen ere jakin behar da noski.

**"Balio denak erlatiboak dira, arrazoiak ere denak erlatiboak dira. Ez dago balio absolutorik, ongi eta gaizki absolutorik".Erlatibotasunak hala ere ba ote du mugarik, igaro ezin den marra gorririk? erlatibismoa bera ere absoluto bilakatzeko arriskurik ez al dago?**

Zatikatu egingo dut zure galdera, bestela ez naiz moldatuko. Bat: marra gorririk? Bai, marra gorri absolutu bat behar-beharrezkoa da: hori ez duzu inoiz, inolako baldintzetan ere, ontzat emango, torturatzea, etab. Izaki moralizatearen minimoa marra gorriren batzuk autoinposatuta edukitzea da. Baina, bi: marra hori ez dago ipinita, ipini egin behar da. Eta esango didazu ez al den zinez oso erlatiboa

zeinek non jartzen duen, torturaren kapitulu horretantxe adibidez. Marra gorri hori itxaron genezake gure goitik nondibait, Nazio Batuen Giza Eskubide Unibertsalen Deklarazioaren forman esate baterako. Baina, Jainkoaren antzera, marra hori ere, edo zure barruan dago, edo bate-re ez dago. Gizakiaren absolutuak, egotekotan, bere kontzientziatxoan daude, ez kanpoan. Horixe da, hain zuen, gizakiaren drama: gure absolutu guztiak hain zimendu her-balekoak direla. Askatasunaren prezioa da. Hiru: erlatibismoa absolutu bihurtzeko arriskua. Pentsatzen dut esan gura didazula, balio guztien ukoa, zinismoa, ezaxola edo bostaxola nagusitzeko arriskua dagoela gure gizartean. Bai. Gu beti gizarte pobrea izan gara, lehenengo aldiz gara gizarte aberatsa, erlatiboki aberatsa, eta aberatsa baina gizarte izaten ez dugu inon ikasi. Lehen bi xoxak itsulapikoan gordetzen ziren, gero jostunari edo arotzari ordaintzeko –ogia etxean egiten zen; orain daukagunaren gainetik Maldivetan edo Seychelleetan kontsumitzea da gizarteko legea, etxea deskapitalizatzen dugulako kezkarik gabe. Ni ondo banabil, gizarte hor konpon. Gogoeta bide hau nik baino hobeto zeuk jarraitzeko lagatzen dizut. Izan ere, zure galderan badago beste esanahi bat iradokia, hori gehiago interesatzen zait, askotan ailegatzen baita erlatibismoaren aurka objekzio logiko gisa: dena erlatiboa bada, dena erlatiboa delako esaldia ere bai, beraz den-dena ez da erlatiboa; esaldi hori burukontraesantsua izango litzateke, Kretako gezurtiaren antzera. Ados. Bi gehi bi lau, ez da erlatiboa. Logika ez da erlatiboa. Edo geometria. Alegia, ezagutza formal hutsa ez da erlatiboa. Baina bi sagar eta bi madari ez da lau sagar eta ez lau madari, hori batuketa ezi-



nezkoa da, baina nolabait bada lau. Zer lau den jakiteko, jauzi egin beharra daukagu sagarren eta madarien enpiria mailatik beste maila batera, abstraktura, absolutura. Eta horrelaxe jaio da matematika edo ezagutza formal. Errealitate eta ezagutza formalaren baldintzak ez dira errealitate eta ezagutza enpirikoaren baldintzak. Errealitate eta ezagutza formal garbian erlatibismorik ez dago. Etikan maila hori lortzeko ahalegina da Kanten inperatibo kategorikoa, Newtonek fisikan bezala moralean ere formalismoa ezartzekoa, moral absolutu bat erdietsiz. Aldiz autuan eduki materialak nahasten diren orduko, zenbakiekin batera sagarrak eta madariak, edo moralean egunoroko erabakiak, erlatibismoak muturra agertzen du, formalismoaren absolututasunak ez du funtzionatzen. Hau dena Humeren baitan jada nahiko garbi dago. Dena erlatibo delako esaldia zenbait jendek ezin du onartu, batzuek Jainko absolutu batekin kontatzen dutelako, besteek Arrazoimen absolutu batekin. Hala ikusten dugu Ratzinger eta Roucorengandik euskal ilustraziozale progre batzueganaino. Euren Jainkoa eta Arrazoa guk ez diegu kendu nahi, baina eurentzat uzten ditugu. Okerrena da erlatibismoa delakoa ulertu ere ez dutela egin nahi. Ulertu gura duenak zailtasunik ez dauka ulertzeko, dena erlatibo da esaldiak bere testuingurua duela, hermeneutika elementala da hori, eta testuingurua da: historian dena da erlatibo, edo balioak denak dira erlatiboak, edo helburu politikoak denak erlatiboak, etab. Edukiez dihardugu beti, beraz baldintzapekoez. Edukiok guk ez ditugu Jainkoaren hipotesiarekin edo Arrazoimen absolutu baten suposizioarekin bermatzen, beraz berme absoluturik gabe gelditzen dira. Aski irme, hala ere, jokamolde gizatiarrak behar duenera-

ko. Eta, mesedez, hizkerak ez gaitzala engaina: erlatiboak ez du esan gura garrantzia gutxikoa. Nire askatasuna erlatiboa da, oso handia ere ez, baina oso inportantea bai, eta are, balio absolutukoa. Absolutukoa? Bai, marra gorri hura gizakiaren hertsaezinean ipini bada behintzat, Giza Eskubideen Deklarazioak aldarrikatzen duen moduan. Bukatzeko, badakit asko sinplifikatu dudala, baina ezingo dugu elkarrizketa hau filosofiako klase bat bihurtu. Aprobetxatu nahi nuke ohartxo bat egiteko. Erlatibismoa aldarrikatzeak probokatu egiten du. Ia inor ez dago bere burua espreski erlatibista deklaratu lukeen filosoforik, alderantziz baizik, eta filosofia profesionalean erraz ulertzen da zergatik. Erlatibista aitortzeak badauzka bere komeriak. Neu ere ez nago erlatibismoaren apostolutzan bereziki tematua. Bakarrik, ni kultura dogmatiko batetik nator, ez daukat esan beharrik, eta beharbada zerbait alergikoa naiz musika batzuentzat. Egia eta arrazoi eta zuzentasun absolutuak orduan katolikoak ziren. Frankistak. Orain balioen oraingo galera eta miseria moralaren erruduna erlatibismo posmodernoaren omen dela entzun behar izaten dut. Eta diskurtsoa pixka bat demokratiko eta ilustratu gisan jantzita bai, baina balio absolutuen nostalgia dagoela, nabaritzen da, ziurtasun absolutuena, egia ezbaigabekoena, eta kultura dogmatiko huraxe dela bere etsaitzat erlatibismoa daukana. Horregatik nik erlatibismoa beti kondenatu hori espreski errebindikatu egiten dut. Erlatibismoaren absoluturik gabe.

**Halako etsi bat ere suma daiteke zure idatzietan gauza elementalenak errepikatzen ari zarela.**

Etsia baino, kontu berak errepikatzen ari naizen sentsazioa bai, badaukat. Euskal Herriari buruz gauza berdinak ari gara beti jira eta bira entzuten eta erantzuten. Baina ez da hori bakarrik. Begira, belaunaldi bakoitzak eta norberak bere esperientziatik pentsatzen dugu mundua. Politika, erlijioa. Eta esperientzia mugatua da bakoitzarena, gurea areago, frankismo kumeona. Nik gure belaunaldiaren esperientziaren gogoeta egin dut, horren eta nire mugekin, eta esatekoak honezkero esantsu eta birresantsuak dauzkat. Beti esaten dut, frankismoan euskararen alde altxatu zirenetan, ni lehenetako azkena izan naizela. Zorte handia izan dut, bidea urratuta zegoen ni etorri nintzeneko. Nik ez dut aurrekoen gogoeta birgogoetatzen jarraitu besterik egin. Intuizioak haiek izan zituzten. Txillardegik, Intxaustik. Zortea izan dut ikaragarria pertsonalki adiskideak izateko Txillardegi eta Aresti, Jon San Martin, Xarriton, Karlos Santamaria, Martin Ugalde, Rikardo Arregi, Joseba Zulaika, Joseba Intxausti eta Torrealдай, Imanol Berriatua, Gandiaga, Manex Erdozaintzi-Etxart, Paulo Agirrebaltzategi eta Paulo Iztueta, eta hainbat gehiago, nik uste belaunaldiko lorearen lorea. Pribilegiatu bat izan naiz benetan. Jose Antonio Aduriz eta Xabier Mendigurenek nire idazki lardatsak txukundu dituzte. Joseba Jaka eta Jose Mari Sorsek publikatu eta zabaldu. Eta maitatu eta gozatu izan ditudanak: Axular, Lizardi. Ez, etsirik ez. Merezue zuen mundu honetatik pasatzea. Ordea, arrazoi duzu, erretiratzen ere jakin behar da. Ordua da hitza belaunaldi berriei pasatzeko, beste esperientzia batzuekin eta batzuetatik pentsamendu berri bat ekar diezaguten, mundu berri bat.

**Arantzazu, bukatzeko. Azken egunak Gandiagarekin zure azken liburuan, jainkoaz(ez) eta erlijioaz(ez) egiten duzu gogoeta, eta nolabait halako itzulera baten berri ematen duzu: fede gabeko fede baterantz lerratuz joan zarela diozu, baina fedeko gauzek 'hor kanpoan' izateari utzi diotela jada. Nola definituko zenuke itzulera horren bidea eta zergatia?**

Apolo ez dela existitzen, garbi dago guretzat. Baina garbi dago grekoentzat existitzen zela, eta haien bizitzan eta kulturaren, artean, gerran, presentzia handia zuela. Beraz, zer esaten dugu, Apolo ez dela existitzen, esaten dugunean? Non ez da zer existitu? Ez zen existituko hor kanpoan objektu bat edo grekoek imajinatu duten kurok bat bezala, hau da, ez zen existitzen tenplo bat edo estatua bat existitzen den moduan, ez zen Delos uhartean edo Delfiko maldan bestelako eraikin batzuen artean egon zegoen zerbait, orain arkeologoen haren puskailaren bat aurkitu ahal izateko eran, baina grekoen espirituan bazegoen, edozein grekoren bihotzean existentziarik pertsonalena eta errealea zuen, Apolok osatzen zuen hain zuzen hein handi batean espirtu grekoa. Sokratesek, inpio eta ateista izateagatik heriotzera kondenatuak, edena xurrutatu baino lehentxo Apolori sakrifizio txiki bat eskaini dio, patxadan hiltzeko. Arantzazuko erromesak ondo daki egiazko Andre Maria egon “zeruan” dagoela, “zeruko” gauza bat dela, eta ez begien aurreko irudi harrizko hori. Jainkoa, bada, eta berdin Andre Maria, haraindian pentsatzen da eta gure barruan existitzen da, edo ez da inon existitzen –erlijioa Jainkoaz ari naiz orain. Apolo jada

aspaldi gure barruan ez baita existitzen, guri ebidentea iruditzen zaigu gugandik kanpoan ere inoiz ez existitu izatea, guretzat ez baita inoiz inon existitu izan, gure kulturaren. Gatozen mendebaleko gaurko Jainkoarengana, judu-greko-kristau nahasia berau, mitologiko-metafisiko-razionalista nahasia orobat. Gure kulturaren suposatzen da hori guregandik kanpo, zer berezi bat bezala, “zeruan” existitzen dela, eta fededunen bihotzetan ere bai noski. Ateistek esaten dute, hor nonbait kanpoan, zeruan-edo, ez dela existitzen Jainkoa bezalako ezer, Jainko hori ez dela existitzen behiala Apolo existitu dena baino gehiago. Ni ados. Eta jende baten barruan bai, existitzen dela haren irudipena, baina neurosi kolektibo bat besterik ez dela, Freudekin esateko. Ateistak jeneralean hor gelditzen dira. Horixe da errazena, eta niri aski iruditzen ez zaidana. Irudipena daukat hori fundamentalismoa dela funtsean, berdin zait positibo ala negatibo. Hau da, kanpoko existentziaren erre-alismo horretan hisiatuki hisiatzea, fundamentalismo hutsa dela, teista bezala ateista, kontzientzia barneko existentzia soilak subjektiboegia-edo iruditzen duelako apika. Fundamentalista horien pentsaera dogmatikoan, Jainkoaren existentzia zergauza baten existentzia kasi materiala bezalako suposatzen da, eta baiesten edo ezesten da. Gu denok gatoz tradizio fundamentalista batetik, ezta? Hori da hain zuzen nik arbuiatzen dudana, planteamenduaren moldea bera. Niretzat Jainkoa, izan, ez da ezer; edo, izan, biziaren eta unibertsoaren zentzua da. Zentzua nik ipintzen dut edo ez dut. Baina, ipini badut, bada, erre-ala da. Jainkoaren irudipena neurosi kolektibo bat dela esatea, ezer ez esatea da, gizakia abere neurotikoa bat dela

esatea ez bada. Hankabikoa, inteligentea eta neurotikoa. Eta? Zientzia ere ez da existitzen, neurosi kolektibo bat izango da. Zure galderara itzuliz: ni ateista naiz, esango banizu, denek ulertuko lukete. Baina txarto ulertuko lukete kasi seguru. Niretzat Jainkoa ez dago, baina bada, ebidente da badela, gizadi guztiak harekin operatzen du, hura ukatzen dabilenean ere. Kasu, ordea, Jainkoaren kontzeptuan dena konfunditzeko joera dugu-eta. Bereiz dezagun. Jainkoaren existentziara, mendebaleko kulturaren alde batetik erlijio eta mitoaren bidetik ailegatzeko gara; bestetik razionalismo filosofikoaren bidetik, hala nola Aristoteles, Descartes eta Kant; eta hirugarrenik zientziaren bidetik, Newton eta Heisenberg eta Einstein adibidez, edo oraintxe H. P. Dürr, fisikaria, Nobel Sari Alternatiboa. Ez dut esaten Jainkoaren demostraziora ailegatu, baina bai filosofo eta zientifiko onarpena, haren aitortzara. Hiru Jainko hauek, kultura batean dena bat da eta, nolabait hirurak bat bihurtu ditugu, baina, ongi behaturik, diferentek dira. Gero badago, gainera, teologo razionalistek asmatu duten Hirutasun Santu bat ere, Guruztarien eta Francoren Jainkoa, eta Jainkoa gauza asko da, kultura bezala. Zein da ateistek ukatzen dutena? Kanpoko Jainko hori, fundamentalistena, nolabait esateko, aspaldian fededun askok abandonatu du, antropomorfismo txar bat bezala, barruko, h. d., fedeko Jainko batengana itzultzeko. Hau barrura itzuli hau, fededuna izan daiteke ala fede asko gabea, edo fedegabea. Halako itzuli bat Gandiaga zen, fededuna, bizi eta espresabide berriak ematen ahalegindu dena mito zaharrari.

## **Eta zure itzuleraz?**

Nire itzuleraz ez du merezi luzatzea, ez da interesatea. Esan gura dut, ekarpen positiborik ez daukadala. Azken aldian saiatu naiz behin eta berriro nire ezbaiezko abelera esplikatzeko, baina konbentzitu naiz ez dakidala behar bezala argitzen, seguruena neuk ez daukadalako aski argitua. Seguru asko besteen jarreraren analitikoak da soilik, ez da kreatiboa ezer berrirena inorentzat. Beraz, horretan utziko dugu: ni ateista naiz, eta ez naiz, ateismoa ez zait ezer interesatzen. Ez dagoen Jainko hori da interesatzen zaidana, sinestunen barrukoa, eta neuk horrengan beharbada asko sinesten ez badut, horren sinesleengan sinesten dut: Apolo, Yahve, Pachamama. Bestea, existitzea probableago dirudiena edo arrazoimenarentzat bederen onargarriago omen dena, unibertsoaren azken printzipioa-edo, harmonia unibertsalaren Adimena-edo hori, ez zait interesatzen. Orain ulertzen da? Jainkoaren mitoa interesatzen zait, ez Jainkoaren filosofia edo zientzia. Eta, noski, ezta ez dakit haraindiko zein ezlekutan begira-begira edukiko genukeen Isfinge metafisikoren bat ere, beldurgarria edo maitagarria. Gero badago beste galdera bat, erabakita ez daukadana. Jainkoaren arazoa neuri ez zait interesatzen arazo metafisiko bezala. Bizi garen herrian eta orduan, ateismotik behar dugu liberatu, ala zanpatzen gaituen Jainko batengandik? Ala Jainko hori liberatu behar dugu zanpatzailea izatetik?





